

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-09-10  
ASTELEHENA  
376. ZENBAKIA  
9. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM



JOKIN BEREZIARTUA

**"Kanpotar batzuk integratuta daude, baina oraindik lan handia dago egiteko"**

**E. Uribarren-Iturrieta**  
Aramaioko zinegotzia | 20

Josu Elberdin eta Ganbara bikain, Joan Paulo II.aren omenez | 29



Arrasateko pilotariak onenak Dorletako Amako lehian | 26



Kalean eta jende ugariarekin ospatu dute pintxo-potearen urtemuga | 14

## Herri bazkari arrakastatsua, otxandioarrak lagun hartuta

Giro polita izan da asteburuan Leintz Gatzagako jaietan | 12



Herri bazkaria. | JON BEREZIBAR

## Maila handiko hizlariak historialarien biltzarrean | 5

## Patxi Ugalde finaletik kanpo, meritu nahikoa egin arren

31. amaitu zuen palista bergararrak Europako lehian | 25

## Mondrako emakumezkoek galduz hasi dute liga

Etxean geratu da mutilen Arrasate Hiria txapelketa | 22



UDA-Aloña partidua. | JOSETXO ARANTZABAL

## Agintaldiarekin pozik egon arren, ekonomikoki ilun ikusten du geroa Eskoriatzako Udal Gobernuak | 19

# Arantzazu, aldarrikapen berriekin

Emakumeen eskubideen aldeko mezuak helarazi zizkioten atzo Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzainari; horiek batu zitzaizkien Ama Birginaren egunez ohikoak diren kutsu politikodun eta, noski, izaera erlijiosodun adierazpenei | 4



Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzaina, Arantzazuko Amaren eguneko elizkizunean.

**%10** eko  
deskontua



► Zoaz 21. orrialdera.

# Aurten ere Asiako liztorraren bisita izan dute erlezainek

- ▶ Antzuolako Irimo baserrian joan den astean habia bat aurkitu zuten
- ▶ Asiako liztorraren (*Vespa Velutina*) jomuga hemengo erlea izaten da, jan egiten du
- ▶ Liztorraz gain, beste hainbat faktore ere kaltegarriak dira hemengo erlearendako

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARRASATE  
Erleak ezinbestekoak dira ekosistemaren oreka mantentzeko. Azkenaldian, baina, etsai gogorra dauka hemengo erleak: Asiatik etorritako liztorra, *Vespa Velutina*. Liztor horren elikadura erleetan oinarritzen da, eta, orain arte ikusitakoaren arabera, bere zabal-kundea oso azkarra da, Gipuzkoako erleak eta ondorioz biodibertsitate eta ingurumena arriskuan jarrita, behar den moduan eta behar den azkartasunarekin jokatzeko ez bada. Asiatik etorri zen, eta Europara Frantziatik, Bordeletik sartu zen. Kostaldetik heldu zen Debagoienara. Azken habia

joan den astean aurkitu zuten, Antzuolan, Irimo baserrian. Horrez gain, habiarik aurkitu ez duten arren bailarako beste herri batzuetan ere ikusi dute Asiako liztorra. Oñatiko Etxeberrialde baserrian hainbat harrapatu dituzte. Uste dute inguruan habiaren bat izango dela, baina, orain zuhaitzak hostoz beteta daudenez, oso zaila da habia topatzea. Arrasaten ere ikusi dutela esan digute erlezainek.

**Erleak, ezinbestekoak**  
Erleak dira *Vespa Velutina*-ren jomuga eta helburua; haietaz elikatzen da, eta halako lauzpabost

liztor 30.000 aleko erlategi bat bi orduan birrintzeko eta erle guztiak akabatzeke gauza dira. Gipuzkoako Erlezainen Elkartearen esanetan, arazoa "jendarte osoarena" da, erle xume eta langileak ezinbestekoak direlako ingurumenaren osasunarendako, eta erleak ezinbestekoak direlako polinizatzeke. Hortaz, erlerik gabe, ekosistema larri zaurituta geratuko litzateke.

**Antzemateko samurra da**  
Itxura aldetik oso samur antzematen zaio: erle arrunta baino hiru aldiz handiagoa da, gutxienez, eta, gehienbat, beltz kolore-

koa, hanka horixkekin -bertako liztorrak ipurdi horia eta hanka beltzak ditu-. Erlauntzen inguruan egoten da, hegaldian, baina geldikor. Polenez edo nektarrez erlauntzera zamatuta datorren erlea du gustuko, eta horiek erasotzen ditu. Gainera, erleek liztorra inguruan ikusten dutenean ez dira erlauntzetik irteten, eta gosez hiltzen dira barruan. Erlauntzak ere ez dira leku seguruak; liztorrak horietan ere sartzen dira. Erleei burua kentzen diete eta gorputzak jaten dituzte. Liztor hiltzaileek duten beste defentsa bat habiak egiteko modua eta lekua da. Habiak erraldoiak dira:

zirkunferentzia 1,50 metro ingurukoa da.

Jon Urtzelai eta Migel Angel Ormazabal erlezainek Oñatiko Zubillaga auzoan dituzte erleak. Iaz agertu zitzaizen Asiako liztorra euren -Oñatin lehenengo aldiz agertu zenean-, baina aurten ez dute ikusi. Iaz abuztuan Olabartako Ugarte baserrian ere agertu zen. Habia bat egin zuten liztorrek teilatu azpian -irudikoa. "20 erlauntz ditugu Zubillagan; tranpak jarri ditugu, baina aurten ez da batere jausi", dio Jon Urtzelaiak. "Normalean, liztorrek erlauntzaren kanpoan itxoiten dute. Gure erleak erlauntzera sartzeraz doazenean harrapatzen dituzte, askoz ere handiagoak direlako, eta, gainera, gure erleak lan egitetik datoz, nekatuta. Burua kendu eta jan egiten dute. Batzuetan, erlauntz barrura ere sartzen dira, nekatuta daudela ikusiz gero", azaldu du.

Josu Agiriano aretxabaletarrak Mendiola auzoan ditu 16 bat erlauntz: "Ez dut izan arazorik, ez zait ezer sartu", azaldu du.

## Norberak habirik ez kentzeko esan dute

Asiako liztorraren habia bat ikusiz gero norberak ez kentzeko esan dute Gipuzkoako Erlezainen Elkarteak. Protokoloa jarraitu eta 112 zenbakira deitzeko nabarmendu dute. Etxe ondoan bat topatuta ere, dagoenetan uztea komeni da harik eta adituak etorri arte. Liztorrek eraso egin dezakete.

**ikasi eta landu**  
**euskarara bizia**

**eman izena** | [www.aek.org](http://www.aek.org) | 943 77 03 69

Eskolak | On line | Barmolegiak | Mintza praktikak | Titulu homologatuak | Normalizazio planak

- **EUSKALDUNTZEA** (5 / 10 ordu astean, erreleboak)
  - B1 maila edo 1. perfila; erabiltzaile autonomoa.
  - B2 maila edo 2. perfila; erabiltzaile gaitua.
- **MINTZA-TALDEAK** (5 ordu astean)
  - Astean 2 egun ahoz hobetzeko eta soltatzeko.
- **AUTOIKASKUNTZA** (190 ordu)
  - Programazio pertsonala etxerako + tutoretzak + mintza-saioak.

- **C1 MAILA / 3. MAILA / EGA** (5 ordu astean)
  - Astean 2 egun azterketa ofizialak prestatzeko.
- **C2 MAILA / 4. MAILA-PERFILA** (6 ordu astean)
  - Astean 2 egun + etxerako lanak + proiektua + tutoretzak. (180 ordu).

*Bekak Arrasateko Udalaren laguntzaz!*

**MATRIKULA zabalik**  
2012-09-28ra arte  
Goizez, 11:00etatik 13:00etara.  
Arratsaldez, 18:00etatik 20:00etara

DEBAGOIENEN AKE EUSKALTEGIA  
ARRASATE  
**aek**  
Garihial 14, Arrasate 943 77 03 69 • [arrasate@aek.org](mailto:arrasate@aek.org)



Irimo baserrian habia agertu zen lekua. | ANDOITZ ARANBURU

## Irimo baserrian habia kendu zuten

Antzuolako Irimo baserri ondoan asiak liztorrek egindako habia erretiratu zuten abuztuaren 29an. Felix Aranburuk etxe ondoan duten zuhaixka mozten zebilela erle baten ziztada jaso zuen. Liztorrak oso handiak zirela ikusita asiak liztorra izan zitekeela pentsatu zuen. Hala, 112 zenbakira eta Antzuolako Udalera deitu zuten. Futboleko baloi baten tamaina zuen habia hartu zuten suhiltzaileek, eta tranpa jarri dute habia zegoen lekuan.

## ESANAK

"Lehen erle asko zeuden baina orain gero eta gutxiago daude; ezin dira mantendu, lan handia eskatzen dute..."

JOSU AGIRIANO | ERLEZAINA

"Aurten, adibidez, konturatu gara erle batzuk hasi direla negurako egin duten ezitia jaten; lehorteagatik da hori"

JON URTZELAI | ERLEZAINA

"Altuera batetik gora ez daudela diote, baina Legazpin agertu dira, eta Legazpi Araotzen altuera berean dago"

ANDOITZ BARRIOLA | ERLEZAINA



Oñatiko Etxeberrialde baserrian duten erlauntzetako bat. | ARITZ BIAIN



Iaz abenduan Olabartako Ugarte baserrian hartutako habia. | JON URTZELAI

Andoitz Barriolak zortzi bat erlauntz ditu Araotzen, eta hark ere ez du liztorrik ikusi: "Hemen ez dugu ikusi. Lehen esaten zuten altuera batetik gora ez zela agertzen, baina badakit Legazpin agertu dela, eta Legazpi Araotzen antzerako altueran dago", dio.

#### Gero eta erle gutxiago daude

Agirianok dio hemengo erlea gero eta gutxiago dagoela eta gero eta zailagoa dela eztea egitea. Erleari kalte egiten dioten parasitoen artean, 1982 inguruan etorri zen *Barroa* parasitosa dago: "Erlea poliki-poliki jan egiten du eta, gainera, erlea malformazioe-

kin irteten da arrautzatik", azaldu du Agirianok.

Gizarteak naturarekin duen harremanaz ere kezkatuta dago Agiriano. Haren ustez, erabiltzen ditugun pestizidak, telefono antenak... horiek guztiek eragina dute erleen populazioan. Asiako liztorra eragiten dabilen kaltearen ondorioz erleen egoeraz jabetu garelako dio Agirianok, baina orain arte inork ez duela ezer egin erlearen alde. "Orain dela urte batzuk erle mordoa zeuden, baina azkenaldian gero eta gutxiago. Ezin dira mantendu, hiltzen dabil-tza. Denbora luzea eskatzen dute, gastua da...", azaldu du.

DATUA

60

ZENTRIMETROKO HABIA

Habia ikusgarriak egiten dituzte; 60 zentimetroko altuera hartzen dute.

Ekosistemaren oreka mantentzeko beharrezkoak direla dio, baina, hala ere, erlezainek dirulaguntza gutxi jasotzen dituztela nabarmendu du. "Dirurik ez

dagoela esango dute", dio, "baina lehen ere ez zuten ematen".

Jon Urtzelaik ere igarri du gero eta zailagoa dela eztea egitea: "Negu batzuetan igarri dugu erle asko hil direla. Aurten, adibidez, oso uda lehorra ari da egiten; eta erle batzuk hasi dira negurako egin duten eztea jaten. Lehortea dagoelako da hori. Ez daukate lorerik eta negurako egin duten eztea jaten hasi dira" azaldu du. Bestalde, hauxe gaineratu du: "Honetara dedikatzen garen gero eta jende gutxiago dago -gero eta nagusiagoak dira erlezainak-, laguntza gutxiago dago... azken finean, lotua da", azaldu du.

Udalek ez diete erlezainei dirulaguntzarik ematen, Diputazioak ematen die. "Laguntza jasotzeko gutxienez 20 erlauntz izatea eskatzen zuten, eta ematen zuten 30 euro erlauntz bakoitzeko bost urterako. Baina, gaur egungo egoera ekonomikoa ikusita, hurrengo laguntza hutsa izango da", gaineratu du Urtzelaik.

Bestalde, Jon Urtzelaik nabarmendu du Gipuzkoa ez dela eztea egiteko leku egokiena: "Fruta sail handiak dituzten lekuetan gehiago jartzen dituzte; izan ere, fruitua hobea irteten da". Erlearen alde lan egitea ezinbestekoa izango da haien bizi iraupenerako.



Erlategia, basoan. | GOIENA



Asiako liztorra, bertakorentzathain kaltegarri dena. | GOIENA

Orain Arrasaten

Benetan **pisua galdu** nahi duzu?

Rosa Sarabia doktoreak

kontsulta berria ireki du:

**Pronokal** metodoa

Zientzia eta zorrotasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gose gabezia

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE  
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA

BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA

BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK

BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastikoa

Esan baietz  
betiko

# Munillak "terrorismoa espiritualki" gainditzeko deia egin zuen

- ▶ Arantzazuko Amaren eguneko elizkizuna gidatu zuen Gipuzkoako Gotzainak
- ▶ Sermoian gaixotasun sendaezinak dituzten ETAko presoak aipatu zituen

JON BEREZIBAR | OÑATI

Beste zenbait urtetako jende pila-keta barik baina basilika goraino bete adinako kopuruarekin, Arantzazuko Amaren eguna ospakizun egun handi moduan bizi izan zuten atzo fededunek. Jose Ignacio Munilla Gipuzkoako Gotzainak gidatutako elizkizunean, sermoian hitz egin zuen "terrorismoari", gaixotasun sendaezinak dituzten ETAko presoek buruz, "gizatasuneko printzipioak" aintzat hartzeko dei eginez. Arantzazun bertan presoek aldeko Herrira taldeak elkarretaratze jendetsua egin zuen eta Oñatiko Emakume taldeak ere protesta egin zuen Elizaren "jarrera ultraeskuindarra" salatze eta Munilla beraren "emakumeen eskubideen aurkako adierazpenak" eta "jarraera homofobia" gaitzesteko.

## Presoak eta hauteskundeak

Homilian Gipuzkoako Gotzainak fededunen "gizatasun printzipioei" egin zien dei behin eta berriz. Gaixotasun larriak dituzten ETAko presoak izan zituen gogoan Munillak, hala, eskatuz "terrorismoa espiritualki gainditu" beharra dagoela, hark "eragiten duen gorrotoan erori gabe". Atentatuak kondenatu barik jarraitzen dutenek "biktimak iraintzen" dituztela nabarmendu zuen Munillak. Horrela, fededunei zuzenean hitz egin zien ohartaraziz "fedea indarra galtzearen ondorioz arreta beste kontua batzuetara" bidertzen dela "disputa politikoetan eroriz". Honen harira, urriko



Munilla gotzaina, homilia irakurtzen Arantzazuko basilikan. | JOSETXO ARANTZABAL

hauteskundeak ere aitatu zituen Munilla gotzainak politikariek eskatuz "justizia eta bakera garatzen bidea" aukeratu dezatela eta bereziki gogoan izan ditzatela familiak. Besteak beste, Markel Olano batzarkide jeltzalea eta Lurdes Idoiaga alkate ohia zeuden lehen lerroetan, ordezkari politikoaren artean. Sermoian tartean bertan Oñatiko Emakume Taldeak eskuorriak zabaldu zituen basilikan korutik *Abortuaren aldeko otoitza* zeritzan testuarekin. Santutegiaren inguruan Munillaren "homofobia", "emakumearen zapalkuntza" eta Elizako pedofilia kasuak salatzen zituen papearak eta pankartak eskegi zituzten hormetan.



PILAR BASTIDA ETA NEKANE ARREGI AZPEITIA

"Izeba eta biok etortzen gara ahal dugu guztietan. Gaur bete ditu izebak 90 urte eta neu ere berak ekartzen ninduen txikitatik Arantzazura. Izango dira 20 urte baino gehiago urtero-urtero izeba eta biok gatozeta eta asmorik ez daukagu ohitura hori galtzeko. Izebak urtero aukeratzen zuen iloba bat Arantzazura etortzeko eta azkenean neu ekartzen ninduen beti. Guri Arantzazuko Amak sekula ere ez digu hutsik egin".



PILAR IRAGORRI OIHARTZUN

"Hirugarren urtea da gatozeta baina asko gustatzen zaigu giro on eta euskalduna egiten delako. Ez Amabirjinarengatik bakarrik, eguna pasatzera etortzen gara Arantzazura, leku paregabea baita bisitan etortzeko".



JOSETXO ARANTZABAL

## Beste manifestazio jendetsu bat

Josu Uribetxeberria eta gaixo dauden beste 13 presoak berehala askatzeko eskatuaz manifestazioa egin zuten egubakoitzean Arrasateko kaleetan. Arrasateko Herrirak deituta herriko plazan elkartu ziren eta kalerik kale ibili ziren preso gaixoen askatasunaren aldeko aldarrikapenak egiten. Bukaeran Seber Altuben elkartu ziren.



JULEN IRIONDO

## Kutzazaina erreta Arrasaten

Zapatu gauean Santander banketxeko kutxazain automatikoa erre zuten Arrasateko Ignacio Zuloaga kalean. Ertzaintzaren arabera, erregaia bota eta su eman zioten ezezagun batzuek. Kutzazaina kiskalita geratu zen. Ertzaintzak ezin izan zuen itzalgailuarekin sua itzali eta Zubillagako suhiltzaileak bertaratu ziren.

## Dirua eta edariak lapurtu dituzte Bergarako gaztetxean

Zapatu goizaldean lapurrak sartu ziren Bergarako gaztetxean eta dirua eta edariak lapurtu zituzten. "Lapurrek dirua eta edaria kantitate esanguratsuan ostu" zutelako salatu dute gaztetxetik eta erakinean kalteak eragin zituztela ere bai.

Gertaera "larrizat" jo dute eta norbaitek gertaeraren berri badu edo zerbait ikusi badu, gazte asanbladarekin hartu emanetan jartzeko eskaera egin dute. Gaineratu dute, halako jarrerarik ez dutela onartuko eta "gaztetxea herri guztiarena den heinean, guztionganako erasotzat" hartzen dutela gertaera.

# Euskaltegietako matrikulazioa, zabalik

► Urrian hasiko dute AEK-k eta udal euskaltegiek ikasturtea; irail bukaerara arte eman daiteke izena

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Udal euskaltegiek eta AEK-k matrikulazio kanpaina abiatu dute. Ikasleen esperoan daudela azaldu digute bertako arduradunek. "Irailan matrikula zabaltzen dugu, eta ikasleen etorreraren zain gaudete; gure kasuan, udako trinko bat dugu eta lanean gabiltza, datorren kurtsoa prestatzen", azaldu digu Alex Labaienek, Bergarako Udal Euskaltegiko ordezkariak. "Aurreko ikasturtea ona izan zen guretzako, ikasle kopuruak pixka bat gora egin zuen; beldurra bage-neukan krisia zela-eta. Aurten ere beldurra badaukagu; baina espero dugu ikasle kopurua mantentzea", gaineratu digu Oskar Elizburuk, Arrasateko AEK-ko ordezkariak. AEK-k, gainera, *Euskara bizipoz* lehiaketa –ikasleen artean matrikula zozketatzeko–

ESANAK

**"Gure lan jardun guztia matrikulazioen menpean dago"**

ALEX LABAIEN | UDAL EUSKALTEGIAK

**"Krisi garaiak aukeren garaiak direla diote; gu aukera bat gara"**

OSKAR ELIZBURU | AEK

hilaren 14ra arte du zabalik. "Orokorrean dagoen atmosfera ezkor samarra da arlo guztietan, eta horrek eragina dauka. Gure jarduna ez da araututako eskola; beraz, gure lan jardun guztia matrikulazioaren menpe dago eta horrek urduritasuna sortzen dizu. Iaz jaitsiera bat igarri genuen, nahiz eta gero kurtsoari ondo eutsi. Gure matrikulazioa birmatrikulazioan oinarritzen da, fidelizazioan", azaldu digu Labaienek.

"Urduritasuna badago, baina hainbat jende langabezian dago eta euskara bada prestakuntzari begira aukera bat, eta, agian, jendea etorriko da ikastaro trinkoak jasotzera", dio Elizburuk. "Ekonomialariek diote krisi garaiak direla aukeren garaiak eta gu aukera gara lana bilatzeko".



Oskar Elizburu eta Alex Labaien, Goienako platoon. | MIREN ARREGI

**Erronka nagusiak**

"Taldea osatzea da gure lehen erronka; langile guztiendako lana topatzea eta langile gehiago izatea urteroko martxa mantentzeko eta hobetzeko. Euskaltegian giroa lortzea, alegia", nabarmendu digute.

Azken urteetan, baina, lanpostu bat lortze aldera titulua lortu gura dutenak asko dira. Hirugarren eta laugarren hizkun-

tza eskakizunak ateratzeko asmoa dutenak gehiago direla esan digute. "Hasieran kaleko jendearentzat EGA besterik ez zegoen. Baina orain 10 bat urte hirugarren eta laugarren profilak lortzeko aukerak jendea erakarri egin du. Izan ere, jendeari gustatzen zaio titulu hori edukitzea egindako lanaren sari moduan; euren euskara mailaren titulua edukitzea, alegia", azaldu digute.

## Hizlarien maila nabarmendu dute historialarien biltzarraren hasieran

JULEN IRIONDO | ARRASATE

"Antolakuntza aldetik oso gustura geratu gara. Aretoa bete egin da eta hizlarien maila oso altua izan da", zioen Angel Rekalde Nabarraldeko zuzendariak Euskal

Herriko historialarien biltzarraren hirugarren edizioako lehen saioa, Arrasateko Kulturaren egindakoa, amaitu eta gero.

*Hizkuntzaren galera eta eremu murrizketa* izenburupeko saioan,

hiru hitzaldi izan ziren aurrena. Kontseiluko Iñaki Lasak, adibidez, adierazi zuen hizkuntzen arteko orekak eta desorekak botere erlazioen arabera direla: "Hizkuntza bat normalizatzeko, botere harremanak sakonki aztertu behar dira".

EHUn katedraduna den Koldo Zuazok, berriz, bizkaieraren jatorriaz jardun zuen: "Bizkaian zegoela uste izan dugu, baina gaitza da hala izatea. Gauza asko Nafarroako ibar batzuetara ere iritsi dira, eta Bizkaitik hara joatea ezinezkoa da". Egun bizkaiera deitua Araban sortu zela dio Zuazok.

Jean Louis Davant idazle eta euskaltzainaren hitzaldiaren ondotik, mahai-ingurua egin zuten Pako Aristi idazleak, Josu Lavin linguistak eta Julen Arexolaleiba irakasle arrasatearrak.

Biltzarrak Leitzan jarraitu zuen zapatuan eta beste hiru saio izango ditu asteburu honetan.



Iñaki Lasa hitzaldia egiten, Kulturateko areto nagusian. | JOSETXO ARANTZABAL

## UNEDen eskaintzaren aurkezpena, etzi Donostian

Asteazkenean, hilak 12, aurkeztuko dute Koldo Mitxelena UNED-Bergarako 2012-2013 ikasturterako eskaintza akademikoa. Interesa duen ororentzat irekia izango da 19:00etan hasiko den aurkezpena eta bertan azalduko dute ze aukera izango den ikasturte berrian: graduak, goi ingeniariak eta ingeniariak teknikoak, masterrak, graduondokoak...

## 2.200 euro inguru batu dituzte Antzuolan Senegalgo eta Kongoko proiektuetarako

JULEN IRIONDO | ANTZUOLA

Debagoienetik diru kopuru polita iritsiko da Afrikako bi herrialdeetara, bertan diharduten kooperante antzuolarren bidez, zapatuan egindako Elkartasun Festan jasota.

Kongoko Kapiri herrian iturriak eta garbitokia eraikitzeko eta Senegalgo Djimberin-

gen amaetxea egin eta hezkuntza bultzatzen jarraitzeko primeran etorriko zaizkie, besteak beste, herritarrek egindako tortillak –40 denera–, urdaiazpikoa eta ardoa banatuz jasotako dirua. Virginia Imazen *Encantadas* antzezlanaren ere kopuru polita jaso zuten. 200 bat lagun izan ziren festan.



Elkartasun Festan jendea jan-edanean. | JOSETXO ARANTZABAL

# Ekintzaileentzako 4 milioi pasatxoko laguntza iragarri du Foru Aldundiak

- ▶ Langabeziak eta BEZak izandako igoera izan dira albiste nagusi oporretatik bueltan
- ▶ Foru Aldundiaren laguntzek enpresa eredu berriak sustatu gura dituzte

ZURIÑE V.D.M. | DEBAGOIENA

Oporretara joan aurretiko egoeraren antzerako panorama aurkitu dugu itzuleran ere, salbuespenak salbuespen. Esate baterako, abuztuan langabeziak gora egin zuen apur bat Debagoiengan aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; 3.332 pertsona zeuden guztira lan barik. Irailaren leian gainera, hiru BEZ motetatik bi igo ziren, horrek dakartzan ondorio guztiekin.

## Krisiaren ondorioak

Krisiarekin lotutako arazoak dira gai garrantzitsuenak une honetan Adrian Zelaia Ekai Centerreko buruaren iritziz. Lana da herriarren burukomin handienetarikoa bat; aurrez aipatu bezala, langabezia tasa handitu egin da abuztuan gure ibarrean. Halere, "enpresen esportazioak garrantzia hartu du eta positiboa da".

Bestalde, uztailean Espainiako Gobernuak zenbait murrizketa iragarri zituen, askoren artean, funtzionario, langabetu eta erretiratuei eragingo ziena. Horiatariko batzuk ez zituela indarrean sartuko esan zuen Eusko Jaurlaritzak eta horren harira, Zelaia honakoa adierazi dio GOIENARI: "Gogoratu behar dugu, borroka politikoak beti nahasten direla helburu ekonomikoekin, eta batez ere, orain kasuan bezala, hauteskudeen atarian".

## Doitzeko beharra

Askotan eztabaidatzen da hertsura ekonomikoaz eta "neurri



Debagoieneko Mankomunitatearen eraikineko lokaletan ekintzaile ugari hasi dute enpresa berria. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

batzuk behar direla argi dago, baina gakoa zenbaterainokoak izan behar diren da. Azken finean, alderdi guztiek (Gipuzkoatik hasita) boterean egon direnean neurriak hartu dituzte aurrekontu publikoak orekatzeko".

BEZaren igoeraren harira kritika ugari entzun dira alde ezberdinetatik. Ekai Centerreko buruak dioenez, badago ikuspegi politiko guztietatik nolabaiteko adostasun bat. Hain zuzen, "kontu publikoak orekatzeko beharra dagoela uste dute guztiek, ez da eta zor publikoa handitzeko

momenturik onena". Horren harira, "Gipuzkoako Diputazioa izan zen zergak igo behar zirela esan zuen aurrenekoa", adierazi du.

Bestalde, jendea zergak handitzearekin haserre egotea normala dela pentsatzen du, "printzipioz Espainiarentzako hartutako neurria delako eta Euskal Herriak ez ditu arazo berdinak, ez arlo pribatuan ezta publikoan ere". Baina herritarrak kezkatuta daude etor litekeenarekin, eta "aurrezteko joera handituko da beldurragatik", gaineratu du Zelaia.

## Enpresa berriei, laguntza

Datu beltzen aurrean, ekintzaileentzako laguntza iragarri zuen irailaren 3an Aldizkari Ofizialean Gipuzkoako Foru Aldundiak. Kudeaketa eredu berri, parte hartzaile eta inguruari irekiagoak izango diren enpresa berriak sustatzeko 4 milioi pasa bideratuko ditu Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Sailak.

Besteen artean, laguntza horren barruan mikroenpresek, emakumeek eta ekonomia berde deitutakoaren barnean sustatuko ekimenek zein teknologian oina-

rritutakoek tratamendu berezia jasoko dutela adierazi dute.

## Aurrera begira, zer?

Kalean erreskateen gainean asko hitz egiten da, baita euro zonaldean irteari buruz... "Oro har, Europa mailan arduradun politikoen artean nahiko onartuta dago euroaren proiektuak porrot egin duela". Aurrera begira bi aukera daude adituaren ustez, edo "euroa desegitea edo beste euro berri bat martxan jartzea". Zer gertatuko den jakiteko itxaron egin beharko da.

# Krisiak desberdin eragin die higiezin eta automobilaren sektoreei

Auto salmentek gora egin dute abuztuan zehar gure ibarrean

Z.V.D.M. | ARRASATE

Ekonomikoki garai on zein txarrak direnean, merkatuko zenbait sektoreri buruz hitz egiten da batez ere, tartean, higiezinak eta automobilak. Ekonomiaren osasuna ona denean salmentek goranzko joera hartzen dute, baina modu berean jausi egiten dira une beltzagoetan erosleek poltsikoetako zuloengatik.

Aurrezteko joera hartzen da erosmen ahala txikitzeaz batera, eta hori negoziotetan ere nabaritzen dute, zalantzarik gabe.

## Bigarren eskuko autoek, gora

Ezohiko abuztua bizi izan dute zenbait kontzesionariotan; azken urteetan baino hiru bider gehiago saldu dutela esan dio GOIENARI Mugarriko Rafa Etxabek.

"Horrez gainera, geroz eta gehiago saltzen dira bigarren eskuko autoak, Europako tendentzia hona ere iritsi dela esango nuke. Baina lehen 6.000 euro gastatzen zutenek, orain aurrekontu erdia edukitzen dutela da kontua". Etorkizunaz galdetuta, pare bat urte beharko dira hobe-

ra egiteko Etxaberen ustez, bitartean "atzera egingo du".

## Higiezinaren sektorea, motel

Etxebizitzaren salerosketen kasuan, Deba Garaia higiezinaren enpresako Jesus Markaidek adierazi digunez, nahiko motel dago sektorea. Hori bai, etxebizitzek 2007tik gaur arteko preziorik baxuenak orain dituztela gaineratu du. Bigarren eskuko etxeekin egiten du lan Markaidek, eta horiek BEZik eduki ez arren, 1. go esku-koek edukitako igoera nabaritu



Etxebizitzaren alorra nahiko motel doa. | Z.V.D.M.

dute. "Ez dugu, hala ere, jende gehiago etorri denik sumatu". Nahiz eta merkatuan prezio oneko etxeak egon, bankuek ez diotela edozeini laguntzen da Markaideren iritziz arazoa. Zaila da

1. go edo 2. eskuko etxea erosi edo alokairuan ipintzeko unerik onena den esatea. "Bakoitzaren egoera pertsonala desberdina da, eta neurtu egin behar da norberarentzako zer dan egokiena".

Josu Agirrezabal | Kirol aholkularia

# "Urte osoan konstantzia mantendu behar da, egindako kirolak benetako eragina izan dezan"

- ▶ Kirol aholkulari baten lehenengo lana elkarrizketa pertsonala egitea da
- ▶ Irailean, batez ere, udan hartutako kiloak kendu gura dituztenak joaten dira gimnasia

A.T./Z.V.D.M. | ARRASATE

Iraila eskolara itzultzeko sasoa izaten da, eta gimnasioak ere jendez betetzen hasten dira. Batzuek seriotasunez hartzen dute egitekoa, baina beste askok hilabete gutxiren buruan uzten dute. Josu Agirrezabalek Aretxabaletako Ibarra kiroldegian dihardu kirol aholkulari, eta harekin egon gara.

**Zein izaten da kirol aholkulari baten lana?**

Normalean, elkarrizketa batekin hasten gara; guregana etortzearen helburua zein den eta kirola egiteko arazorik ote duen galdetzen diogu. Azken finean, gimnasioan gauza asko egin daitezke, eta, agian, batzuk ez zaizkio komeni. Informazio horrekin, bere beharrezanez egokitutako taula bat egiten dugu, eta hori jarraitzea garrantzitsua izaten da. Gero, kirola egiten duen bitartean lagundu behar izaten diogu, jarrerak zuzenduta, eta abar.

**Uda ostean jende asko animatzen da kirola egitera....**

Bai. Ibarra ere nabaritu dugu, alde batetik uda amaitu delako, baina baita Ibarra zabaldu berria delako ere. Jende ugari animatu da bazkide egitera, ea horrela segitzen duen! Gomendatzen duguna da behin izena emanda urte osoan konstantzia batekin etortzea, ariketak benetako eragina izan dezan.

**Zeren bila joaten da jendea gimnasia?**

Batzuk kirola egitera etortzen dira, noski. Baina beste batzuk, ostera, sozializatzeko asmoz gerturaten dira, jendearekin egiteko, berba egiteko... Geroz eta gehiago ikusten den joera da, eta ohitura osasuntsua, gainera.

**Eta zer-nolako profila daukate bertaritzen direnak?**

Lau profil daudela esango nuke: batetik, gimnasioa kirol bezala hartzen dutenak daude; bestetik, prebentzio lana egitera joaten direnak; lesio baten ostean lehenatu nahi dutenak (zerbikale-tako minez egon direnak, lumbalgia eduki dutenak...); eta azkenik, udan kilo batzuk hartu eta pisua galdu nahi dutenak etortzen dira guregana.

**Perfil bakoitzeko ariketa ezberdinak egin beharko dira, ezta?**

Hala da. Aurretik esan dugun moduan, lehenik eta behin, elkarrizketa pertsonala egiten dugu bezeroarekin eta informazioa ateratzen dugu. Hark zer nahi duen esaten digu eta guk helburu horiek lortzeko bideak ematen saiatzen gara.



Aretxabaletako Ibarra kiroldegian aholkulari moduan egiten du lan Josu Agirrezabalek. | AMAIA TXINTXURRETA

Kasurik berezienak lesioetatik sendatu gura dutenak direla esango nuke. Nire lana elkarrizketa egin, zer-nolako mina daukan jakin, eta, horren arabera, egitea zer komeni zaion eta zer ez ikusi behar izaten dut.

**Zaletasunagatik gerturatzen direnak ere badaudela esan dugu.**

Kirola gustuko dutelako etortzen dira; osasuntsu egotea bilatzen dute gehienek, baina baita euren irudia zaintzea helburu dutenak ere. Azken finean, gaur egungo jendartean saltzen dena hori da, itxura jakin bat edukitzea.

**Eta asko al dira oportetarik bueltan pisua galdu gura izaten dutenak?**

Bai. Sasoi honetan profil horretako pertsonak etortzen dira, batez ere. Normalean, urtean zehar pisua galtzeko asmoz etortzen direnen momentu zehatz

batzuk egoten direla gaineratuko nuke; uda edota Gabonen ostean, bereziki. Horiei beroketa saio batekin hasteko gomendatzen diet, ondoren indar ariketak eta

**"Kirola egitea ez da nahikoa, dieta egokia jarraitzea funtsezkoa da"**

**"Jende asko sozializatzeko asmoz etortzen da gimnasia"**

saio aerobiko bizi bat; eta amaitzeko, luzatze ariketak.

**Eta zer-nolako maiztasunarekin egin beharko lukete kirola haiek?**

Nik ahalik eta egun gehienetan praktikatzea gomendatzen dut. Egia da, hala ere, ez dela erraza gaur egun daramagun bizimoduarekin uztartzea: lana, umeak... Nork bere gauzak ditu egiteko. Hala ere, nik hiru egun gomendatzen ditut, gutxienez.

**Kirola bai, baina jaten dena ere zaindu beharko dute, ezta?**

Kirola egitea ez da nahikoa, dieta egokia jarraitzea funtsezkoa da emaitza onak edukitzeko. Izan ere, oreka bilatu behar da jaten duzunaren eta ariketaren bidez erretzen duzunaren artean. Azken finean, ohitura osasuntsuak hartu behar dira.

Bestalde, ezin dugu ahaztu ura edatea ere komeni dela edozein kirol praktikatzeko unean, baina gimnasioak toki itxiak izanda, bereziki zaindu behar dugun zerbait da.

**Nola motiba daiteke pertsona bat ohitura osasuntsuak urte osoan zehar mantentzeko?**

Lehenik eta behin, monitorea naizen aldetik, ez dakit gimnasiotik kanpo zer-nolako ohiturak jarraitzen dituen, eta hark esan beharko dit. Baina behin hitz egiten dugula, helburu lorgarri batzuk finkatu behar dira, eta horiek erdiesten joan ahala esfortzuak zerbaitetarako balio izan duela ikusiko du.

**Zure lana uneoro jendearen gainean egotea al da?**

Kasu batzuetan, bai, baina ez beti. Badaude ariketak euren kabuz egiten dituztenak; beste batzuek esaterako, ez dituzte amaierako luzaketak egiten. Horren harira, orain osasun mailan badago eztabaida bat ea luzaketak egin behar ote diren. Nik, behintzat, gomendatzen dut. Poliki-poliki hasten zara ariketekin, eta, ondorioz, lesioen bat edukitzeko arrisku txikia dago. Baina landu den gorputz-atal hori luzatzea ona dela uste dut, galkargarik egon ez dadin.

**Ibarra kiroldegia ireki berri dagoela eta, nolako gimnasioa aurkituko dugu?**

Erabiltzaileak ezin dira kexatu, dena da berria, erosoak eta erabilerrazak. Marrazki bidezko argibideak dituzte nondik nora jo jakiteko. Hasiberrientzako, agian, konplikatua samarra bada ere, segituan ikasten da makinaren funtzionamendua zein den.

**Igerileku berria ere badaukazue.**

Bai. Igeri egiteko zazpi kale zabal ditu, gainera, eta, bestalde, spa zona bat ere badago, erlaxatu nahi dutenentzako primerakoa: jacuzzia, txorrotak, sauna lehor eta umela... Esan didatenez, erabiltzaile askok daukate bertara joateko ohitura.

**Zein gomendio emango zenuke?**

Kirola egitea gomendatzen dut. Jendeak, askotan, betebeharrak izan behar du konstantzia mantentzeko; adibidez, kiroldegian izena emanda. Bestela, hilabete gutxiren buruan uzten dute. Beti konturatzen gara gure osasuna nola dagoen gauzak gaizki doazenean. Zenbat eta beranduago hobeto, eta horretarako, kirola sarri egitea da onena.

## ZABALIK

JUAN MARTIN ELEXPURU  
http://goiena.net/iritzia/



## Alardiak

**A**spalditxo joan jakun lagun batek demaseko zartadak botatzen zittuan. "Hi Pisto, hori gizurra dok" esaten gontsanian, zera erantzun ohi zeban: "Gizurra ez, asmautakua! Oso diferentziak dittuk".

Demaseko afiziñua dago Euskal Herrixan alarde eta tanborradetarako. Alardietan Irun eta Hondarrabikuak die famosuenak, baina hor dare Elorrixoko Errebonbilluak edo Antzuolako Morua gure inguruan. Tanborradak, berriz, nunahi, asteburu honetan bertan San Martiñetakua Bergaran. Batzuk transformau eitten die danborra astintzen, zoragarri pasatzen dabe musika eta pauso militarari lotuta narrua jotzen aspertu arte.

Bakoitzak jakiten dau zerk emoten dotsan gustua, eta zer esan bihar dotsa ba horri gure moduko basarritar ilustrau batek. Gaiñera Tradiziñua betetzen bada... Egixa da soldautzaren kontra eta militarismuan kontra hainbeste burruka eginda gero txokante samarra egiten dala hainbeste jente ustez aurre-rakoi trantze horretan ikustia. Baina ehizarixekin, zezenzaliekien eta tradiziñozaliekien eztabaidan ez hastia hobe.

Alardiak, berriz, herri guztietan egiten ei ziren antzinan. Orduan ez zan hemen ejerzitorik, armak Herriko Etxian gordetzen zien, eta urtian behin sasoiko mutilak garbittu eta probau egitten zittuen. Baina gaurko alarde gehixenak beste zerbait kontau nahi dabe. Irunguak, esaterako, 1522an espainolak frantsesei irabazitako bataillia ospatzen dau. Gaur egun mundu guztiak daki "frantsesak" naparrak ziela (frantsesen laguntziakin), eta espainolak, berriz, Naparrua eta Hondarribia bigarren aldiz inbaditu zebenak. Eta Irungo Alardia, gaurko izaeriakin, 1881an hasi zala, fueruak gal-duta gero.

Eta Antzuolako Morua zer? "Tradiziñuak diño", eta gero dator Valdejunkerako ipuina: "920. urtian Antzuolako mutilak...". Gizurra ez baiña Valdejunkerakua pasau ta 700 bat urtera asmautakua. Egunen baten garbi esan biharko da asmautakua dala. Ala ez?

## USTEAK USTE

TXOMIN MADINA | tmadina@goiena.com

## Neskatilendako izenak

**C**ecilia. Esperanza. Olvido. Azken asteotan barra-barra entzun ditugun emakume izenak dira, udako protagonistenak. Ceciliak bere *artearen* erakustaldia egin eta, bide batez, *Ecce homo* berba gizarteratu du. Madrilgo Esperanzak heriotzarekin harreman estua izan du: hainbatek berea desio izan dute, eta berak arkitektoena. Eta Olvidok, Toledoko herritxo bateko zinegotzi sozialistak, ia dimititu egin du. Korrupzioagatik? Gezurra esateagatik? Ez. Zergatik orduan? Masturbatzen agertzen den bere bideo bat Interneten zabaldu delako. Cecilia. Esperanza. Olvido. Inguruan bizi dudana *baby boom*-aren ondorioz jaioko diren neskatilendako hiru aukera. Zein animatzen da?

## KALE INKESTA

Athletic-en futbol zelai berria diru publikoarekin ordaindu behar dela uste duzu?



**HILARIO BARTOLOME ARETXABALETA**

"Arlo guztietan murrizketak egiten ari dira eta ez zait bidezkoa iruditzen futbol zelaiak diru publikoarekin ordaintzea".



**PILI URRUTIA ARETXABALETA**

"Athletic-ek partiduetan ikusle gehiago nahi baditu berak ordain dezala! Gizarteak beste lehentasun batzuk ditu".



**JUAN RAMON ALTUBE ARETXABALETA**

"Athletic-en zelai berria egiteko akordioa eginda dago. Nahi edo ez, diru publikoarekin egingo da San Mames berria".



**ANTONIO BORDEJO ARETXABALETA**

"Egunero murrizketa berri bat egiten dute eta bizi dugun egoera ekonomikoan ez zait egokia iruditzen".

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Aurreiritziak

Leire Narbaiza Arizmendi  
http://eibar.org/blogak/leire/

Ezjakintasunak sortzen dituenak.

Munduan ia 800 milioi pertsona dira analfabetoak, gehiengoa emakumeak eta afrikarrak. Ez dute eskolara joateko aukerarik izan, eta horrekin bizitza hobea izateko aukerak ere murriztu egin zaizkie. Gurean, zorionez, holakorik ez dago; nahiz eta analfabeto funtzionalak badauden, irakurtzen eta idazten jakin bai, baina gai ez direnak zer irakurri duten ulertzeko, alegia.

Analfabetismo funtzionalak arazo handiak sortzen ditu, pertsona horiek zailtasunak dituztelako ikasketetan, eta eskola-porrotera kondenatuta daude.

Hemen denok gara eskolatua, hizkuntza baten behintzat, bai. Horregatik, ondo edo txarto, gai gara idatziz komunikatzeko; nahiz eta batzuek bere ama hizkuntza (euskaran) alfabetatu barik egon, kontu latza! Era berean, horietako batzuk oso harro sentitzen dira benetako euskaldunak direlako, eta euskaldun berriak kritikatzeko

dituzte, ondo egiten ez dutelakoan. Ai, jainkoaren graziaz euskaldun diren horiek zer egin dute, bada, euren maila hobetzeko, euskaran sakontzeko. Batere ez, baina hiztun jator ustezkoak eta harroak izaten dira asko.

Euskaldunok, gure hizkuntzan alfabetatuak izan ala ez, erdaldun elebkarrek edo euskaldun hartzaileek (euskara nahiko ez dakitenek) askotan jo izan digute adarra erdaraz dugun ahoskerarengatik: erreak larregi ahoskatu, eseak txistuka egiten ditugula, zentzu euskaldunegia dugula, ... azken baten *boronoak* (artaburuak) garela esango digute. Ezjakintasuna ausarta da, gero!

Inor konturatu ote da euskaldun alfabetatua hizkuntza bitan dela alfabetatua; ele bitan kultua. Izan ere, ez dago euskaldun alfabetaturik, gutxienez, elebiduna ez denik!

Kultura maila altuagoa dutela ere estera ausartuko nintzateke, eta ez da *boutade* bat, esperientziak esan dit bietan alfabetatuak kultuagoak direla, agian, askok alfabetatzeko ardura hartu dutelako, interesa izan dutelako, bai alfabetatzeko, bai euskara ikasteko. Irakurzaleak eta jakin-nahia dutela ere esango

nuke. Nire lagun *kulturetenak* halaxe dira, behintzat.

Hori zioen lehengo egunean lagun batek, adarra jo ziotela gaztelaniaz berba egiteko moduagatik, *boronoa* zela. Eta beste euskal herritar batzuek, gainera! Gu gara *caseroak* baina hain dira ezjakinak, ezen ez baitakite ebakera kontua baino ez dela arraroa egiten zaiena. Ahoskeragatik etiketatu egiten gaituztela. Uste dute eurek ez dutela azenturik gaztelaniaz! Ez gutxi! Nahiko nituzke kanpoan ikusi ea zer esaten dieten!

Hortik datoz Kalakan talderen ganean telebista lokal batean botatakoak. Nola liteke euskaldun basa horiek Pop-aren Erreginarekin jotzea? Euskarazko kantu bat! Euskarak behiekin berba egiteko baino ez du balio-eta! Txalaparta? Tresna primitiboagorik ba ote dago?!

Euren buru txiki horietan besterik ez dute ikusten, perspektiba hertsia eta murrizta dutelako, mundua euren betaurrekoekin baino ezin delako ikusi eta euren baino ez delako *comme il faut*, behar den modukoa, moderno, aktual eta *cool*-ak! Grrr, Zelako higuina ematen didaten, aurreiritziz betetako ustezko intelektual horiek!

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola  
**Zuzendari nagusia** Inazio Aregi

**Asteburuko edizio arduraduna**  
Julen Iriando  
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano  
**Publizitate** Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundifano, Ziortza Martin,  
Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER**  
ARRASATE 20500:  
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**  
ARETXABALETA 20550:  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Legu Gordailua:** SS-0088/04  
**ISSN:** 2173-707X  
**Tirada:** 5.000 ale  
**Difusioa:** 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

### ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

### LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behea  
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

### TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FARMAZIA

### AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL

Oñati / Kale zaharra, 1 / 943 78 01 22

amaiaigartua1@gmail.com

## HOMEOPATIA

### AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

### ERDIKU KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

### GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

### GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

## UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Peio Telleria** | EAko zinegotzia Oñatin (1987-1991)

- ▶ Oñatiko EAren sortzaileetako bat eta alderdiko presidente izan da Peio Telleria
- ▶ Turismo arloko batzordeburua eta EAko bozeramailea izan zen
- ▶ Bere agintaldian inauguratu zuten lehen turismo bulegoa, plazako arkupeetan

## "Ur Jauzien proiektuan eta turismoaren alde egitean asmatu genuela erakutsi du denborak"

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Turismo arloko batzordeburua izan zen Peio Telleria 1987-1990 agintaldian, EA alderdi berriaren lehen udal jardunean. Hurrengo agintaldia ere zinegotzi hasi zuen, baina hilabete gutxitara utzi zuen, arrazoi profesionalengatik. Oñatiko EAko sortzaileetako bat izan da, baita hango presidente ere.

### Zelan iritsi zinen politikara?

Beti gustatu izan zait eta jarraitu dut politika. EAJ alderdian exsizioa izan zenean, EAn sartzea erabaki nuen, huraxe zen-eta gehien konbentzitzen ninduen alderdia. Oñatiko EA sortzen egin nuen gero lana eta handik udalera egin nuen gero salto.

### Nola gogoratzen dituzu urte horiek?

Oroitzapen onak ditut. Mila botatik gora jaso genituen eta ilusio handiarekin sartu ginen udalera. Elias Goñi zen alderdiko bozeramailea baina sartu eta hilabete gutxira dimititu egin zuen, eta neuk hartu nuen gero bozeramaile izateko ardura hori.

### Ze harreman zenituen gainerako zinegotziekin?

Eli Galdos zen orduko alkatea eta harreman ona izan nuen harekin. EAJk ez zuen gehiengoa eta gure beharra zuen proiektuak aurrera ateratzeko.

### Agintaldi lasaia izan zela aitortu didazu elkarrizketa hasi aurretik.

Bai. Izan genituen tirabirak ere, baina legealdi lasaia izan zela iruditzen zait, bai.

### Zerk edo nork sotu zituen tirabira horiek?

Zinegotzi egon nintzen agintaldian zabaldu genuen lehen turismo bulegoa eta Ur Jauziak proiektua ere garai hartan jarri genuen



Peio Telleria Oñatiko udaletxeko sarrera nagusiaren aurrean. | O.E.

martxan. Gertutik jarraitu nituen biak, turismoko batzordeburu nintzen aldetik eta Ur Jauzien administrazio kontseiluko idazkari nintzen aldetik. Proiektu bi

horiek ez ziren denen gustukoak izan, eta oposizioarekin tirabirak izan genituen. Gogoan dut, turismoa bultzatzeko genuen proiektu horren kontrako pintadak ere

egin zituztela herriko kaleetan garai hartan.

Bestalde, Eli Galdos ez zen mozio politikoak osoko bilkuretan sartzearen oso aldekoa, bai-



Plazan zabaldu zuten lehen turismo bulegoa | KONTZEJUPETIK

**"Oñati ezagutzeko lehen gidak, ibilbideak, atera genituen orduan"**

**"Gaztelekuaren hastapenak lantzen hasi ginen sasoi hartan"**

na sartzen ziren horrelako mozioak ere, eta hainbatetan sesioak egon ziren.

### Egungo Gaztelekuaren hastapenak ere gogoan dituzu.

Bai. Ordurako gaztetxea itxita zegoen eta haren alternatiba bilatzea izan zen orduko beste erronka bat. Batetik, gaztetxe berri baten alde egiten zutenak zeuden eta bestetik, gazteen topaleku bat bai baina nolabaiteko zaintza, jarraipena, izango zuen proiektu baten alde zeudenak geunden. Horren inguruan ere eztabaida asko izan genituen. Gaztelekua bera beranduago etorri zen, baina hastapenak 1987-1990 agintaldikoak dir.

### Sasoi hartako ze proiektu dituzu gogoko eta zeintzuk ez?

Turismoaren aldeko apustua egin genuen, lehen turismo bulegoa ere orduan zabaldu genuen eta uste dut ondo egin genuela. Oñati ezagutzeko zazpi bat gida, ibilbide, ere orduan atera genituen. Bestalde, Ur Jauzien proiektuak ere aberastasuna ekarri duela uste dut. Denborak erakutsi du horretan ere asmatu genuela.

### Desengainurik izan zenuen?

Ez. Banekin non eta zertarako sartzen nintzen eta ez nuen desengainurik izan.

### Nola bizi duzu egun politika? Ze jarraipen egiten diozu udal jardunari eta politika orokorrari?

Udaleko jarduna utzi ostean ere jarraitu nuen alderdi barruan lanean denbora batez, baina guztiok ikusi dugun moduan bukatu zen hura, eta neure ibilbidea ere hantxe amaitu zen. Gaur egun herritar soil gisa jarraitzen ditut politika kontuak, bai tokikoak bai orokorrak.

1.000  
modelotik gora

mó  
graduatuak  
kristalak barne

57€

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan

# HERRIAK

ELGETA

## Udazken bizi-bizia iragarri dute Elgetan; ez da zer egin faltako

Eskaintza gastronomikoa, lehiaketa eta irteera berriekin lotu dute herritarrek zein bisitariek udazkenaz gozatzeko aukera izan dezaten

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udazkeneko agenda beteta dator Elgetan; urteroko hitzorduez gain lehiaketa berriak, irteerak, hitzaldiak, eta musika iragarri dituzte bultzatzaileek. Ekitaldi sortari *Udazken koloreak* izena ipini diote. Hor ba ekimen berria!

Turismo zinegotzia den Patxi Basaurik dihardu agenda antolatzen, eta egitasmoa koordinatzen. Helburu nagusia herrian mugimendua sortzea dela dio. "Sagardo eguna finkatuta dago, eta Pintxo lehiaketak iaz kanpoko jende ugari ekarri zuen. Asmoa da ildo beretik jarraitzea, eta udazkeneko aste bukaeratarako proposamen ezberdinak egitea. Hala, Elgetan ia aste bukaera oro egongo da zer ikusi udazken honetan", adierazi du.

### Eskaintza gastronomikoa

*Udazken koloreak* ekimenean pisu handia izango dute herriko taberna eta landetxeek, izan ere funtsezkoak izango dira eskaintza gastronomikoan. Urrian egingo diren jardunaldi mikologikoean, esaterako, perretxiko pintxoak eskainiko dituzte, eta ez dute azaroaren 11n egingo den Pintxo lehiaketan hutsik egingo. Lehiaketaren hurrengo bi aste bukaeretan, gainera, prezio berezian eskainiko dituzte saritutako pintxoak, eta publikoaren pintxo onenaren saria ere izendatuko dute.

### Nobedade ugari

Vespa eta Lambretta eguna -urriak 16-, baserriarren azoka eta Sagardo eguna -urriak 22-, perretxiko erakusketa -urriak 20- edo Pintxo lehiaketa -azaroak 11- ez dira hitzordu berriak Elgetan. Aurten, ordea,



Perretxiko erakusketa Elgetan. | L.Z.

Txorimalo lehiaketa egingo da lehenengoz -urriak 22-, Elgetako basoetan aurki daitezkeen perretxikoen inguruko hitzaldia egingo dute urriaren 18, eta Mugarri eguna ospatuko dute azaroaren 18an, hori ere lehenengo aldiz.

*Elgeta ezagutzen* izenburupean, berriz, hilean irteera bat egingo dute, eta musikari protagonismoa eman guran kanturako deialdia egingo dute azaroan. Patxi Basaurik beste konpromiso bat ere hartu du: "Oso gurea da, eta gramolia ere martxan izango dugu udazken honetan Elgetan".

### Baserriak argazkitan

Hilaren 22an, zapatua, inauguratuko dute herriko baserriak oinarri dituen argazki erakusketa. Nerea Villaren argazkiak dira, eta baserriarren azokarekin batera Herriko plazan egongo dira ikusgai. Ondoren, eta azoka antolatuta, Elgetako tabernetan egongo dira ikusgai urriaren 30era arte.

### 'Elgeta ezagutzen' irteera sorta

*Udazken koloreak* ekimenaren barruan hilean irteera bat egingo dute Elgetan. Irailaren 23an Egoarbitza aldera egingo dute txangoa, besteak beste, bertan dauden bi sekuoi erraldoi eta agina zuhaitzak ezagutzera.

Urrirako, irteera mikologikoa antolatuko dute non Elgetako basoetan aurki daitezkeen perretxikoak erakutsiko dituzten.

Azarorako, berriz, Mugarri eguna iragarri du Udalak. Berriki egin dute herriko mugarren inbentarioa, eta asmoa da horien kokapena ezagutzeko bi irteera egitea; bata haurrendako, eta bestea helduendako. Irteera honetan mugarren kokapena erakustez gain egoera eta historia ere azalduko dituzte.

Abenduan, azkenik, *Gure herriko karobiak ezagutzen* izeneko irteera egingo dute. Hala, Miraballes eta Antzuategiko karobien kokapena eta historia zabaltzeko egingo dute irteera.

### BEHIN BEHINEKO EGITARAUA

#### IRAILA

##### 16, domeka

► Vespa-Lambretta eguna.

##### 22, zapatua

► Baserriarren azoka.

► Txorimalo lehiaketa.

► Argazki erakusketa.

► Sagardo eguna. (Gaztetxea)

##### 23, domeka

► Irteera Egoarbitzara.

#### URRIA

##### 7, domeka

► Lore eskaintza Asentzión.

##### 18-21 aste bukaera

► Jardunaldi mikologikoak.

#### AZAROA

##### 11, domeka

► Pintxo lehiaketa.

##### 18, domeka

► Mugarri eguna.

#### ABENDUA

##### 9, domeka

► Irteera karobietara.

Gemes  
estetika

Ilargi plaza 2 / Tel.: 943 79 99 18  
ARETXABALETA



Zure irudi-aholkulariak

LEINTZ-GATZAGA

# Festarako gogoia eta otxandioarrak egin dira jaien nagusi aurten

- ▶ Herri giroak bermatu ditu jaiak aurten ere adin guztietarako egitarauarekin
- ▶ Herri bazkaria izan da ekitaldi nagusia, otxandioarrak gonbidatu berezi bezala zituztela

JON BEREZIBAR | LEINTZ-GATZAGA

Gatzagako Andramarietok eman dute eman beharrekoa aurten-goari dagokionez. Aitzakia gutxi-ko jaiak izan dira aurten ere baina protagonistak aukeratzerakoan, herrikoen bertakoen baimenarekin, aurten gonbidatuak izan dira: otxandioarrak. Aspaldikoa da otxandioarrek Dorletako Amari dioten jaiera berezia baina aurten egun handia zapatua izan denez, tropa ederra animatu da handik, bai Dorletako elizkizunera eta baita herrira bertara ere. Hain zuzen, aurten herri bazkaria antolatu dute afaria barik, otxandioarrak zetoze-la-eta. Eta giroa sekulakoa izan zen herri bazkarian berrehundik gora bazkaltiarren artean banatutako 80 kilotik gora saiheski eta txuleta ere ederrekin, hamar euroan menua. Etxetik berea ekarri zuenik ere egon zen, halere. Usaina eta baita parrillak jasotako kea herri guztian zehar zabaldu zuten sukaldari presuetek.

## Musika eta herri giroa nagusi

Jai apalak dira Gatzagakoak eta herri giroak ematen die benetako bizia. Hala, barikuan herriko txikienena izan zen arratsaldea eta nagusitxoagoena gaua, rock kontzertuekin. Zapatuan bazkari-az gain, arratsaldean futbolinean elkar *pikatze*ko aukera izan zuten gatzagarrek baina kompetizio handia ilunkaran etorri zen bolo txapelketarekin, herrian daukaten bolatoki aski ederrean. Azkenik, domekarako indarrak gorde zituztenek pilota txapelketan erakustaldi primerakoa izan zuten. Amaitu baina, atzo, musikarekin amaitu zituzten ospakizunak gatzagarrek. Horretaz Burrunda Kelele batuka taldea arduratu zen.



Jaien hasierako txupinazoa, barikuan. | MIREIA BIKUÑA



Dorletako Amaren eguneko elizkizuna. | JON BEREZIBAR



Txuleta eta saiheskiak erretzeko parrila frontoi alboan ipini zuten. | JON BEREZIBAR



Futbolin txapelketa egin zuten zapatu arratsaldean. | JON BEREZIBAR



**BENEDIKTO**  
LEINTZ-GATZAGA

"Otxandioar asko etorri da aurten. Gu gazteak ginela ere joaten ginen hara baina haiek honako besteko zaletasunik ez dugu izan. Lehen jai handia egiten zen Dorletan erromeria eta guzti".



**LUIS ETA EGOITZ**  
OTXANDIO

"Zazpi urtean behin tokatzen da Dorletako eguna zapatuz eta aurten aspaldiko partez animatu egin gara. Herri bazkaria geratuko gara ze Otxandioko errepresentazio handia etorri da".



**MARIO ETA RAMON**  
OTXANDIO

"Mutiko ginenetik etorri izan gara. Aurten 60 bat lagun etorri gara menditik txanda ezberdinetakoak. Gu zortzietan atera gara Otxandiotik eta ordu pare baten iritsi gara Dorletara".



**LOLI ETA JOXE**  
BEASAIN

"Izatez gu bertakoak gara baina Beasainen bizi garenez ez dugu Dorletako Amaren egunean huts egiten. Gure familiak gatz fabrikan egiten zuen lan eta lotura estua dugu herriarekin. Mezatara etorri eta bazkaria egiten dugu lagunekin".



aldeak bariku gauz jo zuen. | JOSETXO ARANTZABAL



Otxandioar gazte kuadrilla, zapatu goizean, Dorletan. | JON BEREZIBAR



JOSETXO ARANTZABAL



zkarian 200 bat lagun elkartu ziren. | JON BEREZIBAR



OÑATI ETA ARETXABALETA

JOSETXO ARANTZABAL

## Mauka itzela, merkatu txikian

Uda sasoiko azken errematea egin eta biltegietan geratutakoak ateratzeko aukeren merkatu txikiak egin dituzte asteburuan Oñatin eta Aretxabaletan. Salmenta aldetik kaskar samarra izan den denboraldiari amaiera eman gura izan diote horrela, generoa kalera aterata.

# MBA executive

## Enpresen Zuzendaritzako Masterra 2012/2013

Otalorako **MBA Executive** garapen profesional eta pertsonalari beste bultzada bat eman nahi dioten zuzendariak bereziki zuzendutako programa da.

Programak, bere diseinuari esker, uztartu egiten ditu erakundearen funtzioen ikuspegi estrategiko eta integratzailea eta enpresa proiektua bideratzeko behar diren trebetasunen garapena.

Otalorako **MBA Executive**ren edukiak modu honetan multzokutzen dira:

- ERAKUNDEAREN FUNTZIO OROKORRAK  
Modu integratzean eta elkarren arteko elkarreragina aztertuz.
- ZUZENDARITZA TREBETASUNEN GARAPENA
- MASTER AMAIERAKO PROIEKTUA



### Informazioa eta izen-ematea

#### ONARPENERAKO BALDINTZAK:

- Unibertsitateko titulazioa
- Gutxienez 5 urteko esperientzia profesionala

#### INFORMAZIO OSAGARRIA ESKATZEKO ETA ESKAERAK BIDALTZEKO

Marian Urizarren  
OTALORA  
Aozaratza auzoa 2 - 20550 Aretxabaleta  
Tel.: 943 71 23 30  
[murizarren@mondragoncorporation.com](mailto:murizarren@mondragoncorporation.com)

### Egutegia

#### HASIERA

2012ko urriaren 19an

#### ESKOLALDIAREN AMAIERA

2013ko uztailaren 6an

#### AMAIERAKO PROIEKTUAREN AURKEZPENA

2013ko azaroa

#### ORDUTEGIA

Ostiralean: 09:00etatik 18:00etara  
Larunbatean: 09:00etatik 13:00etara

#### ESKOLA LEKUA

OTALORA  
Aozaratza auzoa 2  
20550 Aretxabaleta  
Tel.: 943 71 23 30



Jende ugari ibili zen Biteriko makro pintxo-potean, eguerdiko argazkiak erakusten duen moduan. | JULEN IRIONDO

## ARRASATE

# Tabernak plazara eta jendea eurekin makro pintxo-potean

- ▶ Herritar askorekin ospatu dute hirugarren urtemuga
- ▶ Eskerrak eman nahi izan dituzte horrela tabernariak

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Eskerrak herritarrei, pintxo-potea martxan jarri zenetik pasatu diren hiru urte hauetan ekimenari emandako erantzunagatik. Eta eskertzeko ze modu hobea, pintxo-pote erraldoia egitea baino? Eta benetan izan zen handia domekako.

Barra eta sukalde Biteri plazara atera zituzten Hilarion, Hotel Mondragon, Lorategi, Dublin, Zuk Nahi, Ostantz eta Monte tabernak eta ohiko ardo, garagardo eta cavaz gain, bestelako ardoak, sagardoa eta freskagarriak ere banatu zituzten, euroaren

truke eta pintxoarekin batera; atuna, solomoa, eta txorizoa, besteak beste, aukeran.

### Bertsok eta musika

Eguerdiko aldean izugarritzko jende pila batu zen plazan, bertan jarritako musika eta Xabi Igoa bertsolari aramaioarraren bertsok ere lagun. "Egin duen giroarekin ardo zuria asko edan da", zioen Monteko Juan Carlos Davilak.

Kalean giroa sortzea, tabernetan mugimendua areagotzea... hasi zirenean jarritako helburuak betetzen ari direla-eta, pozik age-

ri zen Davila domekako ospakizunean, aurrera jarraitzekotan.

Eta herritarrek ere gustura, "domekak nahikoa zozoak izaten dira bestela", eta ez bakarrik atzokoarekin, baita urtean zeharreko ekimenarekin ere. Gustura baina aldarrikapen berriekin: "Eguenetakoa ondo dago, baina eguenetan posible bada agian jaitzi daitezke prezioak apur bat beste egunetan ere", zioen batek.

Bazkalorduan jende kopuruak behera egin ostean, arratsaldean gerturatu zen gehiago, umeendako puzgarrien aitzakian.



OÑATI

JOSETXO ARANTZABAL

## Jendetza Atzeko kaleko jaietan

Egubakoitzeko kontzertuko argazkiak erakusten duen moduan –Materia Gris, Sorotan Bele (bertsioak) eta Los Delgas–, jende ugari ibili da asteburuan Oñatin festan, bai gauzez, baina baita txorimalotan, mariachietan... Txirrindularitza proban ere neska mutiko ugari batu ziren: "Urteik urtera gehiago dira", antolatzaileen esanetan.



BERGARA

JULEN IRIONDO

## Meloiak ere bai San Juanen

Auzoko baserrietako produktuekin azokatxo egin zuten domekan San Juanen, eta ohikoez gain meloiak eta sandiak ere ikus zitezkeen. "Orturako ez da uda ona izan hau, egin duen beroagatik; meloiei, ordea, mesede egin die eta bai, hauek bertakoak dira", zioen Jesus Agirre azoka antolatu duen auzo-elkarteko kideak.



ARETXABAETA

JULEN ABASOLO

## Mendiola nagusi Areantzán

Areantzako jaien egitarauaren barruan, futbol partida jokatu zuten Mendiolaen kontra. Jokalari ugari –12 eta 50 urte artekoak–, eta ikusleak ere bai. Giro aparta eta garaipena Mendiolaentzat –1 eta 4–, "duela 60 urte bezala", Julen Abasolo areantzarraren arabera. Kurtzebarri egunean ere batera izan ziren domekan.



LEIRE ETXEBARRIA  
ARRASATE

"Oso ideia ona izan da hau antolatzea, giroa jartzen du herrian. Ni eguenetan ere ateratzen naiz udan, ekainetik irailera-edo, neguan ez. la jaietan baino giro gehiago egoten da eguenetan, tabernak topera egoten dira".



E. MURUAMENDIARAZ  
ARRASATE

"Ibilaldi bat egin dut eta oraintxe etorri naiz, egarriz, tragoa hartzera. Urtean zehar ere ateratzen gara noizean behin eguenetan; gainera Arrasaten sortu zen, ez? Beste gauza batean ere aitzindari beraz".



JUAN CARLOS DAVILA  
MONTE TABERNA

"Oso pozik gaude gaurkoarekin eta, oro har, pintxo-potearekin. Beste urtebete jarraituko dugu behintzat. Krisia amaitzean jarraituko dugun? Lehenengo amaitu dadila eta gero ikusiko dugu zer egin".

# Herri Eskola gaur eta Arizmendi bihar, hastera doa ikasturte berria

Eskolan 740 ikasle eta ikastolan 3.200, gune guztiak aintzat hartuta

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ikasle kopuruan aldaketa nabarmenik gabe ekingo diote ikasturte berriari Arrasate Herri Eskolak eta Arizmendik. Eskolan 740 bat ikasle hasiko dira, gaur. Ikastolan, berriz, 3.200 ikasle dira guztira, Arizmendik dituen gune guztiak kontuan hartuta. Kopuru altua, baina azken urteetako joerari eutsita. Hori bai, Txaro Iraeta Arizmendiko zuzendariak naba-

mentu du 0 eta 3 urte arteko haurretan matrikulazioek gora egin dutela: "Gero eta bikote gehiagok erabakitzen dute adin horretan seme-alabak eskolatzea, lehenengo ohiturekin konparatuz".

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak bihar hasiko dira. Batxilergoan eta Lanbide Heziketako ikasleek hilaren 7an izan zuten aurkezpena.

**Uda, obretarako denboraldia**

Herri Eskolan Erguingo eskolaren obrak direla-eta oso pozik dago Josune Etxabe zuzendaria: "Iaz amaitu zituzten obrak: sei gela berri, gimnasio bat eta aterpe eder bat. Udan zehar jangela ere egokitu da. Oso pozik gaude baina argi dugu lanean jarraituko dugula instalakuntzak hobetzen jarraitzeko". Arizmendin ere izan dira egokitzapen

lanak, Iraetak azaldu duenez. Santa Teresan egin dituzte lanak eta horrez gain, Gazteluondo, Arimazubi, Santa Teresa eta Almen guneak ere egokitu dituzte: "Heldu da duela bi edo hiru urte martxan jarritako proiektua aplikatzeko ordua. Lan metodologia berria jarri gura dugu indarrean eta horretarako lau gune horiek Lehen Hezkuntzara egokitu behar izan ditugu".



Jesus Mari Plazaola. | Z.V.D.M.

**Jesus Mari Plazaola**  
Artzaina

## "Belaunaldiak aldatu diren moduan, lanbidea bera ere aldatu da"

Z.V.D.M. | ARRASATE

Gure txakurra lagun, Legazpin egindako Gipuzkoako XLIV. Artzain Txakur Lehiaketako txapela jantzi berri du arrasatearrak.

**Asko aldatu dira gauzak hasi zinenetik?**

Guztira 41 urte daramatzat eta belaunaldiak aldatu diren moduan, lanbidea bera aldatu da. Esaterako, lehen txistuka komunikatzen ginen txakurrarekin; orain gehienek aginduak ematen dituzte. Lehen txikitatik murgiltzen zinen artzaintzaren munduan, eta orain ikasketak egiten dira...

**Irailean ere lehiatuko zara.**

Gipuzkoako lehiaketa irabazi dudanez, Euskal Herrikora joango naiz. Erronka handiena Oñatiko Nazioarteko Lehiaketa izango da, inoiz ez dudalako irabazi, eta arantza hori kendu nahi dut.

## Udan "jende asko" izan delako pozik, ikasturte berria aurkeztu du Aukeak

J.B. | ARRASATE

Aukeako presidente Joxerra Askasibar pozik dago aurtengo udako zerbitzuek izan duten harrerarekin: "Balorazio oso baikorra egiten dugu, batez ere jende asko etorri delako". Bi arrazoi nagusi aipatu zituen egubakoitzeko prentsaurrekoan: batetik, aurtengo udan eguraldiak asko lagundu duela eta, bestetik, igerilekuan Aukeak egin dituen hobekuntzak. Hobekuntza horien artean aipatu zuen, adibidez, berdeguneak handitu izana.

Era berean, iaz hasitako inkestekin jarraitzeko asmoa agertu dute: "Garrantzitsua eta beha-

rezkoa iruditzen zaigu erabilitzaileei hitza ematea, gogobetetasun maila ezagutzeko". Data zehatzik ez, baina irailean bertan irekiko dute inkestak betetzeko hilabeteko epea.

**Gimnasio eta eskaintza berria**

Horrez gain, gimnasio eremu berria aurkeztu zuten eta baita 2012-2013 ikasturterako eskaintza ere. Aurtun, kirol elkarteetan ez dauden gazteak kiroldegira ekartzeko da erronka garrantzitsuetako bat, Amaia Zabaleta teknikariak azaldu duenez: "Horretarako aerobik gazte eta spinning gazte ekintzak antolatu ditugu". Eskain-



Amaia Zabaleta eta Joxerra Askasibar gimnasio berrian. | JOKIN BEREZIARTUA

tzaren gaineko informazio guztia [www.arrasatekirola.com](http://www.arrasatekirola.com) webgunean eskegi dute eta, bestela, kiroldegira bertara jotzea da bide egokiena. Izan ere, hilaren 13ra

arte ate irekiak dituzte kiroldegian. Azkenik, udako kanpaina hilaren 16an amaituko da eta beraz, irailaren 17an irekiko dituzte barruko igerilekuak.



JESUS MARI APRITZ

## Kroazia aldean ederto: "Dena da polita"

Abuztuaren 27tik irailaren 3ra Arrasateko 53 lagunek bidaia egin zuten Kroazia aldera. Istra, Zagreb, Zadar, Split eta Dubrovnik moduko hiriak bisitatu zituzten baina ezin leku bat nabarmendu: "Dena da polita". Giro ederrean joan zen bidai guztia, ezustekorik gabe. Aurtengoa hirugarren aldia izan da: iaz Parisen egon ziren eta duela bi urte, aldiz, Portugalen. Kroazia oraindik ahaztu barik, hasi dira datorren urterako bidaia pentsatzen: "Herbehereak aukera bat izan daiteke, baina ikusiko da".

## Mus txapelketa hilaren 16an, Uribarriko erretiratuen etxean

Erguingo erretiratuen etxean mus txapelketa egingo dute domekan, hilak 16 (16:30). Ainhoa eta Alazne Ortiz ahizpek antolatu dute eta bikote bakoitzak 40 euro ordaindu beharko du. Aurrez izena eman daiteke 943 77 18 30 telefonora deituta. Irabazleek 1.000 euroko saria jasoko dute.

## 1972an jaiotakoek ospakizuna egingo dute hilaren 29an

1972. urtean jaiotako eta San Frantzisko Xabier ikastolan ikasle izandakoek afaria egingo dute datorren irailaren 29an. Jakinarazi dutenez, izena emateko epea hilaren 23an amaituko da. Erdiko Kaleko Arrasate tabernan eman beharko da izena, hamar euroko fidantza jarrita.



- Gitarra, piano eta baxu eskolak.
- Irakasteko hainbat metodo aukeran: solfeo, tablatura, zifratu amerikarra eta esperimentalak.
- Adin guztietarako.

Alfontso X Jakintsua 7 (Grupo San Juan) ARRASATE.  
Tel.: 627 13 26 14 • [olatzurkia@gmail.com](mailto:olatzurkia@gmail.com)

Ima Ruiz Oyaca | Kapikua dendako jabea eta Ibai-Arteko kidea

## "Denda ezagutzera emateko aukera ona da Merkemerkaia"

Merkemerkaia zortzigarren edizioa izango da zapatukoa eta hogeita hamalau komertzio irtengo dira kalera; tartean, Kapikua opari denda

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Kapikuan egon direnek ezagun izango dute Imaren aurpegia; Marta ahizparekin batera dendako jabea da. Ibai-Arteko kideak dira, gainera, eta zapatu honetan, irailak 15, Arrasateko kaleetan egingo den Merkemerkaian aurkituko ditugu.

**Kapikuak ere parte hartuko du zapatuko azokan.**

Bai. Urte batean izan ezik, beti egon gara Merkemerkaian. Aukera ona izaten da herritarrekin hartu-emanen ipini eta gure denda ezagutzera emateko. Askotan, gurea moduko saltokiak aurkitu egin behar dira, eta erakusleia da Merkemerkaia guretzako. Gogotsu joaten gara. **Opari eta osagarrien denda da Kapikua. Zer eramango duzue Merkemerkaia?**

Ez dugu denetarik eramaten, momentu horretan dendan ditugun eskaintza bereziak izaten dira, normalean. Hau da, gure xedea biltegian ezertxo ere ez edukitzea da, eta, ondorioz, aurretik hasten gara eskaintzekin eta ondoren kalera irteten gara, Merkemerkaia.

**Aukera bikaina dendarientzat, baina baita erosleentzako ere, ezta?** Zalantza barik. Dendari izateaz aparte, kontsumitzailea ere banaienez gero, Merkemerkaian denboraldiko erosketak ona egin dudana sententzia edukitu nahi izaten dut. Baina udaberri-udako azoka hau berandu egiten da, eta oportunitate itzuli eta berehala izan behar luke hitzorduak, nire iritziz.

**Zergatik berandu egiten?**

Neguko arropa edozein momentuan erosteko prest egoten gare-lako, baina udakoa, aldiz, ez. Adibide bat ipintzearen, ez zai-



San Andres auzoan dago Kapikua denda. | Z.V.D.M.

### "Aita-amen garaietara itzuli beharko genuke kontsumitzerakoan"

gu neguko zapata batzuk erostea axola uztaila bada ere, baina sandaliak, esaterako, ez dituzu orain erosteko, ziurrenik. Oro har, udazken eta neguko ikuspegia dugu urte osoan.

**Zer iruditzen zaizkizu herritarren kontsumo moduak?**

Aspaldi hasi zen kanpora erostera joateko ohitura. Uste dut gure aita-amen garaietara itzuli beharko genukeela kontsumitzerako orduan. Hau da, aurrena auzokoaren dendan zer dagoen begiratu, gero herriko beste denda batean, eta ez badugu bilatzen

duguna aurkitzen, orduan joan beharko genuke kanpora erosketak egitera.

Niri ere gustatzen zait arratsalde batean merkataritza-gune handi batera joan, eta erosketak egiteko aprobetxatzea. Oso eroso da, ez dut ukatzen, baina lehenengo aukera moduan beti horrela jokatzea... Ez baditugu ohiturak aldatzen, poliki-poliki pikutara joan litezke gauzak.

Amaitzeko, erosleei esango nieke Arrasateko dendetan beldurrik gabe sartzeko, saltsan ibili eta zer dagoen ikusteko. Gero, bakoitzak erabaki dezala non erosi nahi duen. Askotan, beldur izaten gara urte luzetan komertzio batean sartu ez eta gutaz zer pentsatuko duten pentsatzean. Argi daukat nik bezero mota ezberdinak ditudala: ohikoak, beheraldietakoak, azken eskaintzakoak... Baina denak dira bezero.

## Goikobalu Gazteak eta Txikik aste honetan hasiko dute ikasturtea

Gazteek 2012ko Turingo Europa Cantat-en parte hartu dute, eta gustura etorri dira

Z.V.D.M. | ARRASATE

Aurreko martitzenean, hilak 4, hasi zituzten Goikobaluko helduek entseguak, eta aste honetan izango da gaztetxo txanda. Nagusien helburuak zehaztuta dituzte dagoeneko, nahiz eta hainbat zertzelada falta zaizkien. Hori bai, probetxuzkoa izango dela adierazi dio GOIENARI Iñaki Maidaganek, Goikobaluko zuzendariak.

Besteak beste, 2009an Aurizberrin hasitako proiektuari jarraipena emango diote; alegia, Santiago bidea kantuz egitea. Hainbat herritan abestuta, bi etapa besterik ez zaie falta bidea amaitzeko "Horiatariko bat, behintzat egin gurako genuke, Lugo aldekoa".

**Gazte eta txikien txanda**

Goikobaluko gazteak, osteraren 12an, eguaztena, hasiko dute ikasturtea, eta Goikobalu Txikiko lagunek, aldiz, egun bat geroago. Ikasturteko asmoak begira, ekimen hau azpimarratu du Maidaganek: "Goikoba-

luko Gazteak Nafarroa aldera joango dira 500. urteurrena dela eta, kontzertua eskaintzeko". Data zehazteke dute oraindik.

Bestetik, abesbatzako gazte taldeak udan Turingo Europa Cantat-en parte hartu zuen. Horren harira, esperientzia positiboa eta aldi berean gogorra izan zela ere gaineratu du Goikobaluko zuzendariak, lan egiteko moduagatik, besteak beste. Hala ere, errepikatze asmoz daude: "Asko ikasi dute, eta harremanak egin dituzte beste herrialde batzuetako jendearekin".

Amaitzeko, abestea gustatu eta abesbatzan parte hartu gura dutenentzako oharra: "Urte osoan atea irekita ditugu, baina urte hasieran etortzen badira guregana, hobeto". Zerrajerako erlojuaren erakinean elkartzeko dira helduak martitzenetan (21:00-22:30) eta eguenetan (20:00-22:00); gazteak eguaztenetan (19:00-20:30); eta txikiak eguenetan (18:00-19:00).

### Anbulatorko joateko herri autobusaren 1 lineako goizeko zerbitzuan aldaketak iragarri ditu Udalak

Irailaren 5a ezkerreko aldaketa egon da Arrasateko herri autobusaren ibilbidean; izan ere, 1 lineak ibilbide berria egingo du aurrerantzean, San Isidro alboko Axerikua zubia bota eta berria eraikitzeke martxan dauden lanen eraginez. Modu horretan, eta obrak amaitu arte, Eroskitik ambulatorko joateko, aurrena Eroskitik Musakolarako bidea egingo du autobusak, eta handik bere helmugarantz abiatuko da, ospitale ingururantz, hain zuzen ere. Udaletik adierazi dutenez, aldaketek goizeko autobusari eragingo diote, hasiera baten, eta Musakolan 08:05 inguruan agertuko da. 2011. urtean 500 lagunek erabili zuten egunero herriko auzoetara erraz iristea ahalbidetzen duen autobus zerbitzua.

**LETICIA DOMENECH PEREZ DOKTOREA**

**Psikologia kliniko hezitzailea**

Palacio Mendia zentro medikoa  
Erdiko kalea 22 • Arrasate  
Tel.: 943 79 72 16

- Gurasoentzako programa hezitzaileak
- Ikasketen planifikazioa
- Hiperaktibitatea / Arreta defizita
- Jarrera aldakuntza
- Dislexia
- Ez-hitzezko ikasketen gorabeherak
- Autismoa
- Asperger sindromea
- Estutasuna - agresibitatea
- Haurren beldurak
- Nerabezaroa eta depresioa
- Eskola-jazarpena...

## Egoitza berria inauguratuko du PSE-EEk

Alderdi sozialistak egubakoitzean, irailak 14, inauguratuko du egoitza berria Martxoaren 8 kalean, Arrasaten. Ekitaldia 18:30ean hasiko da, eta, besteak beste, Patxi Lopez lehendakaria eta Iñaki Arriola PSE-EEko Gipuzkoako idazkari nagusia egongo dira. Elma taberna-jatetxea eta Marcos Vitoria alderdikidearen izena daraman bulegoa egokitu dituzte. Bulego berrian eman ahal izango da urriaren 21eko hauteskundeetako posta bidezko botoa.



JOKIN BEREZIARTUA



# Labegaraietako tabernak jabe berria izango du eta Agorrosingoa etzi itxiko da

Agorrosingo kirolgunea, bestetik, itxita egongo da irailaren 13tik 27ra bitartean, garbiketa lanak egiteko

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Labegaraietako kiroldegiko eta Agorrosingo kirolguneko tabernetan aldaketak izango dira ikasturte berrian, biek ere jabe berriak izango dituzte-eta.

## Agirrebeñakoek Labegaraieta

Labegaraietako kiroldegiaren kasuan, Agirrebeña jatetxeko jabe Nagore Merinok izango du aurrerantzean instalazioak eta taberna kudeatzeko ardura. Kiroldegia bera zabalik dago dagoeneko, baina, Udaleko Kirol Zerbitzuek emandako informazioaren arabera, tabernak bi aste barru irekiko ditu ateak. Jabe berria egokitzapen lanak egiten dabil. Taberna zabaldu ostean hau izango da ordutegia: astegunetan 16:00etatik 23:15era, asteburuetan 08:00etatik 21:30era eta opor garaian (uda, Aste Santua eta Gabonak) 09:00etatik 14:00etara.

## Agorrosin, jabe barik

Agorrosin kirolguneko tabernak, berriz, irailaren 12ak itxiko ditu ateak, baina, oraingo, ezinezkoa da jakitea noiz irekiko dituen ateak berriro ere. Udalak tabernaren kudeaketa lehiaketara atera ostean eta adjudikatu ostean, azken momentua adjudikaziodunek atzera egin zuten. Beraz, irailaren 12tik aurrera



Labegaraietako tabernan egokitzapenak egiten ari dira. | OIHANA ELORTZA

itxita egongo da eta, oraingo, ez dakite noiz arte jarraituko duen horrela. Udalak plegua aterako du berriro ere eta asmoa da ahalik eta azkarren topatzea kudeatzaile berria.

## Agorrosin itxita 13tik 27ra

Agorrosingo kirolgunea, bestetik, itxita egongo da irailaren 13tik 27ra urteko bigarren garbiketa egiteko. Dena dela, harrerako

zerbitzua zabalik egongo da 11:00etatik 18:00etara informazioa jaso eta tramite administratiboak egin ahal izateko.

## Labegaraietako kantxak

Bestetik, dagoeneko zabalik daude ikasturte berrian Labegaraieta barruko kantxa eta tenis kantxa hilabetero alokatzeko. Irailaren 14a, egubakoitza, izango da horretarako azkenengo eguna.



Eli Dominguez, Biko tabernan | ARRITXU BARRUSO

Eli Dominguez | Ndank Ndank elkarteko kidea

## "Ndank Ndank filosofiaz hasi ginen arren, guztia uste baino azkarrago doa"

Senegalen lagunen elkarte dagoeneko hasi da Dionewar herriko eskolako bi gelak konpontzen

A.B. | BERGARA

Hilabete gutxi dira Ndank Ndank elkarteak ibilbidea hasi zuela. Senegalen lankidetzaren proiektuak gauzatzeko helburuarekin sortutako elkarte da. Bada, dagoeneko asmoak errealitate bihurtzen hasi dira eta lehenengo proiektua martxan da.

### Dionewar herriko eskola konpontzen ari zarete, ezta?

Bai. Bergaran bizi diren senegaldar gehienek jaioterria da Dionewar. Apirilean bertan izan ginen eta eskola eraberritzeko behar handia ikusi genuen. Bi gela konpontzen hasi gara abuztuan, Aretxabaletako Udalak emandako dirulaguntzari esker. Orain, komunak eraiki nahi ditugu. Horretarako, proiektua lantzen ari gara, Bergarako Udalaren dirulaguntza jaso ahal izateko. Azkenik, geldituko litzateke eskolaren inguruan hesia ipintzea. Hori aurrerago egingo dugu.

### Hasi berriak izan arren, herrian oihartzun handia izan duzue.

Oso pozik gaude bergararren-gandik jaso dugu erantzunarekin. Ndank Ndank (poliki-poliki) filosofiarekin hasi ginen, baina gauzak uste baino azkarrago doaz. Gu ilusio handiarekin eta gogoz ari gara lanean.

### Elkarteko kide egin nahi duenak nora jo behar du?

Biko tabernara etor daiteke. Elkarteko bik hartu dute taberna, eta, nahi barik, elkartearen bulego bilakatu da. Bazkideek 20 euro ordaindu behar dituzte urtean. Bestetik, gogorarazi nahiko nuke Rural Kutxan kontua dugula zabalik. Eskerrak ere eman nahi ditut, azkenaldian kontu horretan sorpresa atseginak izan ditugulako.

### Eskola bukatuta beste proiektu batzuekin jarraituko duzue?

Bai, noski! Hezkuntza eta osasunean zentratu nahi dugu gure lana. Dionewarren hasiko gara, eta, Dionewarren egin beharrekoak bukatuz gero, beste herri batzuetara. Senegalen alde asko dago egiteko.

## Gaztelekuak egubakoitzean ireki zituen berriz ateak; egubakoitzetik domekara egongo da zabalik

Egubakoitzean ireki zituen ateak Xabalote gaztelekuak. Aurten ere era askotako ekintzak egingo dituzte, baina horietan parte hartzeko ezinbestekoa da gaztelekuaren izena ematea. Izen-emate orria Jarduneko bulegoan eta gaztelekuaren eskuratu ahal izango da. Sarrera doakoa izango da eta egubakoitzetik domekara bitartean egongo da zabalik, 17:00etatik 21:30era.

## OHARRAK

### BATZOKIA ZABALIK BOTOA POSTA BIDEZ EMATEKO

Urriaren 21ean izango diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan botoa postaz eman nahi dutenentzat, EAJk bulegoa zabaldu du. Zabalik egongo da 11:30etik 12:30era eta 18:30etik 20:00etara.

### HAUTESLE-ERROLDA IKUSGAI UDALETXEAN

Hautesle-errola irailaren 10era arte egongo da ikusgai udaletxeko idazkaritzan. Interesa dutenek bertara joan behar dute errolda aztertu edo erreklamazioak aurkeztu nahi badituzte.



JARDUN ELKARTEA

## Jardunekin Acedora joan dira eta ederki asko ibili dira

Jardunek antolatuta irailaren 1etik 4ra irteera egin zuten Acedoko kanpinera (Nafarroa) eta egun zoragarriak pasa zituzten 28 gaztek 4 begiralerekin. Badira urte batzuk irailean horrelako irteera egiten duela Jardunek eta urtero egiten jarraitzeko asmoa daukatela azaldu dute, begirale eta zein haurrek esperientzia politak bizi izaten dituztelako. Jardunek datorren urtean ere irteeran parte hartzea animatzen nahi ditu Bergarako gaztetxoak.

# Igeriketa eta ur-ekintzetarako izen-ematea, gaurtik egubakoitzera

- Kiroldegian edo 'www.oinati.eu' atarian eman daiteke izena
- Bestalde, ate irekiak egingo dituzte kirol eskaintza batzuetan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Zubikoa kiroldegian eskaintzen dituzten igeriketa ikastaroetan eta ur-ekintzetan parte hartu gura duten umeendako izena emateko epea zabalik dago. Interesatuak egubakoitza, hilak 14, baino lehen egin behar dute aurre-inkripzioa, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara arte, kiroldegiko bulegoan.

Ikastaroetako arduradunek zehaztutako baldintzak kontuan hartuta, behin-behineko zerrendak osatuko dituzte. Irailaren 21ean ikusgai ipiniko dituzte [www.oinati.eu](http://www.oinati.eu) atarian eta kiroldegiko harreraren.

Onartu ez dituzten umeen gurasoek erreklamazioak aurkezteko aukera izango dute irailaren 24tik 27ra.

Behin betiko zerrendak urriaren 4an kaleratuko dituzte. Taldeak osatu, eta ume bakoitzak ikastaroa ze egunetan eta ze orduetan duen zehaztuko dute.

Ikastaroak urriaren 15ean hasiko dituzte.

#### Ate irekiak eta berrikuntzak

Udan hartutako kiloak kendu edo negua osasuntsu hasi gura

duteneak aukera zabala dute Zubikoa kiroldegian. Ikastaro gehienak hurrengo astean, irailaren 17an, hasiko dira. Baina datozen egunetan eman behar da izena. Gainera, hainbat kirol eskaintza probatzeko aukera dago. Izan ere, ate irekiak egingo dituzte gaurtik egubakoitzera arte.

Herritarrek aukera izango dute ekintzetan parte hartzeko.

Gustuko dutena probatzeko aukera izango dute. Aldez aurretik izena eman beharko da pilates, fit-bike, fit-bike tonu eta fit-bike gazte ikastaroak probatzeko.

Hain zuzen ere, azken horiek dira aurtengo berrikuntzetako bi. Beste berrikuntza hirugarren adinekoendako gimnasia zerbitzua izango da.

Dena den, ate irekien eta kiroldegiko zerbitzu guztien gaineko informazioa Zubikoako sarreran edo [www.oinati.eu](http://www.oinati.eu) atarian ikus daiteke.

#### Aholkulari zerbitzua

Bestalde, aholkularitza zerbitzua ere eskainiko dute kiroldegian. Ekintza guztietan koordinatzaile edo monitorea egongo da beharrezkoak diren azalpenak emateko. Orduetegi eta egun jakin batzuetan egongo dira, eta erabiltzaile guztiek izango dute aholkua eskatzeko aukera.

## Eskulan ikastaroetako lanak erakutsiko dituzte Pake Leku elkartearen

Puntu lanak, bitxigintza, marrazketa eta pintura lanak ikusgai ipiniko dituzte hilaren 14ra arte

M.B. | OÑATI

Pake Leku erretiratuen elkarte-kideek indartsu hasi dute ikasturtea. Hitzaldia eta erakusketa antolatu, eta ikastaroetarako izena emateko deialdia egin dute.

Gaurtik zapatura arte (irailak 10-15), iazko ikasturteko eskulan ikastaroetan egindakoak erakutsiko dituzte. Puntu eta gurutzepuntu lanak, bitxigintzakoak,

pintura eta marrazketan egindakoak... Guztiak ikusgai egongo dira erretiratuen elkartearen 18:00etatik 20:30era arte.

Bestalde, depresioari buruzko hitzaldia antolatu dute biharko, irailak 11. Hirugarren adinean depresioak nola eragiten duen, depresioaren sintomak eta depresioa gainditzeko terapien gainean egingo du berba Jesus Mari Iriarrek. Pake Lekuk antolatu eta



Erretiratuek 2011n egindako eskulanen erakusketa. | GOIENA

Nagusilanez babesten duen berbaldea erretiratuen elkartearen izango da, 17:30ean.

#### Eskulanetan trebatzeko

Azkenik, 2012-13 ikasturterako eskulan ikastaroen zerrenda osa-

tu dute: askotariko dantzak, bitxigintza, puntua, solfeo, euskara, informatika, memoria tailerrak eta beste egingo dituzte. Interesatuak izena emateko orria entregatu beharko dute irailaren 19a baino lehen.

## Eskola agenda bateratua izango dute ikasle guztiek

M.B. | OÑATI

Oñatiko 6-18 urte arteko ikasle guztiek eskola agenda bateratua izango dute. Udaleko eta ikastetxeetako ordezkariek osatutako hezkuntza mahaiak abian ipinitako lehen ekimena da. Ikasleek ikasturteko lehen egunean jaso duten agendak bi zutabe nagusi ditu: euskara eta hirigintza.

Eskola agendan dauden testuak Oñatiko euskaraz jaso dira, eta, herriak nolako bilakaera izan duen ikusteko, Udal Artxiboko hainbat erretratu erabili dituzte. Bada, 1.200 agenda egin dituzte.

#### Eskulanetan trebatzeko

Eskola agenda bateratuz gain, liburuz gainezka daude herriko ikasleak egunotan. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzakoek gaur hasi dituzte eskolak. DBH eta Batxilergo-koek aurreko egubakoitzean egin zuten aurkezpena.

San Migel eta Errosaixo jaiak bukatu arte, eskolak goizez izango dituzte.



OIHANA ELORTZA

## San Lorentzoko komun publikoko lanak abian

San Lorentzoko jolasgunearen inguruan ipiniko dute komun publikoa. Aurreko astean hasi zituzten lanak. Lurra zulatu dute, eta kabina muntatu aurretik, ura, saneamendua eta argindar hornidurarako lotuneak prestatuko dituzte. Hamabost eguneko lana izango da, eta, atzerapenik ez badago, San Migel jaietarako komun publikoa erabilgarri egongo da. San Lorentzoko komuna postetxe ondokoaren antzekoa izango da.


## Yogari buruzko hastapen ikastaroa hilaren 17tik 27ra

Oñatiko yoga eskolak bi aste hastapen ikastaroa egingo du hilaren 17tik 27ra, 19:00etatik 20:30era arte. Bidebarrietako lokalean elkartu eta yoga zer den eta zertarako balio duen erakutsiko dute. Interesatuak 610 95 37 94 telefonora dei dezakete informazioa eskatzeko edo izena emateko.

## Lizargarate trikitizale elkartearen egunerako txartelak salgai

Hilaren 15ean egingo duten festarako txartelak Urbia, Arrano eta Xagu tabernetan eros daitezke 15 eurotan. Gaur, astelehena, da azken eguna.

Lizargarate trikitizale elkartearen egunean musika, bazkaria, haurrendako tailerrak eta erromeria izango dira protagonista.



Eskola agenda. | GOIENA



Eguen arratsaldean eman zuten prentsaurrekoko irudi bat.

## ESKORIATZA

# Eskoriatzako Udal Gobernu "pozik" dago orain arteko agintaldiarekin

- Prozesu parte-hartzaileekin jarraituko dute
- Udalaren egoera ekonomikoa "egonkorra" da baina etorkizun "zail eta iluna" aurreikusten dute

**AMAIA TXINTXURRETA** | ESKORIATZA  
Urtebete pasatxo pasa da Eskoriatzako agintaldi berriko Udal Gobernu eratu zenetik. Hala, Udal Gobernu osatzen duten Bilduko eta Elizateetako zinegotziek eta Beñat Herce alkateak orain artekoaren balorazioa egin dute eta agintaldiarekin "pozik" daudela esan dute.

## Udala "martxa onean"

Elizateetako Iñaki Madinabeitia zinegotziak egunean egin zuten prentsaurrekoan esan zuen Udala "martxan" dagoela "era aktibo eta efikaz batetan" eta gaineratu: "Ikuspuntu ekonomiko-finantzierotik, Udal Gobernu taldetik planteamendu zentuzko bezain zuhurrak egin dira, aurrekontu kontserbadore eta orekatuekin, gaur egungo krisi egoeraren irakurketa errealista eginez".

## Prozesu parte-hartzaileak

Beñat Herce alkateak jarraitu zuen esaten azken 12 hilabeteetan garatutako prozesu parte-hartzaileak errepikatzen edo berriak planteatzen saiatuko direla aurrerantzean ere, orain arteko ekintzek balorazio "oso positiboa" izan dutelako: "Proiektu estrategikoak azaldu dira eta ekarpenak jaso (Zaldibar antzokia eta Atxorrotx), etorkizuneko ildoak markatzeko herritarren partehartze ekimenak (EskoHitza, Parke eta berdeguneen diagnosia, Hondakinen kudeaketa, Telesko...) eta era partehartzaile baten garatu-

tako beste hainbat ekintza, proiektu edo erabaki, jai batzordea edo API-agatik kaltetuekin egindako bilerak".

## Langabeziari aurre egin nahian

Langabeziari aurre egiteko, eskualdeko gainerako udalekin ekintza konkretuak garatzen ari direla azaldu zuen alkateak; indarrak batuz, sinergiak eta emaitza hobekak lortuko dituztelakoan.

## Herri jasangarriagoa

Mankomunitatetik eskaintzen diren zerbitzuen artean, elkarlanean, Eskoriatza herri jasangarriago bat izateko aurrerapausoak ematen dihardutela ere azaldu zuten Udal Gobernutik; hiri hondakinak kudeatzeko sistema aldatzea jarri zuten adibide moduan.

## Inbertsiok

Inbertsiotarako aurrekontu murriztua izan arren, herriarentzat "estrategiko" diren batzuk aurrera eramateko pausuak eman direla ere azaldu zuen Elizateetako zinegotziak eta adibide hauek jarri zituen: San Pedro auzoaren berrurbanizazioaren bigarren fasea, Atxorrotxeko indusketa lanen jarraipena edota laster hasiko diren Zaldibar Antzokia amaitzeko lanak.

## Udalaren egoera ekonomikoa

Udalaren egoera ekonomikoa, bizi ditugun garaietarako, "egonkorra" dela azaldu zuen alkateak,

zorpetzea handitu gabe, hainbat ekintza eta proiektu garatu eta zerbitzuak mantendu dituztelako eta hau gaineratu zuen: "Gipuzkoako zerga bilketa asko jaitsi da eta horrek eragin zuzena dauka gure kontuetan. Gainera, azken hilabeteetan Madrildik hartutako hainbat erabakik udal erakundeei bete betean eragiten die eta panorama zail eta iluna aurreikusten dugu datozen urteetarako. Horregatik, erantzukizun osoz jokatzeko jarraituko dugu. Gai nontzeko administrazioekin erlazio onak ditugu, inguruko herritako udaletxeak edo Gipuzkoako Foru Aldundia kasu. Aipatzekoa da baita ere erakunde artean izaten ari garen kolaborazio eta elkarlaguntza".

## Balorazio "positiboa"

Horregatik guztiagatik, Udal Gobernu kideak "pozik" daudela esan zuen alkateak: "Udal Gobernu osatzen dugun zortziok (Bilduko eta Elizateetako zinegotziok) pozik gaude orain artekoarekin. Hala ere, gainontzeko alderdiekin ditugun harremanak nahi izango genituenak baino hotzagoak dira eta penaz hartzen dugu oposizio eraikitzaile eta kolaboratzaileago bat ez izatea. Guk lanean jarraitzeko intentzio daukagu, herritarrek gudan jarritako konfiantzari erantzunez, eta aurtan ere, beti egin ohi izan den bezala, oposizioari Eskoriatzara hobe baten alde lan egiteko gonbita luzatzen diogu".

## ARETXABALETA

## 'Neska Kabaret' izeneko ikuskizuna, egunean

Zirko ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da herriko plazan arratsaldeko 19:00etan

A.T. | ARETXABALETA

Emakumeak protagonista diren zirko ikuskizuna eskainiko dute egun honetan Aretxabaletan. Gloria Peon eta Leticia Gonzalez de Mendozaren produkzioa da *Neska Kabaret* ikuskizuna eta hainbat zirko disziplinekin gozatzeko aukera izango da; klown, kontortsioa, malabarrak, ariketa aereoak... denetarik ikusi ahal izango da herriko plazan egingo den emanaldian.

### Emakumeak protagonista

*Neska Kabaret* zirko ikuskizunak emakumeen talentua azpimarratu nahi du, horregatik, agertokian izango diren artista guztiak emakumeak izango dira. Protagonistak saiatuko dira ikus-entzuleak mundu sentikor, ameslari, dibertigarri eta ikus-

garri batera eramaten eta adin guztietako pertsonak liluratzeko.

Aurretik, aurtengo Eskoriatzako San Pedro jaietan, ere izandakoak dira *Neska Kabaret*-eko neskek.



Ikuskizuneko une bat. | NESKA KABARET

## Udal eraikinak garbitzeko enpresa egokienari hilaren amaieran esleituko dizkiote lanak

Aretxabaletako Udalak lehiaketa deitu zuen udan Udal eraikinak garbitzeko eta hilaren 6an bukatu zen lehiaketan izena emateko epea. Xabier Mendizabal Udal idazkariak esan digu 6-7 eskaera jaso dituztela, orain guztiak aztertuko dituztela, eta erabakia hileko azkeneko astelehenean hartzea espero dutela. Aukeratu-tako enpresa urrian hasi beharko da lanean.

## Udalak Durana kaleko etxebizitza bat eta Zainduz gimnasioa salgai jarriko ditu laster

Udala Durana kaleko Otanikako etxebizitza eta Zainduz gimnasioa salgai jartzekotan dabil. Momentu hauetan tramite kontuekin dabilzala azaldu digu Xabier Mendizabal Udal idazkariak eta asmoa da hilabete honetako osoko bilkuran baldintza orriak onartzea.

## ESKORIATZA

## Garagardo festa solidarioa antolatzen bileran egingo da gaur kultura etxean 18:30ean

Hilaren 20, 21, 22 eta 23an ospatuko da Eskoriatzan garagardo festa eta bertan batutako dirua herriko zaharren egoitzara bideratuko da. Festa egin ahal izateko, baina, laguntzaileak eta boluntarioak behar dira eta herritar guztiei dei egin diete gaur, astelehena, kultura etxean egingo den bilerara joateko. Bilera hori 18:30etatik aurrera izango da.



Fotokopiak • Koadernatzeak  
Fax zerbitzua • Bulegorako eta eskolarako materiala  
Argazki inprimatze zerbitzua

Santakurtz 24, Lezama merkataritza zentroa Aretxabaleta  
Tel.: / Faxa: 943 77 07 92 • tintabeltza@gmail.com

## ARAMAIO

**Eduarne Urbarren-Iturrieta** | Gazteak, Berdintasuna eta Migrazioa batzordeko kidea

## "Kanpotar batzuk integratuta daude, baina oraindik lan handia dago egiteko"

Aramaion bizi diren kulturak elkartu, ezagutu eta esperientziak trukatzeko asmoz hainbat ekintza antolatu ditu Udalak, eguenetik domekara arte

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaion bizi diren kanpotarrak integratzea helburu duen ekimena antolatzen dihardu Udaleko Gazteak, Berdintasuna eta Migrazio Sailak, Kultura Sailarekin batera.

### Lehenengoz antolatu duzue Kultura Arteko Eguna. Zer da?

Aramaion bizi diren kultura ezberdinak elkartu eta esperientziak trukatzeko ekintza bereziak antolatzea pentsatu genuen. Izan ere, denetariko kultura eta herrialdeen ordezkariak ditugu Aramaion: Venezuela, Garifuna [Guatemalako lurretan dago], Ekuador, Cabo Verde, Sahara, Alemania, Portugal, Frantzia... Eta baita Estatu espainiarraren barruan dauden bestelako kultura eta pentsaerak ere: Andaluzia, Extremadura, Galizia... Noski, Euskal Herriak ere izango du bere lekua. Lehen aldia da eta ez dakigu nola irtingo den; espero dugu parte-hartzea ona izatea.

### Zergatik denok biltzeko beharra?

Elkar ezagutzeko. Herritar askok badakite kanpoko jendea dagoela baina ezer gutxi dakigu euren kultura eta ohiturez. Halako ekintzek kanpokoei integratzeko aukera ematen dietela uste dugu.

### Eguenetik domekara arteko egitaraua prestatu duzue. Zein ekitaldi nabarmenduko zenuke?

Eguen eta egubakoitzerako bideo emanaldi interesgarriak antolatu ditugu. Zaturako, bestalde, mahai-inguru bat prestatu dugu. Asmoa da kultura ezberdinetako herritarak bildu eta hobeto elkar ezagutzea; Manex Agirre aramaiorak Euskal Herriko ohi-turak azalduko dizkie kanpotik datozeinei. Munduko mapa bat ere jarriko dugu norberaren jatorria zehazteko. Gainera, herriko elkarte eta taldeei gonbidapena egin zaie mahai-inguru horretan parte hartzeko. Hala, parte hartuko duten elkarteek zer egiten



Eduarne Urbarren-Iturrieta udaletxean; atzean, Sastiña. | J. BEREZIARTUA

duten azalduko diete, labur-labur. Izan ere, Aramaio ulertzeko ezinbestekoa da herrian dauden elkarre ezberdinen zeregina ezagutzea. Amaitzeko, janari dastatzea egingo dugu, eta jatorri askotariko denetariko jakiekin.

**Erakusketa bat ere jarriko duzue.** Herrialde edota kultura ezberdinen ezaugarri nagusiak erakutsiko ditugu panel batzuetan.

### Nola baloratzen duzu Aramaio hain plurala izatea kultura aldetik?

Oso aberatsa da guretako. Diber-tsitatea ematen dio herriari, hau da, beste ikuspuntu batzuk egon badaudela erakusten digu. Batzuk oso integratuta daude herrian, baina oraindik lan handia dago egiteko. Kultura Arteko Egunak egin behar horretan laguntzea espero dut.

**"Kanpotarrak daudela bai, baina ezer gutxi dakigu euren ohiturez"**

### KULTURA ARTEKO LEHEN EGUNA

#### HILAK 13, EGUENA

**18:30** Bideoa: *El problema del pueblo saharai*. 12 urtetik gorakoendako.

#### HILAK 14, EGUBAKOITZA

**18:30** Bideo emanaldia: *Asina Falamos*.

#### HILAK 15, ZAPATUA

**11:00** Mahai-ingurua: *Mundutik Aramaixora, Aramaixotik mundura*.

**13:00** Hainbat herrialde ezberdinetako janarien dastatzea.

Ekintza guztiak Sastiñan izango dira. Erakusketa ere egongo da Sastiñan bertan: hilaren 13 eta 14an, 18:00etatik 20:00etara; hilaren 15ean, 10:00etatik 14:30era eta hilaren 16an, 12:30etik 14:30era.

idatzita datuak emanda ([kultura@antzuola.net](mailto:kultura@antzuola.net)), lehenbailehen.

#### Urriaren ikastaroak

Eskularen ikastaroa urriaren 4an hasiko da. Koadroak margotu, gauzak zaharberitu, egurra margotu, gauzak itxuraz aldatu... denetarik egiteko aukera egongo da. Eguenetan izango da: 14:30-16:30; prezioa hilean 24 euro da.

Helduen Heziketa Zerbitzuak antolatuta (EPA) ondorengo ikastaroak eskainiko dira: gaztelaniaz alfabetatzea, informatika eta ingelesa. Izena emateko epea hilaren 15era arte dago zabalik. Beharrezkoa da 18 urte beteta izatea.

## ELGETA

## Musika eskolak Lorea Larrañagaren eta Adolfo Jainagaren eskutik

Piano, gitarra, trikiti eta pandero eskolak jaso nahi izanez gero, zabalik dago izen-emate epea

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Ikasturte honetan musika eskolak jaso nahi dituzten elgetarrek hainbat aukera izango dituzte herritik irten barik. Pianoa, gitarra, trikiti, panderoa eta hezkuntza musikala ikas daitezke aurten ere Elgetan. Eskaintza Lorea Larrañagaren eta Adolfo Jainagaren eskutik dator ikasturte honetan ere.

### Hizkuntza musikala

Lorea Larrañaga musika irakaslea kultura etxeko musika gelan emango ditu eskolak aurten ere. Astelehenetik barikura bitartean emango ditu eskolak, eta eskaintza haurrendako zein helduendako da. Gitarra, pianoa eta hezkuntza musikala era-

kusten ditu Larrañagak. Prezioari dagokionez, musika tresna eskoletako hileko kuota 15 euro da, hezkuntza musikaleko eskoletako kuota hilean 20 euro, eta biak batera, hilean 30 euro. Informazio gehiagorako, 943 76 80 66 telefono zenbakira deitu behar duzue.

### Trikitia eta panderoa

Adolfo Jainaga trikiti irakaslea, berriz, eguenetan etorriko da Elgetara. Herri eskolan emango ditu eskolak, 16:00etan. Soinu eskolen prezioa 42 euro da, eta pandero eskolena 30 euro. Jainagarekin harremanetan jarri nahi izanez gero, hauxe da haren telefono zenbakia: 943 20 62 66.



Lorea Larrañaga, piano eskola ematen. | L.Z.

## LEINTZ GATZAGA

## Plazara igotzeko kalea itxi egin dute autoendako

Oinezkoen segurtasuna bermatzea da arrazoia

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Herriko sarreratik San Migel plazara igotzeko dagoen kalea oinezkoendako bakarrik izatea erabaki du Udalak. Hala, abuztuan itxi egin zuten autoendako, eta katea eta loreontzi handi bat jarri bertan.

Horren arrazoia da oinezkoen, batez ere umeen segurtasuna bermatzea. "Sarritan autoek herritik ateratzeko erabiltzen zuten bide hori debekatu egon arren, arrisku handia sortuz", jakinarazi dute udal ordezkariak.



Udaletxe alboko kalea itxita automobilendako. | M.A.

## ANTZUOLA

## Hika eta eskularen ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago

Informatika, gaztelaniaz alfabetatzea eta ingeles ikastaroak ere eskainiko dira urrian

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Hika dakienak eta erabiltzen duenak eta erabiltzen hasi nahi duenari lagundu nahi dionak orain du aukera. Izena emateko epea zabalik dago irailaren 14ra arte, egubakoitzera arte. Udaletxera ere dei daiteke -943 76 62 46- edo mezua idatzi datuak emanez hemen: [kultura@antzuola.net](mailto:kultura@antzuola.net).

*net* helbidera. Euskararekin lotuta, irailaren 22an, zapatuan, *Antzuolan ere Euskaraz bizi nahi dut* ekimena egingo da. Lasterketa 11:30ean hasiko da, Errekalden hasi eta plazan bukatuko da lasterketa.

Parte hartzeko izena eman behar da; animatu eta eman izena udaletxera deituta edo mezua

## SARI NAGUSIA



## Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05  
e-postaz: kluba@goiena.com  
Bidali KLUBA TELEBISTA  
[Bazkidearen zenbakia]  
zenbaki hauetara:  
SMS bidez 215800  
WhatsApp bidez 688 69 00 02

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

## OKI V19B-LED4 telebista

- LCD monitorea, 19 hazbetekoa
- Bereizmena: 1366 x 768 pixel.
- HD ready
- HDMI eta USB sarrera bat
- LTD, bereizmen handikoa



## SARRERAK

**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA** ikusteko gonbidapenak.  
Zozketa suertatu ondoren hiru hilabeteko epea duzue joateko. Pertsona bakoitzendako bi gonbidapen.

PARTE HARTZEKO:  
Bidali KLUBA SARRERAK  
[Bazkidearen zenbakia] zenbaki hauetara:  
SMS bidez 215800  
WhatsApp bidez 688 69 00 02  
Telefonoz: 943 25 05 05  
e-postaz: kluba@goiena.com



## Atera etekina

goienakluba 2012

# %10

 eko deskontua


GUZTIZ  
EDER  
Edertze  
zentroa  
Oñati, 943 78  
01 46.

- **%10eko deskontua**, ermason (zelulitisaren aurkako tratamendua, tinkatzea eta birmoldatzea) hamar saio hartuz gero.
- **%7ko deskontua** aurpegiko azala berritzeko eta orbanak kentzeko, Glycobest inhibitzaile despigmentatzaile programan.
- **%5eko deskontua** argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik).

## LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAL



AQUARIUM  
Donostiako aquarium-a  
Donostia, 943 44 00 99



ARGIA  
euskarazko aldizkari orokorra  
Lasarte-Oria  
943 37 15 45 - 943 37 34 03



AVIA MECA  
gasolindegia  
Arrasate, 943 79 13 39



BEGONDO  
optika  
Aretxabaleta, 943 79 98 21



Eureka!  
zientzia museoa  
Donostia, 943 01 24 78



esko sport  
kirol denda  
Eskoriatza, 943 71 52 96



GAHIR  
fisioterapia-osteopatia  
Eskoriatza, 943 71 43 41



GAES  
entzumen zentroa  
Arrasate, 943 71 27 93  
Bergara, 943 76 94 55



iker  
sukaldeak  
Arrasate, 943 79 00 43  
Oñati, 943 53 35 48



IZENADUBA BASOA  
Euskal Herriko parke mitologikoa  
Mungia, 94 674 00 61



jaixak  
denda  
Bergara, 943 76 31 45



LASTAI  
haurtzaintza eta atseden gunea  
Gasteiz, 945 35 85 59



LILURA  
edertze zentroa  
Bergara, 943 76 31 71



MULTIÓPTICAS  
optika  
Arrasate, 943 79 29 95  
Bergara, 943 76 15 75



NAREN  
fisioterapia zentroa  
Aretxabaleta, 943 08 21 89



RENAULT AUTOBERRI  
kontzesionarioa  
Arrasate, 943 71 24 72



TXURI URDIN  
izotz jauregia  
Donostia, 943 46 44 00



# KIROLA

ARRASATE HIRIA

## Penalti jaurtiketatan irabazi zuen Mondrak bere txapelketa

- ▶ Ander Ruiz de Azuak, Mondrako atezaina, bi jaurtiketa gelditu zituen azken txanpan
- ▶ UDAk 88. minutuan berdindu zuen Arrasate Hiria torneoko finala, baina galdu egin zuen

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Punta-puntako txapelketen antzera, penalti puntutik erabaki zen Arrasate Hiria torneoa. Finaleko arauzko minutuak binako berdinketarekin bukatu ziren, eta txapelketak irabazle bat behar zuenez, penalti jaurtiketak egin zituzten. Mondrak botatako laurak sartu zituen –Gorka, Markel, Iker eta Mikel izan ziren golegileak– eta UDAk bi huts egin zituen: Ander atezainak Orobengoa eta Josuren jaurtiketak geratu zituen.

Une hartara heldu aurretik, final entrenigarria jokatu zuten UDAk eta Mondrak. Zapatuko finaleran Aloña eta Bergara menderatu ostean, liga txapelketa hasteko jokatu duten derbiaren aurrerapena ikus ahal izan genuen atzo. Lehen gola Mondrako Asier Urrak egin zuen 14. minutuan. UDAk atsedanaren aurretik, 39. minutuan, berdindu zuen, penalti bidez. Oinatzek sartu zuen gola. 86. minutuan aurreratu zen berriro Mondra, Jon Zabaletaren burukadari esker, baina aretxabaletarrek berdintzeko denbora izan zuten: 88. minutuan, atezaina aurreratuta ikusita Orobengoak, baselinaz sartu zuen gola. Hori horrela, penaltiek erabaki zuten irabazlea.

### Finalerdian zapatuan

Arrasate Hiria torneoa Ohorezko Erregional Mailan jokatu duten ibarreko lau taldeak batu zituen Mojategin. Zapatuko lehen finalerdia UDAk eta Aloñak jokatu zuten. Albistegiren taldeak aise menderatu zuen Azkargorrena: 3-0 irabazi zuen. Bigarren, Mondrak partidu ona jokatu eta 2-0 irabazi zuen. Bergarak aukera gutxi izan zituen finaleko sailkatzeko.



Mondrako jokalaria baloia gidaatu guran UDAko jokalarien artean. | JOSETXO ARANTZABAL



Gorka Boyon, Mondrako jokalaria, lehen penalti jaurtiketa egiten | JOSETXO ARANTZABAL



UDA lehen gola egiten Aloñaren kontrako finalerdian. | JOSETXO ARANTZABAL



Ander atezaina irabazlearen saria jasotzen. | J. ARANTZABAL



Aitor Perez UDAren garaikurra jasotzen. | JOSETXO ARANTZABAL

NESKEN 2. MAILA

# Mondrako neskek galdu egin zuten ligako lehen partidua San Inazioarekin

- Bizkaitarrek 0-2 irabazi zuten Mojategin
- Ezkurraren taldeak gol aukera gutxi sortu zituen

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Mondrako nesken futbol taldeak liga txapelketa hasi zuen atzo. San Inazioaren kontra jokatu zuten Mojategin eta galdu egin

zuten: 0-2. Beroaren eraginez, nahiko luzea egin zitzaizen partidua arrasatearrei, eta gainera, San Inaziok menderatu zuen lehia hasieratik.

**Bizkaitarrak hobeto**

Lehenengo zatian bizkaitarrak izan ziren baloiaren jabe. Zelai erdiaren indartsu egin ziren, eta, ondorioz, jokoa kontrolatu zuten.

Gainera, jokaldi azkar baten mar-kagailuan aurreratu ziren. Hala, Ezkurraren taldeak aurrera egiteko ahalegina egin zuen. Gol aukera gutxi sortu zituzten, eta izandakoak ez zituzten aprobetxatu.

Bigarren zatia, gogo handiagoarekin hasi zuten arrasatearrek. Lehen bi jaurtiketak Mondrak egin zituen. Baina, berdinketa lortzetik, bigarren gola jasotzera pasa ziren. Berritro, jokaldi azkar baten eta Mondrako defentsari bizkarra hartuta, gola sartu zuen San Inaziok.

Gol hark min handia egin zion Mondrari. Ordu erdi zuten golen bat lortzeko, baina ez zuten asmatu. "Baloia bat langara bidali dugu, eta akaso, bigarren gola jaso ondoren, gehiago kontrolatu dugu partidua. Baina, ez dugu asmatu azken pasean eta atearen aurrean. Gainera, bero handia egin du eta ligako lehen partidua izanik, fisikoak kale egin digu", esan zigun bukaeran Andoni Ezkurra entrenatzaileak.

**Hurrengoa Añorgan**

Lehenengo partidua galduta, bigarrenengoan pentsatzen hasi dira Mondrako neskek. "Lasai egoteko esan diet. Liga hasi besterik ez da egin, eta badaukagu hobetzeko tarterik. Orain, hurrengo asteko partidua prestatzen hasi gara", dio Ezkurrak.

Arrasatearrek Añorganen kontra jokatu dute ligako bigarren jardunaldia, Rezola futbol zelaian.

**ANDONI EZKURRA**  
ENTRENATZAILEA

"Bajak ditugun arren, ilusioa eta gogo baditugu, eta lortuko dugu"

Mondrako nesken taldean aurpegi berriak daude.



Aurpegi berriak, baina helburu berberak.

**Baja inportanteak dituzu.**

Bai. Sei jokalarik taldea utzi dute, eta batzuk jokalarik beterranoak dira. Dena den, jokalarik berriak fitxatu ditugu: Alaitz Seoane, Maider Martinez-Alcocer, Naiara Lete eta Sherezade Moreno.

**Aurpegi berriak, eta iazko helburu berberak?**

Bai. Gure helburu nagusia maila mantentzea da. Ilusioa eta gogo handia ditugu eta helburua lortuko dugu. Lehiakortasun handia dago bigarren mailan, talde indartsuak daude eta.

**Nola jokatuko du taldeak?**

Jokoa zertxobait aldatu behar dugu; besteak beste, iaz 20 gol sartu eta mailako gole-gile onena izan zen Maitane Roa ez dagoelako gurekin.



Mondrako jokalariek eta arduradunak ligako lehen partidua hasi aurretik, Mojategin | ANDER MONEDERO

## Lanerako gertu!

OK

2012  
2013

**GOI MAILAKO  
HEZIKETA  
ZIKLOAK**

**Matrikula  
zabalik**

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOIA

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa  
-Ordenagailu eramangarri bat zure esku
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak



[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)  
[gmhz.mgep@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgep@mondragon.edu)  
943 71 21 91

## MENDI BIZIKLETA

# Inoiz baino txirrindulari gehiago Leintz Gatzagako BBT martxan

222 txirrindularik parte hartu zuten atzo Leintz Gatzagako BTT martxaren 10. edizioan

**ANDER MONEDERO** | LEINTZ GATZAGA  
Aurten Leintz Gatzagako mendi bizikleta martxak 10 urte bete ditu eta bertan inoiz izan den parte hartze handienarekin ospatu zuten Dorletako Ama txirrindulari elkartekoek. Izan ere, domeka goizean 222 txirrindulari irten ziren Leintz Gatzagako plazatik, horietatik 180 nagusientzako frogan eta beste 42 umeentzat bereziki egindako txangoan.

Aurtengo ibilbideak 33 kilometroko luzera izan zuen. Ziklistek herrigunetik irten Makatzagainera joan ziren eta handik Hiru Erreketara –Deba ibaia jaiotzen den lekura–. Ondoren, Leintz Gatzagara itzuli eta herriko plazan txirrindulariek indarrak hartzeko, zerbait jan eta edateko aukera izan zuten. Atsedendald txiki horren ostean, berriz ere bizikleta hartu eta Jarindo aldera egin zuten eta ziklisten herrigunean bukatu zituzten ibilbideak dituen 33 kilometroak.

Dorletako Ama txirrindulari elkartekoek, 14 urtez azpiko gaztetxoaren artean bizikleta zaletasuna sustatzeko asmoz, herriko plazatik Dorletako Santutegira txango bat egin zuten. Bertan, 42 umek parte hartu zuten. Leintz Gatzagako mendi

bizikleta martxako antolatzaileen helburua bizikletaz gozatzeko aukera ematea da, eta zailtasun handiko froga egin beharrean, bizikletan ibiltzen den edonorentzat prestatutako zirkuitua egiten dute.

Mendi martxa bukatzerakoan, txirrindulari gazte zein nagusiak herriko plazan elkartu ziren sari banaketa egiteko. Antolatzaileek sari banaketa berezia egiten dute, izan ere, mendi martxaren babesleek emandako produktuekin –urdaiazpikoak, gaztak, pateak, ardoak...– zozketa egiten dute. Hala ere, zozketan ezer jaso ez zuenak ere izan zuten oparia: izenematearekin batera jasotako kamiseta.

### Webgune berria

Iraila hasieran Dorletako Ama txirrindulari elkarteak webgunea estreinatu du. Bertan, txirrindulari taldearen informazioa, emaitzak eta elkarteak antolatzen dituen frogen berri emango dute.

Orain, zirkuituaren ibilbidea, arauak eta argazkiak ikusteko aukera dago eta Leintz Gatzagako mendi martxaren 11. ediziorako izen ematea internet bitartez egiteko aukera garatuko duela esan digute.



180 txirrindulari irten ziren Leintz Gatzagako plazatik | JOSETXO ARANTZABAL



Parte hartzaileak koadrilan zein bakarka joan ziren. | JOSETXO ARANTZABAL



Ziklistek bide estuak zeharkatu zituzten. | JOSETXO ARANTZABAL



Txirrindulariek Gatzagako inguruaz gozatu zuten. | J. A.



Jon Muxika Pablo Etxeberria txapelketaren irabazlearekin. | JON MUXIKA

### IGERIKETA

## Jon Muxika Gipuzkoako distantzia luzean bigarren

**A.M.** | BERGARA

Jon Muxika igerilari bergararrak bigarren postua lortu zuen zapatuan senior mailako Gipuzkoako distantzia luzeako txapelketan. Itsasoan igerian egiten den txapelketa honetan irabazteko, Gipuzkoan antolatzen diren sei frogetan lortutako lau puntuazio onenak kontuan hartzen dira. Zapatuan egin zen azken froga,

Donostiako Kontxakoa–2.200 metro–, eta bertan lortu zuen Muxikak bigarren postua. Bergararrak txapelketako sei frogetatik Donostian egindako lau frogetan parte hartu du. Izan ere, Txingudiko eta Zarautzeko frogetan ezin izan zuen parte hartu.

Igerilari bergararra txapelketan parte hartzen duen hiru-

garren urtea da eta nahiz eta aurreko urtean txapeldun izan, egindako lanarekin gustura agertu da.

### Gero eta parte-hartze handiagoa

Muxikaren esanetan, gero eta jende gehiagok parte hartzen du igeriketa frogetan, izan ere, zapatuan 500 pertsona baino gehiagok egin zuten froga eta Zarautzekoan 1.000 pertsona inguruk. Hala ere, Muxikak frogan parte hartzea distantziarekin lotuta dagoela esan zuen, izan ere distantzia luzeetan jende gutxiago lehiatzen baita.



## PIRAGUISMOA

Patxi Ugalde | Piraguista

# "Egin ez dudana falta bategatik finalerditik kanpo geratu naiz"

- ▶ 31. postuan bukatu du Europako Txapelketa
- ▶ Epailak ez dute Ugaldek aurkeztutako bideoa aintzat hartu

ANDER MONEDERO | BERGARA

Egubakoitz arratsaldea haserre bukatu zuen Patxi Ugalde piraguista bergararrak. Izan ere, Europako Txapelketan parte hartu zuen eta epaileek egindako akats baten ondorioz, 31. postuan geratu zen eta ezin izan zuen txapelketaren finalerdiko txartela eskuratu. Epaileek bi segundoko zigorra ezarri zioten K1 frogan –errekan egindako zirkuitu batean slalom egitea– ustez ate bat jotzeagatik.

Epaileek hartutako erabakia-ri helegitea jarri zion Ugaldek, izan ere, piraguista bergararraren entrenatzaileak bideo-kamara batekin grabatu zuen saioa eta bideoan argi ikusten dela dio Ugaldek ez zuela atea jo.

Ugaldek horrela kontatu du gertatutakoa "Epaileek jo ez dudana ate bat jotzeagatik zigortu nauten, baina froga bideoan grabatu ez zuten, ezin izan du helegitea jarri". Horrelako txapelketetan epaileek froga guztiak grabatzen dituzte, baina arazo teknikoengatik ezin izan zuten bergararraren

froga grabatu. Hori dela eta, Ugaldek epaileei bere entrenatzaileak grabatutako bideoa aurkeztu zien, baina antolakuntzak bideoa atzera bota zuen. Izan ere, epai-mahailak piraguisten helegiteak onartzeko antolakuntzak grabatutako bideoak bakarrik onartzen ditu. Epaileen akatsarengatik eta antolakuntzak froga bideoan grabatu ez izanagatik haserre agertu zen piraguista bergararra.

Penalizazio horregatik Ugaldek egindako markari bi segundu gehitu zizkioten eta azkenean 31. postuan bukatu zuen. Final laurdenetan zeuden 100 piraguitetarik sailkapeneko lehenengo 30ek lortu zuten finalerdiko txartela. Beraz, bergararrak postu bakar bategatik kanpoan geratu zen. "Haserre bukatu nuen

**"Epaileek jo ez dudana ate bat jotzeagatik kanporatu egin nauten"**

froga, nire esku ez zegoen gauza bategatik kanpoan geratu naiz". Horrelako txapelketetan garrantzitsuena kanporaketa gaintzea da, izan ere, behin froga gaintu ezker, finalera arte egindako denborak ez du ezertarako balio. "Final laurdenetan berdin da 30. edo 10. geratu, garrantzitsuena kanporaketa gaintzea da" adierazi zigun Ugaldek.

Piraguista bergararraren helburua lehenengo hamarren artean geratu eta finala jokatzeko zela esan zigun, "behin finalean egonda edozer gertatzeko aukerak daude". Ez da piraguista bergararrak nazioarteko txapelketa bat jokatzeko duen lehenengo aldia: Munduko txapelketan parte hartu du eta baina Europako beste txapelketa batean ere. Ugaldek aurrekoan final laurdenak gaintzea lortu zuen, baina bergararrak ezin izan zuen finalera sailkatu.

Nahiz eta aurtengo Europako txapelketarako helburua ez bete eta epai-mahaiarekin arazoak izan, Eslovenian txapelketaren inguruan sortutako giroaz gozatu duela esan



Patxi Ugalde K1 froga batean. | JULIAN UGALDE

digu: "Eguraldiak lagundu egin du, piraguismo denda pilo bat daude eta Europako piraguitariek onenak daude. Oso gustura nago, lastima, nire eskuetatik kanpo dagoen akats batez ondorioz txapelketan aurrera ez egitea". Txapelketa honetan zorreak ez dio

**"Antolakuntzaren bideoak kale egin zuen eta ezin izan zuten froga grabatu"**

lagundu eta arantza batekin bueltatuko da Bergarara.

**Abuztuan, Espainiako bigarren** Ugaldek abuztuan Espainiako Txapelketan egindako lanarengatik lortu zuen Europako txapelketarako txartela. Bergararrak Espainiako Txapelketa jokatzeko egun batzuk falta zirela sorbalda ateratu zuen eta gorputzak erantzun egingo zion edo ez beldur zen. Txapelketa horretan lortutakoak sortutako poztasunak egubakoitzeko tristurarekin talka egin zuen.

## ZIKLISMOA

## Limousin Cartonajes taldeko Jon Madariaga nagusi Oñatiko Mikel Deuna sarian

Tolosako taldearen txirrindulariek lasterketa hasieratik erakustaldi polita eskaini zuten eta sailkapeneko lehenengo lau postuak eskuratu zituzten

A.M. | OÑATI

Tolosako Limousin Cartonajes taldea jaun eta jabe izan zen zapatuan Oñatin jokaturako Mikel Deuna txirrindulariaren frogan. Lasterketa hasierako kilometroetan –Oñati-Bergara-Oñati– tropela

hautsi egin zen eta 20 bat txirrindulari osatutako hiesaldi bat izan zen.

Udanatik Atagoitira bitartean, Limousin taldeko lau txirrindulari eraso egin eta bakarrik egin zituzten lasterketaren azken kilo-

metroak –Udana-Oñati-Zubillaga-Oñati–. Lehenengo erasoalditik tolosarrek erritmo bizia ezarri zuten eta azken ihesaldia egin zuten lau ziklistetatik Xabier San Sebastian atzean geratu eta Jon Madariaga, Jon Irisarri eta Mikel

Matxinea izan ziren Mikel Deuna sariko azkarrenak. Helmugan hirurak batera sartu ziren eta lasterketak zituen 87 kilometroak egiteko 02:16:18 behar izan zituzten. Lasterketako laugarren sailkatua, Xabier San Sebastiek 20 segundu gehiago behar izan zituen lasterketa bukatzeko.

Tolosarren erasoaldiaren ostean, helmuga baino kilometro batzuk lehenenago harrapatu zuen tropelak hasierako ihesaldian sartutako 15 txirrindulariak. Lasterketa bukaeran, nahiz eta ziklistak tropelean ez helmugaratu, segundo gutxiren aldearekin sartu ziren Oñatiko plazan. Lasterketako bosgarren postua Oskar Malasetxebarriarentzat (02:17:19) izan zen.

**Gure ordezkariak, makal**

Zapatuko lasterketan Debagoieneko hiru taldek parte hartu zuten: Aloña Mendik, Lokatzak eta Dorletako Amak. Nahiz eta lasterketa etxe ondoan izan eta bidea ondo ezagutu, Tolosako taldeko txirrindulariek lasterketa irabazteko erabilitako estrategiak lo harrapatu zuten eta gure ziklistek ez zuten lasterketa irabazteko

inolako aukerarik izan. Zapatuko frogan, ibarreko txirrindularirik azkarrena 15. postuan geratu zen Lokatza taldeko Beñat Etxabe (02:17:50) bergararra izan zen.

**Hurrengo lasterketa, Beasainen**

Debagoieneko gazte mailako txirrindulariek lasterketa polita jokatu dute hurrengo astebukaeran Beasainen. Izan ere, *Pre-mundial* izenarekin ezagutzen den lasterketan arituko baitira. Bertan, Espainia osoko 15 talderik onenek parte hartuko dute eta baita, Iparraldeko eta Akitaniako taldeak ere. Lasterketa horretan parte hartzeko gonbidapena dute Gipuzkoako talde guztiak.

Goi mailako txirrindularitza froga izango dute gure ziklistek eta Lokatzako Iker Sanchezen esanetan "erronka polita izango da, Espainiako txirrindularirik onenen aurka aritzea eta lasterketa on bat egitea". Beasaineko frogan 35 talde eta 200 txirrindulari baino gehiago izango dira, eta, bertan, mundialean izango diren txirrindulari askok parte hartuko dute.



Limousin Cartonajeseko txirrindulariek erakustaldi bikaina eskaini zuten zapatuan. | JOSETXO ARANTZABAL

## PILOTA

# Arrasatearrak nagusi Dorletako Ama pilota txapelketako 5. edizioan

Prietok eta Arregik 22-20 irabazi zuten eta Zuazuak eta Orejak 22-14

ANDER MONEDERO | LEINTZ GATZAGA

Atzo arratsaldean Leintz Gatzagan jokaturako gazte mailako pilota finalean ikuskizun paregabea izan zuten frontoian bildutako pilotazaleek. Izan ere, gutxik espero zuten Gorka Prietok eta Oier Arregik osatutako bikoteak Amurrioko Bengoak eta Murgak osatutakoa menderatzea. Baina partidua bikaina jokatu eta hala egin zuten. Mauri Zubillaga, txapelketako antolatzailearen esanetan "Amurrioko jokalariek abuztuan txapelketa batzuk jokatu dituzte eta arrasatearrek ez, eta horrela koetan forma hobea duen bikoteak irabazten du".

Partiduaren hasieratik lehia orekatua izan zuten, pilotariak nekez egiten zituzten tantoak, baina bukaeran, hein handi batean, Oier Arregik egindako lanari esker lortu zuen bikote arrasatearrak garaipena.

Nabarmenezkoa da Arregik ezker eskuarekin egindako lana; izan ere, pilota zail asko ateratzea lortu zuen. Horri esker, bikote arrasatearrak partiduari buelta ematea lortu zuen; izan ere, 14-19



Partidu bikaina egin zuten Prieto eta Arregi arrasatearrek. | JOSETXO ARANTZABAL

galtzen ari ziren eta bukaeran 22-20 nagusitu ziren. Bikote arrasatearrak gogoz ospatu zuen garaipena.

Senior mailako finalean, berriz, hasieratik bukaerara partiduan jaun eta jabe izan zen Zuazuak eta Orejak osatutako bikotea.

Eskoriatzako Zubizarreta anaiek harmailen babesa izan zuten -pilotalekuan Eskoriatzako 60 bat zale zeuden- baina hori ez zen nahikoa

izan arrasatearrak menderatzeko. Bikote arrasatearrak pilota indarrez astindu zuen eta atzelari eskoriatzarrak ezin izan zion erauntsiari erantzun: batzuetan pilota gora, besteetan kanpora... bukaeran 22-14 Zuazua eta Oreja irabazle. 2011 urteko edizioan baino zorte hobea izan zuen Aritz Zuazua pilotari arrasatearra; izan ere, txapelkunorde geratu zen iaz.

## 2013an gehiago

Sari banaketaren ostean, Dorletako Ama pilota txapelketako antolatzaileak, Mauri Zubillagak, hurrengo urtean ere txapelketa antolatuko duela adierazi zuen. Izan ere, pilota partiduak direla eta herrian giro polita sortzen da eta txapelketan parte hartu duten herrietako pilota taldeak gustura geratu dira. Gainera, orain arte bezala, Udalak ekimen hau babesten jarraituko du.

Hurrengo urteko txapelketara begira, Mauri Zubillagak aldaketak egongo direla esan zuen: Gasteiz, Otxandio, Legutio, Amurrio, Arrasate, Aretxabaleta, Oñati eta Bergarako taldeez gain, Azpeitia eta Nafarroako talderen batek ere parte hartzeko ahalegina egingo omen du eta. Hori bai, orain arteko formula erabiliko du Zubillagak, hau da, maila bakoitzeko jokalariek hilean behin jokatu dute.

Beraz, 2013ko martxotik aurrera, berriz hasiko dira pilota partiduak Leintz Gatzagako frontoian.

## ERRUGBIA

## Aurpegi berriak ditu Arrasatek errugbi denboraldiari aurre egiteko

Igor Isasi entrenatzaileak 25 jokalariz izango ditu senior mailan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Arrasateko errugbi taldea lanean hasi da dagoeneko. Igor Isasik 25 jokalariz izango ditu denboraldiari aurre egiteko. Senior mailako taldeak azken urteetako egitura mantenduko du. Taldea indartzeko aurpegi berriak egongo dira Mojategin. Adibidez, Ander Heriz arrasatearra etxera itzuli da azken urtea Durangon eman ondoren. Gainera, urtebeteko

lesioen ondoren, zelaietara itzuli dira Jon Lizaur, Julen Barrutia eta Ander Salaberri. Mikel Bargiela antzuolarra errugbira itzuli da berritua, eta lehen talde-erantzule izango da Jokin Dolarak. Hasiberri bat ere izango dute: Andoni Azpiazu oñatiarra.

Igor Isasiren taldeak denboraldi-aurrearekin dihardu. Euskal liga txapelketa irail bukaeran edo urri hasieran hasiko dute.

### Harrobikoekin lanean

Senior maila ez da Arrasate Errugbi Taldeak duen talde bakarra. Harrobiarekin sendo lan egiten duen elkarteak da. Talde guztiak hasi dira entrenatzen.

Neska-mutikoak errugbira erakartzeko eskola ere badute Arrasaten. Hor egiten dute lan gaztetxoekin. Eskolan diharduten jokalariek dira senior mailako taldearen etorkizuna.



Senior mailako jokalariek Igor Isasi entrenatzailearekin. | ARRASATE ERRUGBI TALDEA

## MENDIA

## Mendian hil diren mendizaleak omentzeko Oroimen Eguna egingo dute Besaiden hilaren 16an

Mendian hil diren pertsonak omentzeko Oroimen Eguna ospatuko dute hilaren 16an, domeka, Besaiden. Euskal Herri osoko mendizaleak batuko dira egun horretan. Arrasateko 08:30ean hartuko dute Besaidarako bidea. Bestalde, Besaidek antolatuta mendi irteera egingo dute hilaren 23an, Burgos eta Bizkaia bereizten dituen muga inguruetara.

## MENDIA

## Aitor Aranaren omenezko mendi martxa irailaren 29an egingo dute: zortzi bat ordukoa izango da

Aitor Aranaren omenezko 16. martxa irailaren 29rako antolatuko du Aramaioko Orixol mendizale elkarteak. Ibarrik abiatuta, Tellamendi, Kasatxo, Orixol, Mirugain, Marixeka, Durakogain eta Asensio zeharkatuko dituzte berritua ere Ibarren amaitzeko; horixe izango da ibilbidea. Seitik zortzi orduko ibilaldia izango da. Izen-ematea 10 euro da. Kiroldigitik irteera dira

## MENDIA

## Gipuzkoako Mendi Federazioak orientazio ikastaroak egingo ditu irail bukaeran eta urri hasieran

Gipuzkoako Mendi Federazioak orientazio ikastaro bi egingo ditu: irailaren 29 eta 30ean iparorratz bidezko orientazio ikastaroa egingo dute Aiako Harriak, Hondarribian; eta urriaren 6 eta 7an GPSarekin nola orientatu erakutsiko dute Andoainen. Izena emateko edo informazioa eskatzeko [www.gmf-fgm.org/Ikastaroak-Online/](http://www.gmf-fgm.org/Ikastaroak-Online/) helbidean sartu behar da.

## ATLETISMOA

## Atletismoko entrenamenduak eguztenetan eta egubakoitzetan egingo dituzte Mojategin

Atletismoan jardun gura duten neska-mutikoendako entrenamenduak aste honetan hasiko dituzte Arrasaten. Eguztenetan eta egubakoitzetan egingo dituzte Mojategin, 18:00etatik 19:00etara arte. 14 urte arteko guztiendako deialdia da eta interesatuek Leintz bailarako ikastetxeetan edo Mojategiko entrenamenduetan eman dezakete izena.

## ESKUBALOIA

Nestor Calleja | Arrasate Eskubaloi taldeko jokalaria ohia

# "Jokatzen aritu naizen urteetan irabaztera irten den taldea izan gara; horrek asko betetzen nau"

- ▶ 10 urte zituela hasi zen Arrasaten jokatzeko eta ordutik ez du beste elastikorik jantzi
- ▶ "Pena handia" eman arren, erretiroa hartzeko eta datozenekiko lekua uzteko ordua dela dio

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

20 denboraldi Arrasateko eskubaloi taldean egin ostean, iazkoa amaitu zenean erabaki zuen erretiroa hartzea Nestor Callejak (Arrasate, 1981). Urte asko izan dira eta asko eman dio eskubaloiak baina Callejak berak dioenez, "oso zaila" da hasierako ilusioa mantentzea. Orain bere buruarendako denbora gehiago izango du.

**Esan daiteke zurea eskubaloiari lotutako bizitza dela. Noiz hasi zinen jokatzeko?**

1991n hasi nintzela uste dut, hamar urte nituela. Garai hartan multi-kirolean nenbilen eta ordurako eskubaloi oso gustuko nuen. Gainera, Arrasateko txapelketa irabazi genuen eta ia koadrila osoak eskubaloiaren jokatzeko jarraitu genuen. Beraz, inguruneak ere zuzenean eragin zuen.

**20 edo 21 denboraldi guztira, beraz. Guztiak Arrasaten?**

Bai, Arrasate Eskubaloi taldean jokatu ditut denboraldi guztiak. Hori bai, duela hamar bat urte Aloña Mendin jokatzeko aukera izan nuen. Eurekin hasi nintzen entrenatzen baina maila oso altua zelako, lan kontuek eraginda eta bestelako arrazoi batzuk direla medio, Arrasatera itzultzea erabaki nuen. Hau da, entrenamendu batzuk egin nituen Oñatin baina ez nuen sekula partidurik jokatu.

**Beste klubik ez, baina selekzioarik?**

Gipuzkoako selekzioarekin jokatu nuen hiru urtetan-edo; esperientzia polita izan zen.

**Ford Mugarriekin egindako zein denboraldi gogoratzen duzu bereziki?**

Azken biak, zalantza barik. Oso gogorrak izan ziren baina oso politak aldi berean. Igoera faseak oso politak izan dira: taldearekin kanpora irten, hoteleko kontzentrazioak... Eguneko 24 orduak taldekideekin egotea polita da. Hori bai, kirol arloan ez ziren irteera arrakastatsuak izan...

**Argi diozu: bi igoera fase, baina igoerarik ez. Zergatik ez zenuten lortu, zure ustez?**

Lehen igoera fasean argi eta garbi geratu zen aurkariak hobek zirela. Baina iaz ez zen hala izan: etxeko taldea gurea baino txarragoa zen zalantza barik, baina epailearen erabakiek asko baldintzatu zuten partidua. Etxean jokatzeko diru asko ordaindu beharra dago baina gero igartzen da nor den kanpokoa. Pena handia izan zen, egia esan.



Nestor Calleja Iturripen, Arrasate Eskubaloi taldeko aspaldiko kamisetarekin; ezker hegaletik eta 15 zenbakiarekin jokatu izan du beti | JOKIN BEREZIARTUA

**Denboraldi berria eta igotzeko hiru-garren saikera. Aurten bai?**

Igoera fasea kanpoan jokatzeko badute zaila izango dute, aurreko bi urteetan argi geratu da. Nire gomendioa da igoera fasea sailkatuz gero Arrasatera ekartzea. Noski, horretarako dirua behar da baina kanpora joateak ere gastu handia suposatzen du: bidaia, hotela, otordu guztiak... **Zer eman dizu eskubaloiak?**

Lehenik eta behin, osasuna. Kirola maiztasunez egitearen ondorio positiboena da, nire ustez. Horregatik aurrerantzean ere kirola egiten jarraituko dut; bizikleta, korrika egitea, gimnasioa... ez naiz geldi egongo. Eta noski, betirako geratuko diren lagun mordoak ere eman dizkit eskubaloiak. Bestalde, jokatzeko aritu naizen urteetan behintzat, irabaztera irten taldea izan gara, eta horrek asko betetzen nau.

**Eta zer kendu dizu?**

Denbora, batez ere. Aste bukarrera gehienetan jokatzeko tokatu zait eta beraz, lagunekin egoteko denbora gutxi eta neskalagunarekin kanpora joateko zailtasun handiak. Askok mugatu nau.

**"Betirako geratuko diren lagun mordoak eman dizkit eskubaloiak"**

**"Lagunekin egon eta neskalagunarekin kanpora irteteko denbora kendu dit"**

**Horrek asko eragingo zuen erretiroa hartzeko erabakian, ezta?**

Bete-betean. Eta gainera, hasierako urteetako motibazioa mantentzea oso zaila da. Denboraldi asko dira, entrenamendu asko, eta azkenean nekatuta amaitu dut. Adinak eta lesioek uzten duten arrastoek ere bultzatu nauten erretiroa hartzera.

**Jokatzeari agur esan diozu. Ikusten zara entrenatzaile moduan?**

Urte pare bat gutxienez behar ditut deskonektatzeko eta gero denborak esango du. Baina ukazina dena da eskubaloi bizitza osoan gustatuko zaidala. **Agurtzeko ordua Nestor, zurea da hitza.**

Nirekin jokatu duten guztiei eskerririk beroenak. Lagun mordoak egin ditut eta hori betirako gertatzen da. Pena handia eman arren, heldu da nire ordua; orain, datozenek har dezatela lekukoa.

**Herrero: "Ondo ari gara lanean"**

Denboraldia prestatzen hasita daude dagoeneko Ane Herreroaren mutilak. Abuztuaren 27an egin zuten lehen saioa eta aurre-denboraldietan egin ohi den moduan, arlo fisikoa ari dira lantzen batez ere. Nestor Callejaz gain, Asier eta Mikel Larrañaga ez dira egongo, ezta Aitor Txabarri atezaina ere. Bestalde, Oskar Macias igoko dute gazte mailatik. Herrero gustura dago orain arteko lanarekin: "Ondo ari gara lanean". Irailaren 29an hasiko dute denboraldia.

# Aitaren egitekoa: amaren premiez arduratzea eta hura sostengatzea

Guraso berriendako idatzi du, oraingoan, Irene Txurrukak; zereginen banaketaz jarduten du

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

"Jaio da, azkenean, hainbeste espero genuen haurra, eta orain guraso gara. Zer da aitari eta zer amari egitea dagokiena?". Hitz horiekin hasten du Irene Txurrukak *Guraso.com* webguneko irakurleendako idatzitako azken artikulua. "Berdintasunaz hitz egiten digute, emakumearen liberalizazioaz, matxismoaz (...) eta gure nahia ondo egitea baino ez da", azaltzen du.

Txurrukak familia bakoitzaren errealitateaz ohartarazten gaitu lehenengo: "Errealitate horren arabera antolatu beharko da bizimodu berria nahiz bakoitzaren egitekoa; izan ere, egoera ekonomikoak, lan-baldintzak, familiaren aldetik jaso daitekeen laguntza (...) edozein bide auke-

ratzen dela ere, ondo egongo da", ziurtatzen du.

## Diada edo fusioa

Txurrukak, dena den, amaren eta haurraren arteko fusioa edo diada nabarmentzen du. Lehenengo hilabete horietan haurra oraindik amaren atal sentitzen dela azpimarratzen du, eta amak antzeko prozesua bizitzen duela ohartarazten du. Hala, aitaren egitekoak zeintzuk diren ondorioztatzen du. "Haurrak asko behar du, eta asko eman behar zaio; baina jakina, asko emateko norberak ere jaso egin behar du, eta norbera elikatzeko momentuak hartu. Hain justu ere, horixe izango da hasierako urte hauetan batez ere aitari egokituko zaiona. Alegia, amaren premiez ardura-



Ama haur jaioberriekin. | THE JORDAN COLLECTIVE

tzea, ama sostengatzea hark haurra egoki sostengatzea. Hasieran normala da aita galduta egotea —ama ere bai, jakina—, amaren lana argiago ikusten delako, baina asko da sostengua emate horretan aitak egin dezakeena", azaltzen du.

## Aita aktiboak

Aitaren egitekoen artean amaren eta haurraren arteko fusioa erraz-

tea, ingurukoaren aurrean fusio hori defendatzea, amari emozioak adierazten laguntzea, eta gauza materialez —erosketak, ordainketak, antolaketa...— arduratzea dela nabarmentzen ditu Txurrukak. Jakina, umea koskortu ahalaitak beste zeregin bat hartu behar du. "Familiaren aitaren zeregina, batez ere, haurra banantzea, individualizatzea, mundura ateratzea... izango da, eta amarena,

berriz, batzea, lotura mantentzea...". Txurrukaren ustez aitak ere oso aktibo egon behar du beti. "Batuetan, gizonek joera izaten dute diadatik kanpo egoteagatik jeloskor eta bakarrik sentitzeko, eta ondorioz motibazioa galtzen dute. Horregatik, bai amak bai aitak, ahalegina egin behar dute familia berrian eginkizun garrantzitsuak elkarri aintzatetsi edo baloratzeko".

## Gurasook ez dugu ahaztu behar akatsak egitea ikasteko aukera izan ohi dela haurrendako ere

L.Z. | ARRASATE

*Batman Begins* pelikulatik: "Zergatik erortzen gara, Bruce?", galdetzen dio Thomas Wayne semeari. Mutikoa begira du, erantzunaren zain. "Altxatzen ikasteko, seme!", esaten dio aitak.

Gaur egungo gizartean beldur handia diogu akatsak egiteari, eta, sarri, seme-alaben gainean gaude minik ez hartzeko, arriskurik ez hartzeko, erabaki okerrik ez hartzeko... Haurren heziketan guraso

moduan dugun egitekoa haurrei aukeratzen erakustea da. Gogoe-ta horretatik abiatuta hausnarketa egiten du Armando izeneko blogari batek *BebesMas* atari digitaletan. "Haurrak aukeratu behar du arriskua hartu edo ez, eta gurasoen egitekoa da erortzen denean altxatzen laguntzea, baldin eta laguntza hori behar duen", dio Armandok. Akats bakoitza ikasteko aukera berria dela defendatzen du; gauzak beste modu batera nola egin ikasteko bidea.



Mutikoa bizikletatik jausita. | REDTROLLY

## 'Hezkuntza berritzen' foroak jarraipena izango du asteon

Ikaskuntza metodologia berriak elkar trukatzeko gunea sortu du Mondragon Unibertsitateak

L.Z. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak eguaztenean, irailak 5, abiarazi zuen *Hezkuntza berritzen* izeneko foroa. Helburua da irakaskuntzan ari diren profesionalen artean ikaskuntza metodologia berriak partekatzea eta elkar trukatzeko foro bat eskaintzea. Hala, modu puntualean egiten ziren elkar trukeak foro egiturarekin egingo dituzte aurturaren lehenengo aldiz. "Ikusita gizartea ze abiaduran aldatzen ari den ezinbestekoa da unibertsitateak ere metodologiak berritzea", adierazi du Mondragon Unibertsitateko errektoreorde Jon Altunak. Hala, IKT teknologiek hezkuntzan duten paperaz, kompetentzien garapenari buruz eta garapen hori nola ebaluatu behar den aztertuko dituzte, besteak beste.

## Kanpoko adituekin

Etxeko irakasleen aurkezpenek osatzen dute foroaren egitarauaren zati handiena, baina Madrilgo unibertsitate politetnikoko, Oviadoko unibertsitateko, Castellon-

go Jaume I. unibertsitateko edo Danimarkako Aalborg unibertsitateko esperientziak ere lekua izango dute foroan.

## Bi jardunaldi

Eguaztenean Huzezi fakultatean egin zuten foroaren lehen jardunaldia, eta metodologia berri ezberdinak aurkeztu zituzten. Foroak etzi, eguaztana, izango du bigarren jardunaldia Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan.

Kompetentzien ebaluaketa, tutorretza, eta metodologia aktiboak izango dituzte aztergai, besteak beste bigarren saio horretan.

Hizlarien artean MUKO irakasle ugari zein Oviadoko unibertsitateko zein Danimarkako Aalborg unibertsitateko ordezkari bana izango dira. Goizeko zein arratsaldeko saioak mahai-inguru banarekin amaituko dituzte. "Kezka nagusia da benetan hezten ari garen guk nahi dugun gizarte baterako prestatuta dauden pertsonak", adierazi du MUKO irakasle Miren Zubizarretak. "Azkenean, gaur egun ezagutzak eskura daude edozein tokitan, baina benetan garrantzitsua dena da ezagutza horiekin zer lortu nahi dugun, eta nola lortu nahi dugun erabakitzea".



Nekane Errasti, LSP metodologiaren aurkezpena egiten. | L.Z.



# KULTURA



Ganbara abesbatzako kideak, eta Josu Elberdin organo-jolea atzean. | JOSETXO ARANTZABAL

## Magia Arantzazun Josu Elberdin eta Ganbara batuta

Elkarrekin egindako emanaldian estreinatu zuten musikari eta konpositore pasaitarrak Joan Paulo II.aren omenez idatzitako meza

**JULEN IRIONDO** | ARANTZAZU  
"Zorionak" batari eta "zorionak" besteei. "Zorionak" Josu Elberdin organo-jole pasaitarrari eta "zorionak" Oñatiko Ganbara abesbatzako kideei. Arantzazuko santutegian zapatu eguerdian elkarrekin egindako kontzertuak

publikoa asebate zuela ezagun zen jendearen amaierako komentarioetan, bai eta haien aurpegiak begiratu soilean ere. Eta aurretik, aurretik saioan zehar, nolako arretaz jarraitu zuten ikusita, eta pieza bakoitza eskertzeko emandako txaloak aintzat hartu-

ta. Eta azkena, *Arantzazuko*, amaitzearekin, are txalo gehiago, noski.

**Konpositore ezagunak aurrena**  
Egun handiaren bezperan giro magikoa sortu zuten Elberdinen atzamarretatik ateratako doinuek

eta Ganbarakoen ahotsek. Emanaldiak bi zati izan zituen: aurrenekoan, Mendelssohnen *Hear My Prayer*, Bustoren *Ave Maria*, Jenkinsen *Ave Verum* eta Faureren *Cantique de Jean Racine* interpretatu zituzten; bigarrean, oster, Elberdinen beraren zenbait

obra, lehenagokoak gehienak, baina bat berria ere bai.

### Estreinaldia

Izan ere, Arantzazuko saioan estreinatu zuten musikari eta konpositore pasaitarrak *Missa Ioannes Paulus II* meza, Joan Paulo II.a aita santuari eskainitako obra "koloretsua, argitsua eta alai", autorearen beraren hitzetan.

Eta Ganbara abesbatzakoek izan zuten estreinaldiari ahotsa jartzeko ardura: "Guretzako proiektu berria zen hau, meza baten estreinaldia, eta horrek ardura sentiarazten du eta, gainera, konposatzailea bera gure artean bada jotzen, ba are gehiago". Horrelako obra bat herrian, "Arantzazu moduko leku polit batean" estreinatzea "ohore handia eta oso esperientzia polita" izan zela zioen Aitor Biain zuzendariak.

"Oso pozik" geratu zen Biain kontzertuarekin: "Aurretik ere Josu Elberdinen pieza batzuk abestuta genituen eta, hortaz, bere musika estiloa ezaguna zen taldearendako. Gustuko musika da, eta ez da lan zaila izan". Estreinatutako mezar buruz "oso obra polita" dela zioen Biainek, eta hori "ohikoagoak" ziren beste piezei batuta "oso programa polita eta konpletoa" geratu zela.

Lehenago ere behin baino gehiagotan lankidetzan jardundakoak, "oso gustura nago Aitor Biain egiten ari den lanarekin" zioen amaieran konposatzaile pasaitarrak, eta hitz politik baino ez zituen zuzendari oñatiarrak ere Elberdinentzat: "Josuk gauza on bat badu, hori da abesbatza munduan asko dabilela; orduan, abesbatza, instrumentu moduan, ondo ezagutzen du eta oso ondo idazten du horretarako, eta horrek aukera ematen digu musika kalitatezkoa egiteko". Aurrera begira kolaborazio gehiago egingo dituzten ziurtasuna agertu zuten Biainek.

**JOSU ELBERDIN** | ORGANO-JOLEA

### "Abesbatzak lan izugarria egin du"

Aitor Biain eta bere ardurapeko taldeak lehenagotik ere ezagutzen zituen Josu Elberdinek; ohitua, oso ohitua dago abesbatzekin lankidetzan, Trintxerpeko parrokan organo-jole izateaz gain, inguruko hainbat talderekin ere jarduten baitu. Konpositore modura hainbat sari lortutakoa, lan ugari eskatu izan dizkiote musika ziklo edo mundu osoko abesbatza garrantzitsuek, adibidez; baita lehiaketetatik ere.

Oraingoan, Arantzazun estreinatu du bere lan bat, arrakastaz gainera.

**Zenbat zorion mezu amaieran! Pozik egotekoa da...**

Ikaragarri ederra izan da egia esan.

Abesbatzak lan izugarria egin du eta jendeak ere lagundu egin du, giroarekin eta entzuten. Esan ditzakedan hitz denak hitz onak eta positiboak dira.

**Egun eta leku bereziak, gainera; polita behar du gaurkoa moduko egun batean hemen egoteak.**

Bai. Halako toki batek, halako egunean, bezpera, bederatziruaren amaiera, erromesekin... Magia hutsa izan da; magia sortu du gu eta oso pozik nago horrekin.

**Aurrera begira ere Ganbararekin gauzak egiten jarraitzeko asmorik bai?**

Asmoa badugu egiten jarraitzeko.



GOIENA

Azken urteetan, batez ere, Ganbara Txikirekin dut harremana. Ia urtero etortzen naiz Gabonetan, turroia bezala. Nire musika askotan egiten dute eta oso gustura nago Aitor Biain egiten ari den lanarekin. Ganbarak ere ikaragarriko etorkizuna du, lan bikaina egiten ari dira.

### Estreinatutako obra, egilearen hitzetan

*Ioannes Paulus II* meza 2011ko ekainean idatzi zuen Josu Elberdinek. Horrela definitzen du egileak berak: "Meza *brevis* erakoa da eta bost atalez osatua dago: *Aprite le porte a Cristo, Kyrie, Gloria, Sanctus-Benedictus* eta *Agnus Dei*. Harrigarria bada ere, meza ez da *Kyrie*-arekin hasten; beste sarrera bat dauka, non Juan Pablo II.ak, aita santu izendatua izatean, esandako lehen hitzak aipatzen diren. Italiaraz esandakoaren itzulpena da: 'Ireki Ateak Kristori, ez beldurrik izan, ireki zuten bihotza guztiz Jainkoaren maitasunari'.

Mundu guztian aldatetako nagusi diren garai hauetan, eta Joan Paulo II.ak emandako irekitasunaren aldeko mezuan oinarrituta, kolorez eta esperantzaz beteta dagoen musikak osatzen du meza hau. Doinu oso erromantiko eta melodikoz beteta dago, bizitzako kontzeptu positibo eta itxaropentsuetan oinarrituta hein berean eta organoa eta abesbatzaren arteko elkarrizketak ideia honetan sakontzen du; hala nola, atal batzuk oso indartsuak eta dinamikoak dira, eta beste zenbait, berriz, askoz ere intimoagoak eta pentsakorragoak edo reflexiboagoak.

Aukera paregabea izan da meza Arantzazuko Amaren aurrean aurkeztearena, bederatziruaren amaieran, bere egun nagusiaren bezperan eta Ganbara abesbatzaren eskutik", dio Elberdinek.



Azpiroz eta Muguruza egubakoitz gauean Aretxabaletan eskaini zuten emanaldian. | JOSETXO ARANTZABAL

## KRONIKA

## Bikote bat, mila sentsazio

**ANDER MONEDERO** | ARETXABALETA  
Jabier Muguruzak *Bikote bat* izeneko diskoa 2011ko urrian kaleratu zuen eta egubakoitz gauean abesti bilduma berri horren abestiak zuzenean aurkeztu zituen Aretxabaletako Zاراia aretoan. Muguruzaren azken lanetan bezala, abesten dituen hitzei garrantzia emateko, pianoak eta eskusoinuak lagunduta egin zuen kantaldia. 13 abestiz osatutako emanaldia izan zen, horietatik 10 lan berrikoak.

Muguruzak, lan berrian bezala, Mikel Azpiroz (Elkano Browning Crew) laguntza izan zuen. Bi musikariek konposatu

zuten lan berriaren musika eta zuzenean ere batera aritzen dira, Azpiroz pianoarekin eta Muguruza ahotsarekin eta zenbait abestitan esku-soinuarekin.

Emanaldia hasteko, diskoaren lan berriari izena ematen dion abestia jo zuten: *Bikote bat*. Gero, *Gosari jendetsua*, *Euria ari badu* eta *Arima lapurra* abestiak jo zituzten. Lan berri honetako abestien hitzak zenbait idazle eta poetarenak dira: Harkaitz Cano, Gerardo Markuleta, Jose Luis Padron eta Iñaki Irazu dira kontzertuaren hasierako lau abestien hitzen sortzaileak. Honen ostean, bikoteak lan berri honetarako

egindako abesti instrumental baten txanda izan zen: *Jolasean*. Bi musikariek giro paregabea lortu zuten, ikusleendako atmosfera intimo zein xarmagarria sortuz. Muguruzak taula gainean

## FITXA

MUSIKA

**JABIER MUGURUZA****Estiloa:** Pop, Jazz...**Non:** Zاراia Aretoa, Aretxabaleta.**Eguna:** Egubakoitza, irailak 7.**Iraupena:** 80 minutu inguru..

duen esperientziak giroa sortzen asko lagundu zuen, izan ere, musikari irundarrak abesti bakoitzaren testuingurua azaldu eta publikoarekin hartu-eman handia izan zuen, galdera jaurtiz eta parte hartzera gonbidatuz.

Lan berria ezagutzen ez zuten ikusleek *Bikote bat* diskoa ezagutzeko moduz gain, Muguruzaren abesti zaharragoz gozatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek: Bernardo Atxagaren hitzak dituen *Mazisi okeita denbelek* eta *Beste nonbait* abesti instrumentala jo zituzten.

Gero lan berriaren abesti gehiago plazaratu zituzten eta emanaldiari amaiera emateko 1997an kaleratutako Aise laneko *Benino edo Benito* abestia eta lan berriko *Paradisurako jaiok gara* abestiak jo zituzten. Azken hau jotzen hasi aurretik "...eta merezi dugu gure paradisu txiki hori!"

gogorarazi zuen Muguruzak. Atxagak egindako letrak askatasunaz eta bizitzaz gozatu beharra ekarri zituen gogora. Bukaeran, nahiz eta Zاراian ikusle asko ez izan, pozik bukatu zuten irundarrak eskainitako ikuskizun intimo eta goxoarekin.

**23 urte bakarleri lanetan**

Muguruzak txikitatik du musikarako zaletasuna eta baita talentua ere. Bost urterekin hasi zen akordeoia jotzen eta bi urte beranduago Europako Txapelketa eskuratu zuen. 80ko hamarkadan, Kortatu, Xabier Lete eta Antton Valverderek lan egin ostean, 1989an bakarleri gisa hasi eta ordutik 12 disko kaleratu ditu.

Hori gutxi balitz, beste musikari batzuekin lan egiten jarraitu du eta bederatzi liburu idatzi ditu, gehienak gazteei zuzendutakoak.

## Arratsalde magikoa 'Zirko Loretsua'-rekin

120 pertsona inguru izan ziren San Martin plazan

**A. M.** | BERGARA

Ikasturtea hasi berri da eta, horrekin batera, egubakoitz arratsalderako opor osteko umeentzako lehenengo ekitaldia antolatatu zuen Bergarako Jardun euskara elkarteak: 'Zirko Loretsua' izeneko antzezlan.

Ikuskizunaren protagonista Florenzio Galdiano lorezaina da eta, bere lorategi debekatuko sagar bat jan ostean, aldaketa jasan eta bere lana abentura bilakatzen da. Abentura horrekin, San Martin plazan bildutako ume

zein nagusiek barre ugari egin eta gozatu egin zuten ikuskizunaz. 'Zirko loretsua' ikuskizunak muntai sinplea du, antzezle bakar bat eta soinu teknikaria, eta hori besterik ez du behar zirkua edozein herriko plazan sortzeko; eta umeak alfombra gorrian esertzean magia hasten da.

Antzezleak ikusleagoaren arreta lortzeko mozorrotu eta malabarrak eta magia egiten ditu, eta horrekin guztiarekin lortzen du umeek eszenatokitik begirik ez kentzea.



Bergarako umeek adi jarraitu zuten 'Zirko loretsua'. | MAITANE ARIZABALETA

Juanjo Elordi | 'Gartxot' filmaren zuzendaria

## "Asko filmak eragindako grina kontatzera gerturatu zaizkigu"

- ▶ Hiru euskal film eskainiko dituzte Zabalotegin eguaztenetan
- ▶ Lehena, etzi, 'Gartxot' izango da, helduentzako animaziozko filma

JON BEREZIBAR | BERGARA

Euskarazko filmak eskainiko dituzte hiru eguaztenetan Zabalotegi aretoan, 20:00etan. Jardun elkarteak eta Udalak elkarrekin antolatuta, *Gazta zati bat* dokumentala, *Sua* filma eta *Gartxot* animaziozkoa ikusteko aukera egongo da. Azken horrekin, Asisko Urmeneta marrazkigileak eta Juango Elordui zinemagileak zuzendutako filmarekin, hasiko dira etzi. Urmenetaren komiki ezagunean oinarritutako filma da *Gartxot*.

**Iazko azaroan estreinatuta eta gero, ia urtebetean, zelako ibilbidea izan du filmak?**

Pozik gaude batez ere filmak emozionalki izan duen erantzunarekin. Kopuru eder bat egin du helduentzako euskarazko animazio filma izateko baina izugarria izan da ikusi eta gero jendeak transmititu diguna; filmak piztu dizkien pentsaera, grina ala sentimenduak kontatu dizkigute. Arrakasta baino gehiago eragina izan du *Gartxotek*, kasik espero ez genuena.



Juanjo Elordi. | SOMUGA

**"Gogorra, iluna eta ederra dira aldi berean istorioa bera eta filma"**

Filma bera bai istorio aldetik eta baita estetikoki ere inpresioa uzteko modukoa da.

Asiskoren komikia abiapuntu oso potentea zen eta asko erraztu zigun horrek. Film gogorra eta ederra da aldi berean. Ikusi

eta gero batek baino gehiagok esan digu gogorra egin zitzaizela baina aretotik irtendakoan gauzei beldurra galdu izanaren sentsazioarekin irten zirela azaldu ziguten. Istorioa bera gogorra eta iluna da berez eta guk ez genuen istorio gogor eta ilunarekin bakarrik geratu.

**Maila emozionalean ere filmak egungo nerbio asko ukitzen ditu, klabe politikoan uler daitezkeenak erabat, ezta?**

Sekulako lana egin da historian benetan zer gertatu zen argitzeko ze istorioak Kanpionek jasotako kondaira baten hartzen du oinarri. Egia esan, lanean hasi ginean ez ginen oso kontziente barnean zegoen materialaz. Kanpionek, baina, kontaktarako orain mila urte benetan existitu ziren pertsonaiak erabili zituen eta kontakizunak zuen indarrak jabetu ginen. Horregatik, filma amaitu bezain pronto, azalpenak emateko liburu bat idazteko beharra sentitu genuen, azaltzeko narrazio hutsa izan barik Gartxoten kondairan agertzen diren pertsonaia eta gertaera asko historikoak direla. Gure tesia da orain dela mila urte hasi zela herri honen konkista prozesua, hain ondo ezagutzen dugu orain

**"Filma amaitu bezain pronto liburu bat idazteko beharra sentitu genuen"**

dela 500 urteko prozesu militarra baino lehenago, eta orain dela mila urte hasi ziren gauzak gertatzen Nafarroa irensteko.

**Bitxia da filmaren prozesuaren erdian konturatu izana istorioak zeukan potentzialaz.**

Fedea bageneukan Kanpion historialaria izanda kontaktutakoak izango zuela benetako oinarria. Azkenean, fikzioaren eta erreallitatearen artean egiten diren kontakizunetan, bien artean gertatzen diren gertakizun asko dago eta horregatik izan genuen ostan kontatzeko behar hori.

**Aretoez gain orain filma streaming bidez ikus daiteke, ezta?**

Oso gauza berria da baina irudizten zitzaien askok ezin izan dutela filma ikusi eta aukera hau ikusi genuen [filmin.es/pelicula/gartxot helbidean] DVDarekin batera. Diru-laguntzetarako gainera ezinbestekoa da ikusle kopuru bat izatea eta Internet bidez ikusitakoak orain zenbatu egiten dute. Izan ere, *Gartxot* gehien ikusi da herrietan eta herri gehienetako aretoetako ikusleek ez dute ofizialki kontabilizatzen balio. Ikusteko modu berria denez eta ohiturarik ez dagoenez, ahal legin hori eskatu gura diegu ahal dutenei, guretzat garrantzitsua baita.

**Zinema jaialdietan ere erakutsi duzue, ezta?**

Bai, tribunal batek baino gehiagok hautatu du filma, bai. Kontua da helduentzako animaziozko merkaturik ez dagoela inon eta atzerrian mugitzea zaila dela.

2012-2013

IKASTURTEKO **EUSKARA** IKASTAROAK

**Matrikula zabalik**

**Izena emateko epea irailaren 3tik 25era**



EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE ikastaroak:  
1., 2., 3. eta 4. HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK  
(HOMOLOGATUTA)

EGA

MINTZAMENA lantzeko ikastaroak

BOGA. AUTOIKASKUNTZA

TOKIKO EUSKALKIA

AZTERKETA OFIZIALAK MAIATZEAN ETA IRAILEAN

Erritmo eta ordutegi egokituak, txandakako taldeak

**BEKA SISTEMA**

**IKASLEEK, LANGABEEK ETA ERRETIRATUEK**

**PREZIO ERDIA**



**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**  
Arimazubi plaza, 2  
(Eskola Politeknikoaren ondoan)  
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88  
Faxa: 943 79 91 43  
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**  
Barrenkalea, 33  
(Irizar jauregia)  
Tel.: 943 76 44 53  
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**  
Nafarroa 2-4 Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 21 68  
Faxa: 943 79 92 62  
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

**BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA**  
Bidebarrieta, 18-behea Oñati  
Tel.: 943 78 24 96  
Faxa: 943 71 82 96  
euskaltegia@oinati.net

Intxaurtxueta 10 Eskoriatza  
Tel.: 943 79 21 68  
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

**Nik maite dut euskara**



2012-2013 IKASTURTEA

**Matrikula zabalik**

**UDAL EUSKALTEGIAK**

Izena emateko epea irailaren 3tik 25era



# UDAKO ARGAZKIEN

Argazki guztiak fotoblog honetan

Baita hemen ere: 




**BEHI BAKARTIA.** Behi bakartia Elosuako zelaietan. 2012ko uztailearen 12an ateratako argazkia. /Argazkia: Gorka Kerejeta Luengo /Arrasate



**KUXKUXEATZEN.** Conilgo postuetan zehar paseatzen ateratako argazkia da hori. Belarritako pareak aukeratu ezinik. /Argazkia: Elene Berezibar /Aretxabaleta



**BIZIKLETAK UDAN ERABILTZEKO DIRA.** "Bueltatxo bat egitera atera nintzen eta geldialditxo batean argazki hau bururatu zitzaidan". /Argazkia: Andoni Iñarra /Arrasate



**EGUNSENTIAHUAYNA POTOSIMENDIAN.** Boliviako Huayna Potosi mendian (6.088 m) ateratako argazkia. "Mendian gora 07:00etan heldu giñan, eguzkixan irteerikin batera, eta holako paisaje ederra eskaiñi zozkun eguzkixak. 4 lagun jun giñan bertara: Michele Piras (Italia), Roberto Trevini (Italia), Rodrigo Martin (Salamanca) eta ni neu (Iñaki Goenaga).. /Argazkia: Iñaki Goenaga Zangitu /Bergara



**ORKATZAK.** Argazkia Huetosen (Araba) aterata dago, uztailean. Egunsentian soroan zebiltzan bi orkatz agertzen dira. /Argazkia: Igor Otadui Irasuegi /Arrasate



**TXIMELETA MAITEA.** Tournemir-en (Frantzia) tximeleta bati ateratako argazkia. /Argazkia: Maite Lopez Aretxaga /Oñati




**SALTZAILEA.** Saltzaile bat hondartzan, eguzkia ezkututzen doan bitartean. 2012ko abuztuan Agropolin (Italia hegoaldea) ateratako argazkia. /Argazkia: Juan Antonio Uriarte /Eskoriatza



**ERNESTOURAKANA.** Mexikoko Akumalkostaldean, bi gazte Ernesto urakana nola datorren begira. 2012ko abuztuan ateratako argazkia. /Argazkia: Jesus Mari Alonso



**ARRANTZAN.** Aurtengo abuztuan Finisterren arrantzan. /Argazkia: Xabier Igartua Lopez /Oñati



**GETARIA.** Getarian ateratako argazkia 2012ko abuztuaren 14an. /Argazkia: Asier Tena /Arrasate



**MALBORK GAZTELUA.** 2009ko abuztuan ateratako argazkia. Poloniako Malbork gaztelua da. "Gaztelu hori ikusteko momenturik aproposena ilunabarra dela diote, eta arrazoi osoa dute". /Argazkia: Maialen Urizar Barrutia /Aramaio



# VIII. GOIENA LEHIAKETA

un: [goiena.net/blogak/argazkiak](http://goiena.net/blogak/argazkiak)

udakoargazkiak  udakoargazkiak



**KREMA EMATEN.** Santanderko hondartza baten talde bat krema ematen. /Argazkia: Manuel Montiel/Elgeta



**AHUNTZA.** 2012ko abuztuan mendiko ahuntz bati ateratako argazkia. Castellote (Maestrazgo, Teruel). /Argazkia: Manuel Montiel/Elgeta



**EZARO HONDARTZA.** Herriko hondartza Ezaro gainetik aterata. Ezaro Umbria (Galizia) /Argazkia: Adoratriz Herrasti Erligorri/Arrasate



**HAUTACAM.** 2012ko uztaila. Frantziako Pirinioetako Hautacam mendia. Eguerdi lainotsu eta lanbrotsuan ezin da jakin zelaiaz bestaldean zer dagoen. /Argazkia: Juan Mari Agirreurreta/Aretxabaleta



**PINUDIAN.** Argazkian Anixe agertzen da, eguzkia sartzen ari den bitartean, Kurtzebarriko pinudi batean. /Argazkia: Anixe Uribarren Bengoa/Arrasate



**ILUNABARRA KONTXAN.** Donostiako Kontxako ilunabarra. Itsasontziak eta Santa Klara irla ikusten dira. 2012ko udan ateratako argazkia. /Argazkia: Josu Olabarria Aldasoro/Bergara



**ARTELANA MENDIAN.** Argazkian, Suitzan oso ohikoa den egurrez eginiko adar itxurako Alp Horn izeneko instrumentua jotzen dagoen papina azaltzen da, eta atzealdean Matterhorn mendia ikusten da. /Argazkia: Iñaki Uribe-Etxebarria/Eskoriatza



**BIDEA EGINEZ.** Cies uharterko hondartzan ateratako argazkia. /Argazkia: Imanol Larrea/Oñati



**PIRINIOETAKO ILARGIPEAN.** Col de Sahun (Pirinioak) 2012ko abuztuaren 30ean ateratako argazkia. Bertan, nire furgoneta ilargipean eta Oxel difuminatuta agertzen dira. /Argazkia: Haritz Arabaola Landa/Arrasate

## Oinarriak\*

- Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
  - Egilearen izen-abizenak eta herria.
  - Harremanetarako telefonoa.
  - Argazkia noiz eta nongoa den.
  - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak jasotzeko epea: uztailaren 2tik irailaren 14ra (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinakoa bereizmenarekin).

- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otolora Lizentziaduna 31, Arrasate. ARETXABALETA: Basabe poligonoa E05, Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.

\* Oinarri guztiak: [ttiki.com/40738](http://ttiki.com/40738)

## Sariak:

- 1. saria:** Canon EOS 1100 D reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.
  - 2. saria:** Cantabrian bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaiak-en eskutik.
  - 3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- Herriarren saria:** bi pertsonendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Debako AISIA hotelean.
- Boto emalleentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarrea, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.



ANTOLATZAILEA: **goiena**

Laguntzaileak:



Canon



GURE AMETSA  
JATETXEA



## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Abadiño.** Pisu salgai Matienan, Kultur etxe aurrean. Altzariz hornitua. Bizitzera sartzeko prest. 3 logela, bainua. 27 m<sup>2</sup>-ko garaje itxia alokatzeko aukera. Ikustera etorri konpromisogabe. 615-73 85 52.

**Arrasateko erdialdean.** Aukera. Hiru logela, balkoi luzea, hormigoizko egitura, hirugarren pisua, dena kanpoaldera, sukalde hornitua, gas individuala, komuna, egongela eta ganbara. Oso argitsua. Bikoteentzat proposa. 138.500 euro. 662 18 25 73

**Bergara.** Etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldia. Igogailua eta berokuntzarekin. Guztiz jantzia. 669 53 97 03

**Berriz.** Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 647-7773 92.

**Bolibar.** Etxe zaharra salgai Bolibarren 34m<sup>2</sup> x 3. Teillatu berria eta proiektuarekin. Hiru logela eta 40m<sup>2</sup>-ko terraza. Hartu txiki bat. 150.000 euro. 660-35 80 67.

**Durango.** Sasikoa kalean. 3 logela, saloi-jangela handia, sukaldia eta bainua. Bi balkoi, kamarotea eta garajea. Prezio paregabea. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 679-38 23 69.

**Elorrio.** Elorrioren etxebizitza salgai. Eraikuntza berria, erdigunean kokatua, igogailua, hiru logela, bi bainugela, sukalde ekipatua, bi hormako-armairu eta trasteleku. 75 m<sup>2</sup>. 230.000 euro. Garajea aukeran. Tel.: 634-45 72 01.

**Garai.** Oarbeaskoa baserria salgai. 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Garaiko San Miguel auzoa, 6. 8.500 m<sup>2</sup>-ko belardi sorra, nahiko laua. 200m<sup>2</sup>-ko baratza, frutalak. Nekazal turismoa edo nekazaritza ekologikorako proposa. Toki lasaia, hegoaldera begira. Erreabilitazioa behar du. Bifamiliarra egiteko baimena. Udaletxea, frontoia, kultur etxea, osakidetzak kontsulta, jate-txeak(2) eta bus geltokitik 150 metroara. Durangotik 10 minutu. Ap-8 autopistatik 5 minutu. 639-83 34 89 jo. amantegi@gmail.com.

**Iurreta.** Pisu bat salgai Arriaundin, Iurretan. 66.000 euro. 685-72 80 42.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Kale Zaharra auzoan. Bi logela, komuna, egongela, sukaldia eta barruko patio bat. Guztiz jantzia. Oso argitsua. Igogailuarekin. 190.000 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 655-72 27 35.

**Oñati.** Etxebizitza bat saltzen da Errekalde auzoan. Hiru logela, egongela, komuna eta sukaldia. 79 metro koadro ditu eta 7,20 metroko ganbara. Oso argitsua. Prezio interesgarria. Deitu zenbaki honetara: 653-73 08 03.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Almeria** Oporretako etxea alokatzen da Almeri Mar-en (Almeria). Hondartzan ondoan eta herrian ondo kokatuta. Prezio interesgarria. Tel.: 94-658 32 03 edo 680-10 58 46.

**Antzuola.** Etxebizitza ematen da errenta. Bi logela. Igogailuarekin. Berritua. 645-00 89 97, 605-76 76 30.

**Arrasate.** Apartamentu txikia ematen da errentan erdigunean. Logela bat eta egongelarekin. Berokuntzarekin. Hilean 450 euro. 665-71 06 66 (Amaia).

**Arrasate.** Apartamentua ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldia, bainugela, terrazak, argitsua, berokuntza zentrala. Erdigunean. 450 euro. Deitu 628 22 45 09 edo 943 31 35 86 telefonora.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitateki gertu. Egoera ezin hobean. Lau logela ditu, horietako bi bikoitzak. Guztira sei personarendako modukoa. Bi bainugelarekin. Dena kanpoaldera begira. Garajearekin. 840 euro. Deitu 678 -53 82 48 telefonora.

**Arrasate.** Garaian hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. 675 euro. Deitu zenbaki honetara: 646-19 49 98.

**Arrasate.** Ikasleendako hiru logelako etxebizitza ematen da errentan, munar auzoan, unibertsitateki gertu. Berokuntza zentral eta igogailuarekin. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 669-53 60 29, 615-71 94 58.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela eta bi bainugelakoa. Igogailuarekin. 750 euro hilean. 675-71 50 36.

**Bergara.** Pertsona batendako buhardillatxoa ematen da errentan erdigunean. Sukalde, komuna eta logelarekin. Deitu 667 31 37 45 zenbakira.

**Elorrio.** Elorrioren, Nizeto Urkizu kalean etxea alokagai. Sukalde, egongela, komuna, bi logela altzariz hornitua eta berriztatua, eta ganbara handi batekin. 550 euro. 645-73 54 42.

**Elorrio.** Elorrioren etxebizitza alokagai. Eraikuntza berria, erdigunean, igogailua, bi logela, bi bainugela eta trasteleku. 600 euro. Tel.: 634-45 72 01.

**Eskoriatza.** Mazmela auzoan baserria ematen da errentan, ortu eta guzti. Guztiz eraberritua. Deitu 680 33 40 76 edo 605 77 51 65 telefonora.

**Iruia.** Iruian pisu berritua, ederra, alokairuan, 600 euro. Bankuko abala edo aseguria beharrezkoa. Etxea guztiz berritua berria dago, estrenatzeko dago oraindik, toki lasaia eta eder batean kokaturik. Konpromisorik gabe ikus ezazu. Jabe eta bizi-lagun euskaldunak! (85m<sup>2</sup>/3 logela/1 wc./1 balkoi/1 trasteroa./elektrodomestikoak berri berriak, sukaldia, garbigailua, labea, mikruina.../komona berria/instalazio elektriko berria/kalefakzio berria/gas naturala/climatit lehoiak/osoa argitsua eta ekialdeko kokapena (eguzkia egun osoan)/legurra lurrean/amueblaturik (guztia estrenatzeko!!) zoragarria eta zuk estreninatuko zenuke!! bideoa eta argazki gehiago bertan dituzue: (\*bideoa): http://xurl. Es/zilar6 (\*argazkiak): http://xurl. Es/zilar6 joxibalerdi@gmail.com 676-05 18 85.

**Oñati.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. 657 13 33 44

**Zaldibar.** Erdialdean, guztiz berritua, 2 logela. Telefonoa 660-45 87 56.

**104. ERRENTAN HARTU**

**Antzuola.** Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan. Deitu telefono zenbaki honetara: 676 61 15 47

## ZURE IRAGARKIAK

## IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagor argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

## 1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu  
102. Erosi  
103. Errentan eman  
104. Errentan hartu  
105. Etxeak osatu  
106. Bestelakoak

## 2. GARAJEAK

201. Saldu  
202. Erosi  
203. Errentan eman  
204. Errentan hartu  
205. Bestelakoak

## 3. LOKALAK

301. Saldu  
302. Erosi  
303. Errentan eman  
304. Errentan hartu  
305. Bestelakoak

## 4. LANA

401. Eskaintzak  
402. Eskaerak  
403. Bestelakoak

## 5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso  
502. Eman  
503. Bestelakoak

## 6. MOTORRA

601. Saldu  
602. Erosi  
603. Alokatu  
604. Bestelakoak

## 7. ANIMALIAK

701. Saldu  
702. Erosi  
703. Eman  
704. Bestelakoak

## 8. DENETARIK

801. Saldu  
802. Erosi  
803. Eman  
804. Hartu  
805. Trukatu  
806. Galdtu  
807. Aurkitu  
808. Bestelakoak

## 9. HARREMANAK

901. Agurrak  
902. Harremanak  
903. Deiak  
904. Bestelakoak

## 10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: [iragarkilaburrak.com](http://iragarkilaburrak.com)



Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
www.inmokorosti.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

## Bergara:

- Ramon M. Lili 92 m<sup>2</sup>. 3 logela. Terraza eta garajearekin. Berritua.
- Aranerrek 78 m<sup>2</sup>. 3 logela, terrazarekin. Berritua. 175.000€.
- Fraizkozuri 100 m<sup>2</sup>. 4 logela, 2 balkoiarekin. Igogailua. Prezio jaitzieraekin.
- Justo Garate 60 m<sup>2</sup>. 2 logela. Terraza eta garajearekin. 240.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m<sup>2</sup>. 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000€. Aukera ona
- Zabalotegi 90 m<sup>2</sup>. 2 logela. Berritua. 174.293€. Aukera ona.
- Masterreka 70 m<sup>2</sup>. 2 logela. Garajea aukeran. 198.334 €.
- Martoko 70 m<sup>2</sup>. 2 logela. 110.000 €.
- Zubieta 168 m<sup>2</sup>. 4 logela. Ortuarekin.
- Ibarra 65 m<sup>2</sup>. 3 logela. Berritua. 150.000 €.
- Simon Arrieta 75 m<sup>2</sup>. 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin.
- Bidekuruzeta 147 m<sup>2</sup>. Aukera ona.
- Masterreka 45 m<sup>2</sup>. Logela bat. 150.253 €.
- Azkarruntz 80 m<sup>2</sup>. 3 logela. 92.856 €.
- Artzamendi 70 m<sup>2</sup>. 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760 €.
- Irizar Enparantza 71 m<sup>2</sup>. 2 logela, igogailu, berogailu, trasteleku eta garajearekin.
- Ibargarai 90 m<sup>2</sup>. 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 240.405 €.
- Zubiurre 82 m<sup>2</sup>. Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegi 55 m<sup>2</sup>. Balkoia eta trasteleku. Prezio jaitzieraekin. 114.192 €.
- Azkarruntz 75 m<sup>2</sup>. 3 logela. Berritua. Oso ondo. 144.243 €.
- Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>. 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Simon Arrieta 80 m<sup>2</sup>. 2 logela. Balkoia, igogailu, berogailu eta trastelekuarekin. 210.354 €.
- Zabalotegi 54 m<sup>2</sup>. Balkoiarekin. 96.000 €.
- Zubiurre 65 m<sup>2</sup>. 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitzieraekin.
- Iparagorri 40 m<sup>2</sup>. Apartamentua, berria.

## Antzuola:

- Errekalde 94 m<sup>2</sup>. 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurratze 83 m<sup>2</sup>. Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m<sup>2</sup>. 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitzieraekin.
- Buztinuzuri, Sagasti, Antigua, Zurratze, Beheko auzoa, Ibarra auzoa, San Josepe, Aieria eta Errekalde. Etxe onak.

## Soraluze:

Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

## Elgeta:

- Iorrede 77 m<sup>2</sup>. 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m<sup>2</sup> + 45 m<sup>2</sup> garajea + 90 m<sup>2</sup> lursaila.

**Durango.** Pisukide bila nabil. Pisu konpartitzeko beste pertsona bakar batez. Norbera bere komuna. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 600-45 83 16.

**Oñati.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 74 87 51

## 2. GARAJEAK

## 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Aretxabaletan. 15.000 euroan edo errentan hileko 60 euroan. Lezama azpian, Santakruz 24an. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 647 080 016 edo 943 421822

**Durango.** Trasteleku salgai Astepe auzunean. 18 metro karratu eta bi altuera, leihoa eta ate berria. 9.500 euro. 665-70 75 35.

**Elorrio.** Elorrioko Berrio-Otxoa kalean garaje itxia saltzen da. Interesa baduzu eta informazio gehiago nahi baduzu, deitu! 658-75 92 64.

**Otxandio.** Garaje itxia salgai Otxandion, pertsianarekin. 675 -7172 83.

## 3. LOKALAK

## 301. SALDU

**Gasteiz.** Azken erabilera: tailer mekanikoa garbitzeko, engrasatzeko eta ibi lizentzia ditu. Bulegoko altzarriak eta garajeak atea. Portero automatikoa eta alarma. 2 komun ditu, bat mugikortasun urriko pertsonen moldatua. Hiri erdigunetik komunikazio onak ditu. Autobus geltokiak hurbil daude. Alokatzeko ere posible da: 800euro/hil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665-75 78 07 (Ana)

## 303. ERRENTAN EMAN

**Durango.** Bulego bat alokatzen dut Durangon. 42 m<sup>2</sup>. Durango erdian. Tel.: 656-78 02 15.

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Debagoiena.** Pertsona heldua behar da etxeko lanak egin eta nagusia zaintzeko. 669 53 97 03

**Oñati.** Pertsona euskalduna behar da Oñatin bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interesa dutenek dei dezatela telefono zenbaki honetara: 658 74 75 48

## 402. ESKAERAK

**Arrasate edo Bergara.** Emakume gertu umeak zaindu edo garbiketa lanetan jarduteko, orduka. Deitu telefono zenbaki honetara 672 70 71 2

**Arrasate.** Neska boliviarrak pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu, baita garbitasun lanak egiteko ere. Esperientzia, informea eta paperak ditu. Gauz eta egunez, baita orduka ere. 618 14 71 34

**Arrasate.** Neskagertu nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko. 629-80 77 73.

**Bergara.** Adin ertaineko emakume gertu arratsaldetan, 16:00etatik aurrera, nagusiak pasioan lagundu edo umeak zaintzeko. 610 34 97 88.

**Bergara.** Arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 665 75 41 32.

**Debagoiena.** Neska euskalduna, psikologian lizentziatua, goizetan haurrekin lan egiteko prest. Haurrekin esperientzia handia. 685 76 91 11

**Debagoiena.** 40 urteko gizon eta emakume gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko debagoienan. Margoketa lanak ere egingo gaituzke. Arrasaten bizi gara. 630-04 52 79.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanerako eta edozein ordutegirekin lan egiteko gertu. 600 290 524.

**Debagoiena.** Emakumea edozein ordutegirekin mota guztietako lanak egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 664 124 325.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, orduka edo egun osoz. Garbiketarak ere egingo nituzke. Berehala hasteko prest. 602 87 09 30, 695 75 42 45

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka lan egiteko. 634 78 19 54.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi eta lan egiteko. Ospitalean gauz gaixoak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 602 37 14 43.

www.inmosalbide.com

**Salbide**  
SALBIDE  
Higiezin zerbitzuak

**Aia.** Basemia berritu berria. 125 m<sup>2</sup>-ko bi solairu ditu. 25 m<sup>2</sup>-ko terraza. Temenoa, 110.000 m<sup>2</sup>. 50.000.000 pezeta.

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.

**Arroabea.** Duplex eraiki berria, zoragarria (154m<sup>2</sup>). Segituan bizitzera jartzeko moduan. Bi solairu (44m<sup>2</sup>). Garajea eta trasteleku. Prezioa: 47.919.168 pezeta. Aukera aparta!

**Bergara.** Askaruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukaldia, berokuntza sistema gasarekin. 150.000 euro!

**Bergara.** San Lorenzo auzoan. Duplex bat, estrenatzeko, garaje plaza eta guzti. 48.000.000 pezeta.

**Donostia.** Amara-Amezketan kalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Izkina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.

**Iraeta.** Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. 39.000.000 pezeta.

**Getaria.** Herrietara kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Oso prezio onean. 39.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Itxasmendi. 3 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela eta terraza. Argitsua. Prezio berria: 46.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Azken Portu. 92 m<sup>2</sup> ditu. 4 logela, Terraza, Trasteleku eta Igogailua. Erreforma behar du. Prezio Berria. 54.000.000 Ptas.

Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz  
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96

**Debagoiena.** Emakumea gertu, arduratsua eta esperientziaduna, umeak zaintzen, garbiketarik orduka egiteko edo nagusiak zaindu edota paseoa laguntzeko. 943 71 5374, 695 73 87 95

**Debagoiena.** Eraikuntza ofizial tituladun mutila lanerako gertu debagoienan. Metalak pulitzen eta garbiketarik egiten ere lan egingo nuke. 639-41 68 38.

**Debagoiena.** Taberna edota kafeteria batean arratsaldean egiteko gogoz dagoen neska gaztea. Ikaslea goizetan. 686 -20 18 35.

**Debagoiena.** Mutila gertu arratsalde eta asteburuetan sukaldetan lan egiteko debagoienan. Pintxo, menu eta abarretan eskarmentu handikoa. 666-83 21 95.

**Debagoiena.** Mutila gertu taberna edo kafeterian lan egiteko debagoienan. Baita lorazain, garbiketarik zein nagusien zainketan jarduteko ere. 616 32 90 12.

**Debagoiena.** Neska euskalduna, psikologian lizentziatua, goizetan haurrekin lan egiteko prest debagoienan. Haurrekin esperientzia handia. 685-76 91 11.

**Debagoiena.** Garbiketarik egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest debagoienan. Geriatrian titulua daukat. 691 -03 25 02, 943-54 09 41.

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaindu, mekanikari laguntzaile zein lorazain jarduteko debagoienan. Baita ospitalean gaixoak zaindu zein etxean bertan bizitzen lan egiteko ere. David. 626-36 02 01, 943 -53 21 92.

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko debagoienan. Geriatria eta etxeko laguntzaile titulua daukat. Gida baimena eta legezko paperak ere bai. Luis. 672-91 18 46.

**Debagoiena.** Neska gertu garbitasun lanekin edo nagusi zein umeak zaintzeko debagoienan. Nancy. 636-47 64 92.

**Debagoiena.** Debagoienan, neska gertu tabernan, ume edo nagusiak zaintzen eta garbiketarik lanetan aritzeko. Banaketa lanak ere egingo nituzke. Autoa daukat. 697-20 00 86.

**Durungaldea.** Lan bila nabil. 24 orduz, gauetan edo asteburuetan nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziakin. Geriatria kurtsoa egi, ffla. Papelekin. Tel.: 634-00 82 22

**Durango.** Haurrak zaintzeko eta etxeko lanekin laguntzeko prest dagoen neska euskalduna naiz. Haur txikiak eta partikularrak ematen esperientzia daukat. Kotxe propioa eta durungaldeko herrietan mugitzeko aukera daukat. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu lasai 608-42 70 96 zenbakira. Ainhoa.

**Durungaldea.** Zaintzan edo garbiketarik lan bila. Lanaldi erdian, gauz edo asteburuetan. Esperientziaduna eta erreferentziakin. 636-85 20 59.

**Durungaldea.** Ume edo nagusien zaintzan aritzeko prest. Egunez edo 24 ordutan. Dependentsiadun nagusiak zaintzeko ere bai, baita sukaldetarako laguntzaile edo garbiketarik ere. 676-54 66 91.

**Durungaldea.** 24 orduz pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 602-12 22 45.

**Durungaldea.** Erizain laguntzaile, pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. 608-46 48 44.

**Durungaldea.** Neska arduratsua etxeko lanekin egiteko, nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila dabil. Esperientziaduna eta erreferentziakin. Tel.: 648 -20 03 70.

**Durungaldea.** Neska gaztea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarik (portalak, tabernak) zein etxeko lanekin egiteko lan bila dabil. 24 orduz, lanaldi osoan edo lanaldi erdian. Erreferentziakin. 620-82 85 79.

**Durungaldea.** Emakume arduratsua pertsona nagusie laguntzeko eskaintzen da. 24 orduz, egunez, asteburuetan edo jai egunetan. Erreferentzia askorekin. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 666-75 21 47.

**Durungaldea.** Etxeko lanetarako zein zaindarako prest. 18:00etatik aurrera eta asteburuetan. Tel.: 608-50 40 43.

**Durungaldea.** Lan bila nabil. Etxeak garbitzen esperientzia, baina edozein lan egiteko prest. Tel.: 608-04 21 27.

**Durungaldea.** Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, umeak edo edadekoak zaintzen. Lanaldi osoan edo orduka. Erreferentzia onekin. Tel.: 638-43 79 01.

**Durungaldea.** Lan bila nabil. Edadeko pertsonak zaintzeko edo etxeak garbitzeko. Lanaldi osoan edo erdian. Erreferentziakin. Tel.: 650-61 01 94.

**Durungaldea.** Neska gazte euskalduna ekainean eta uztailean haurrak zaintzeko prest. Tel.: 686-80 96 28.

**Durungaldea.** Emakumea, pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanekin egiteko lan bila. Gauz eta asteburuetan. Deitu: 648-20 03 70 Carmen.

**Durungaldea.** Neska arduratsua eta esperientziarekin nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarik lan bila. 24 orduz, egunez edo orduka. 632-54 34 91.

**Durungaldea.** Egunez edo orduka 10:00etatik 20:00etara nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketarik lan bila. Esperientziarekin. Deitu telefono honetara: 632-15 80 89.

**Durungaldea.** Emakumea lanaldi erdiz lan egiteko prest umeen edo nagusien zaintzan edo garbiketarik. Goiz, arratsalde zein gauz. Esperientzia eta erreferentziakin. Deitu 636 -85 20 59 telefonora.

**Durungaldea.** Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko lan bila dabil. 24 orduz edo egunez. Erreferentziakin. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 638-23 37 39

**Durungaldea.** Emakumea nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketarik lan bila. 24 orduz edo egunez. Papelekin eta erreferentziakin. 650-10 18 31.

**Durungaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko zein kamarero lanetan aritzeko lan bila nabil. Esperientziarekin eta erreferentziakin. Tel.: 630-86 99 21 (Andres Arrieta)

**Durungaldea.** Interna bezala pertsona nagusiak zaintzeko prest. 602-12 22 45.

**Durungaldea.** Nagusiak zaintzen zein garbiketarik lan bila. Lanaldi osoan, baita gauz ere. Tel.: 660 70 66 18

**Durungaldea.** Emakume arduratsua eta esperientziarekin lan bila dabil. Garbiketarik, sukaldarilaguntzaile edo zaintzaile, ume zein nagusi. Arratsaldetan. Erreferentziakin. 670 67 46 41.

**Durungaldea.** Lan bila nabil garbiketarik zein umeak edo nagusiak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest, baita asteburuetan ere. Tel.: 644-63 51 45 / 631-02 29 82.

**Durungaldea.** Neska astearte eta asteazkenetan edo orduka lan egiteko eskaintzen da. 672 -69 91 52

**Durungaldea.** Edozein lantegitan lan egiteko prest. Eraikuntzan izan ezik. Tel.: 672-58 47 58 (Thomas), 644-07 49 14 (Enock)

**Durungaldea.** Emakume bat, pertsona nagusiak, garbiketarik lan eta sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko prest. 9:00etatik aurrera. 686-19 00 24.

**Durungaldea.** Esperientzia duen pertsona, erreferentzia onakin eta papelekin, asteburuetan, 24 orduz edo egunez, pertsona nagusiak zaintzeko prest. Bizkaia osoan. 660-71 67 89.

**Durungaldea.** Garbiketarik lan edo pertsona nagusi zein umeak zaintzeko prest. Orduka tel.: 638-43 79 01 (Jova)

**Durungaldea.** Lan bila nabil. Lorezaintzan esperientzia, baina edozein lanetan aritzeko prest. Tel.: 645-05 35 23.

**Durungaldea.** Mutil arduratsua lan bila, lorezaintzan, nagusiak zaintzen edo altxairu montatzaile moduan. Esperientziarekin. Tel.: 676-11 21 74.

**Elorrio.** Irailetik aurrera, arratsaldetan, umeak zaintzeko prest (Elorriko). Esperientzia handiarekin. Informazio gehiagorako deitu 688-64 06 04.

**Elorrio.** Adineko pertsonak paseatzera ateratzeko prest. Goiz zein arratsaldetan. Deitu 688-64 06 04 telefonora.

**Elorrio.** Haur hezkuntza eta Hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte euskalduna, arratsaldez haurrak zaintzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! Interesa baduzu, deitu: 688-64 06 04.

**Elorrio.** Irailetik aurrera, arratsaldetan, umeak zaintzeko prest (Elorriko). Esperientzia handiarekin. 688-64 06 04.

**Elorrio.** Adineko pertsonak paseatzera ateratzeko prest. Goiz zein arratsaldetan. Deitu 688-64 06 04 telefonora.

**Elorrio.** Haur hezkuntza eta Hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte euskalduna, arratsaldez haurrak zaintzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! 688-64 06 04.

**Elorrio.** Emakume bat behar da, aukeran euskalduna, ume bat zaintzeko. Asteazkenetan edo orduka lan egiteko eskaintzen da. Urritik aurrera. 687-48 47 30.

**Oñati.** Pertsona euskalduna behar da bi ume zaindu eta etxeko lanekin egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 658-74 75 48.

**Zumaia.** 36 urteko gitarrista berbera edo beste proiektutan edo taldeetan jotzeko prest .... Abestea ere posible izango nuke... Esperientziaduna... Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 666-27 40 55.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Kitarra eskolak Oñatin.** Kitarrako eskola partikularrak emateko prest dagoen pertsona batetan interesatuok gaude. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626 75 61 12

### 502. EMAN

**Abadiño.** Fisika / kimika eta marrazki teknikari irakasle bila nabil akademia baten lan egiteko prest. Ordu batzukastero. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637-41 64 38.

**Bergara.** Ingelesko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Talde txikietan. Azterketak prestatzeko: Cambridge eta HEU. Baita enpresarako eskolak ere. Goizez, eguerdian edo arratsaldetan. Interesatuok deitu telefono honetara: 618 91 32 89

**Durungaldea.** Alemaniarazko klaseak ematen ditut. Metodo atsegina. Adin guztiak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 670-79 33 12.

**Elorrio.** Lehen hezkuntzako edozein kurtsoa zuzenduta, arratsaldez klase partikularrak emateko prest. Hezkuntza berezia eta Haur hezkuntza ikasketak ditut eginak. Interesa baduzu jarri harremanetan nirekin: 688 -64 06 04.

**Elorrio.** Lehen hezkuntzako edozein kurtsoa zuzenduta, arratsaldez klase partikularrak emateko prest. Hezkuntza berezia eta Haur hezkuntza ikasketak ditut eginak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 -64 06 04.

**Tolosa.** Lehen hezkuntzako eta haur hezkuntzako irakasle ikasketak dituen esperientziadun neska arduratsua klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko prest agertzen da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 620-00 8 925.

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana.** Fiat Ducato 2900 salgai. Sei pertsonendako. "Sei gau sei egun". 2006koa. 66.000km. Deitu 669 53 97 03 telefonora.

**Autokarabana.** Ford 2.4 Benimar Trigano 460. 2007koa. 22.000 km. 5 plaza. 666 40 65 19

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALGAI

**Behorra eta moxala salgai.** Behorra eta bere 4 hilabeteko moxala salgai. Deitu 15:00 etatik 18:00 etara 679-23 47 46 telefono zenbakira.

**Gorbeia ardi txakur kumeak salgai.** Gorbeia ardi txakur kumeak salgai. Uztailean 1ean jaiota. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 690 -20 55 36. Mikel

### 703. EMAN

**Katakumak opari.** Lau katakuma beltz-beltzak oparitzen dira. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 606-70 91 18.

**Katakumak opari.** Katakumak ematen dira opari Debagoienan. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 626-12 57 47.

**Txakurkumeak opari.** Txakurkumeak oparitzen dira. Deitu 633-87 05 51 telefonora.

## 704. BESTELAKOAK

**Artzai txakur zuria galdu.** Abuztuaren 13an Bedona inguruan, Arrasate, artzai txakur zuria galdu zen. Oso alai eta beti jolasteko gogoz. Lepoko marroixkadak. Ikusibaduzue mesedez telefono hauetara deitu. 665-71 44 76, 653-70 33 44.

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Anplifikagailua.** Marshall JCM 2000 TSL 602. Gitarra amplifikagailua salgai. 60 watio, balbulekin eta 12 bozgorailu birekin. Hiru kanal ditut: clean, crunch eta lead. Hrd-case kuxarekin. Interesatuok gogoz gero deitu telefono zenbaki honetara: 697 -28 59 48.

**Apple MacBook Pro.** 15 hazbeteko Apple MacBook Pro (2010eko erdialdea) ordenagailu eramangarria salgai. Core i7 prosezagailua, 8Gb-eko RAM memoriaduna, Mac OS X Lion Sistema eragilearekin. Egoera ezin hobea 1000 euro. Interesatuok gogoz gero deitu telefono honetara: 605 98 37 06

**Altzariak salgai.** Altzariak salgai: ohearen estruktura eta bi mahaitxo. Diseinu modernoa. Neurriak 1,50m x 1,90m. Berri-berria dago (urte bete). Prezioa 450euro (bere salneurria denda 1.800euro), koltxoia. Neurriak 1,50m x 1,90m. Prezioa euro, ikasteko mahai zuria. Berri-berria dago. Prezioa 50euro. umeen logelarako bost kaxoidun sinfoniera. Prezioa 85euro, Banak markako egurrezko apalak. Prezioa 150euro, Banak markako mahai baxua. Prezioa 65euro. Interesatuok gogoz gero deitu telefono zenbaki honetara: 610 -41 55 11.

**Armairua eta ohea salgai.** Haritzeko armairua eta ohea salgai. 1.000 euroan saltzen dut. Negoziazarriak. Interesatuok gogoz gero deitu telefono zenbaki honetara: 600-64 90 96.

**Bernedo.** Lursail eraikigarria urturin salgai dago, bernedon. Gasteizetik 40km-tara dago, eta izkiko golfetik 3minututara baino ez. 308m2 eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk ditut; baita golfeko hotela ere. Interesatuok gogoz gero deitu telefono zenbaki honetara: 665-75 78 07 (Ana)

**Chico markako karrotxoa salgai.** Chico markako karrotxoa salgai. Prezioa 50euro. Interesatuok gogoz gero deitu zenbaki honetara: 610 -41 55 11.

**Furgonetako abantza salgai.** Furgonetako Sebring modeloko abantza salgai. Guztiz zarratzen da. Neurriak: 370x310 alt 210. 1740ko pisua. Barruko gela dago (200x170) eta lurra. aretxalarra@yahoo.es

**Haurrak bizikletan eramateko aukia salgai.** Haurrak bizikletan eramateko aukia salgai. Erosoa eta merkea. Interesatuok gogoz gero deitu telefono zenbaki honetara: 679 -17 43 67 (Javier)

**Igerilekurako sarrerak.** Durangoko San Inazio auzoko igerilekura ekainetik-irailera joateko lau sarrera ditut, kuota 135 eurokoa da, beraz, hori

ordainduz gero lau sarrerak emango nituzke. Egoera oneko igerilekuak dira, orain berritu berriak. Umeekin zein pertsona nagusiekin joateko ezin hobeto daude. Interesatuok gogoz gero deitu zenbaki honetara: 656-79 11 18.

**Izozkailua.** Egoera onean dagoen izozkailua (arkoia) salgai. Fagor markakoa. Zakonera 65cm, altuera 90cm eta zabaleria 1,50m. Interesatuok gogoz gero deitu zenbaki honetara: 94-681 37 84 (gauz).

**Silver Cross kapota salgai.** Silver Cross markako kapota salgai. Berri-berria. Prezioa 650euro (bere prezioa 1.500euro da). Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 610-41 55 11.

## 802. EROSI

**Estetika tresnak.** Estetika tresnak erosteko prest nago. Kamilak eta abar. Interesatuok deitu 619 87 95 57 telefono zenbakira.

**Zilarra erosten dut.** Zilarrezko gauzak erosten ditut: txanponak, etxeko kuberteria eta abar. Harremanetan jartzeko, deitu: 657-70 43 16 edo idatziz numpega@gmail.com helbidera.

## 806. GALDU

**Patinete larrosa.** Abuztuaren, Aretxabaletako Dagda Irish Pub inguruan patinete larrosa galdu genuen. Nora izena eta 679 49 40 27 telefono zenbakia dauka idatzita. Inork aurkitu badu, mesedez deitu telefono zenbaki honetara. 669 19 57 17 edo 679 49 40 27

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Kotxea konpartitu.** Astelehenetik ostiralera Durangotik Elorriara joateko kotxea konpartitu nahi dut. Elorriko goizeko 8:00etarako egon behar naiz. Gastuak erdibana. Tel.: 633-01 68 32. Javier

**Durangon bazkide bila.** Bazkide berrien bila gabilta, txoko salabarriren parte izateko (mendizabal auzuean). Interesatuok deitu 650-49 90 74 zenbakira. Kopuru mugatua!

# BASOAREN ENERGIA



GOIENA TELEBISTA | ERREPORTAJEA | JAKOBA ERREKONDO PAISAJISTAREKIN ELKARRIZKETA  
IRAILAK 9, 22:22 | IRAILAK 10, 21:25 | JULEN IRIONDOK AURKEZTUA

# Seigarren iPhone modeloa aurkeztuko dute etzi

- ▶ Berrikuntza nabaririk ez da espero, baina ezustekoak itzarotekoak dira
- ▶ Txinan dagoeneko 'klon' bat merkaturatu dute

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Eguaztenean, hilak 12, aurkeztuko dute iPhone berria, San Franziskon. Dagoeneko gonbidapenak jaso dituzte berriemaile baimenduek. Aurkezpenen berean horrenbesteko zeresana piztu duen iPad Minia ere aurkeztuko dutela esaten da. Gabonetako kanpainari begirako aurkezpena da, zalantza barik, eta ikusi behar da Applen sakelakoaren bertsio berriak zer-nolako berrikuntzak dakartzan. Salgai urrian 5ean jarriko lukete.

Jauzi teknologiko handirik ez da etorriko, itxura guztien arabera, iPhoneen azken eguneraketetan gertatu den moduan. Pantailan hobekuntzak eta elikatze eta transmisiorako kable sarreran diseinu berria egongo dela da, behin eta berriz, aipatzen dena, baina ezusteko handi barik. Hala, aspaldiko espektazio gutxiaren espero da iPhone berria eta baliteke horregatik oraingoan benetako berrikuntzak aurkeztea, sorpresaren mesedetan.



GooPhonek kaleratu duen iPhonearen klon. | ALTI040.COM

## Seigarren iPhonea

Seigarren modeloa izango da etzi aurkeztuko dutena. Izenez, baina, ematen du iPhone 5 izango dela. Sarean azaleratutako informazio askoren arabera, pantailaren hobetzea izango da terminal

berriaren gako nagusia; lau hazbetekoa eta 16:9 ratiara gerturatu den erresoluzioarekin. Oso fina izango zuela esaten zuten iturri gehienek, baina filtratutako azken argazkiek erakusten dute iPhone 4 aedo 4Sren oso

antzerakoa izango dela, baina atzeko panela kenduta; Samsung Galaxy SII edo HTC One Sren antzerako neurrietan kokatuko da telefono berria.

Sistema eragileari dagokionez, iOSen seigarren bertsioarekin etorriko da mugikor berria. Sistema berriak ere nobedade oso aipagarrik ez dakar, baina bai hobekuntza asko. iPad txikiago bat ere aurkeztuko dutela esaten dute espezializatutako webgune baten baino gehiagotan, eta ezin da ahaztu aspalditik gorde samar darabilten proiektu zaharrari bultzada berria emateko lanetan ere ibili direla azken urteetan: Apple TV delakoa. Oraindik ez du arrakastarik izan Applen telebistarako proposamenak, baina baliteke oraingoan produktu berritzaile batekin asmatzea.

Zurumurrak edozein direla ere, horietan esaten zena oso ondo jarraitu dutenak Txinako GooPhone konpainiakoak izan dira, modeloaren aurreikuspen horiek jaso eta dagoeneko *klonatu*tako modeloa merkaturatu baitute, i5 izenarekin. Are gehiago, Apple etxeari berari mehatxu egin diote Txinan iPhonearen modelo berria merkaturatuz gero, salatu egingo dituztela, eurek atera baitute lehenengo merkatura, eta horregatik, originala euren izango litzatekeelako. Kanpoko itxuran iPhone 5en berdina izango litzateke Txinako modeloa, baina iOS barik Android 4.1 sistema darabil.

## FBI eta Apple lotu dituen polemika ez da isildu

J.B. | ARRASATE

Applek FBI agentziari iPhone eta iPadetako identifikazio zerbakiak ustez eman izanak hautsak harrotu ditu, AnticSec kolektiboak azaleratu duenez. Hacker kolektibo horrek FBIko agente baten ordenagailu eramangarriak hackeatu eta bertan 12 milioi iPhone eta iPaden identifikazio kodeak eta haiekin lotutako informazio pertsonala eskuratu dutela jakinarazi zuen.

Eguenean, albistea jakin bezain laster, FBIk guztiz gezurtatu zuen halakorik gertatu izana. AntiSec-ekoek diote, hala ere, Christopher K. Stangle agente bereziaren ordenagailuak sartu eta bertako fitxategi batetik milioi bat kode atera dituztela, eta, horrez gain, beste 12 milioi kode ere badauzkatela erabiltzaileen informazioarekin. Kolektibo horrek salatu gura du FBIk informazio hori darabilela erabiltzaileak zelatatu eta jarraitzeko. Kolektiboak hackeaturako milioi bat kode askatu ditu Interneten informazio pertsonal konprometigarria, ezabatuta erabiltzaileak Apple eta FBI egiten dabiltzan erabileraz jabetzeko helburuarekin.

Applek ere eman du erantzuna guztia gezurtatuz eta esanez FBIk ez duela sekula halako informaziorik eskatu, ezta Applek inoiz eman ere.



TECHCRUNCH.COM

## Kindle Fire berria, aurkeztuta

Modelo berriarekin orain prezioa zenbat murriztu ahal izango duten da galdera. Kindlearen eta ohiko tableten ezaugarriak batzen ditu Fire modeloak. Amazonen estrategia ez da oinarritzen gailuen salmentan, gailu horietan kontsumituko diren edukien salmentan baizik, eta horregatik oso merke merkaturatzeko aukera ikusten da.

## Bilaketa eta zerrendendako 'widget' txertagarri berriak ditu Twitterrek

J.B. | ARRASATE

Erabilpen arauak aldatuta, garatzaileei Twitterretik APIak egiteko mugak estutu dizkiete. Hala ere, Twitterrek berak atera ditu dagoeneko *gadget* berriak *timeline*-ak, zerrendak edo bilaketak HTMLn txertatu ahal izateko.

Orain arte zeuden *widget*-en aukerak eskaintzen dituzte

garapen berriek, baina estekak emateko moduan, adibidez, berrikuntzak egin dituzte. Bilaketa eta etiketa zehatzagoak jartzeko aukera gehiago dago aurrerantzean eta diseinurako bide berriak ere ematen dituzte edozein erabiltzaileendako eskuragarri, argazkidun loturak ikusteko modu berriekin, esate baterako.

## Kablerik gabeko 'streaming'-a ekarriko du HBO kateak Europara

J.B. | ARRASATE


Kultuzko telesailetan espezializatu den telebista kateak *streaming* zerbitzua ipiniko du abian. Telebista kate batek, modu independentean, bere zerbitzua eskaintzen duen lehen aldia izango da, eta baliteke horrek bidea zabaltzea. Telesailetan erreferentzia da, gainera, HBO kateak duen kalitate eta ekoizpen historikoengatik.

Europar hasiko dira zerbitzu berritzaile horrekin, eta, zehazki, herrialde nordikoak izango dira zerbitzua izaten lehenak, HBO Nordic AB izena izango duena, Suedia, Norvegia, Finlandia eta Danimarkan. Emisiorako ez da kable edo bestelako konexiorik behar, Internetarako

sarbidea bakarrik, eta hileko 10 euro izango da kuota. Ameriketako Estatu Batuetan emititzen diren telesail guztiak eskainiko ditu zerbitzuak, baita estreinaldiak direnak ere.

### Negozio bide berria

HBOk *streaming* zerbitzu horrekin bi nobedade nagusi ekarriko ditu *on line* kontsumoan: batetik, telebista kate bat da bere edukia eskaintzen dituen; eta bigarrenik, harpidetza barik jaso daiteke edukia, ordainketa soil batekin eta dekodetzaile edo kablerik gabe. Negozio modu alternatiboa eskaintzen da horrela, eta HBOk irekitako bide horrek ezar dezake joera nagusia.



Game of thrones da HBOren telesail arrakastatsuneetako bat.

## Facebookeko aplikazioen publikazioarekin kontuz

J.B. | ARRASATE

Aplikazio gehigarriek zein jolasek erabilpen berriak ekarri dizkiete Facebookeko erabiltzaileei, baina horietako gehienek, %63k, behin bainena emanda, automatikoki publikatzen dute, erabiltzaileari jakinarazi barik.

*Secure.me* webguneak Facebookeko 500.000 aplikazio eta jolas aztertu ditu eta emandako datu hori kaleratu dute. Hori bakarrik ez, aplikazioen %69k e-postarako sarbidea ere eskaintzen dute, baimen horrekin erabiltzailearen urtebetetze data jaso dezake edo haren kontaktuen bestelako informazioa ere. Aplikazio gehienetan, gainera, aukera hori ezin daiteke desgaitu eta erabili ahal izateko nahitaez onartu beharra dago.

## TELE-BEGI

OHIAN  
VEGAFutbolaren  
izenean... amen!

Jainkoak bedeinka deza la futbola! Masa soziala telebistari itsatsita igarotzen ditu igande arratsaldeak, bueno, eta oraingo ordutegi berriekin, aste-buru osoa eta baita astebarruko egunak ere...

Espainiako selekzioaren garaipenak erabateko tabuarekin ospatu dira Euskal Herrian barrena, hemorroideak bezala: ixilpean. Eurocopa irabazi bitartean, guri 'Eurocopagoa' sartu digute. Baina gu ez gara enteratu, lanpeturik geunden udako fitxaketa berriak errepasatzen, telefutbola ikusten.

Ez dagoela dirurik? Galdetu Athletic Clubari, 200 milioi euro xahutuko ditu futbol zelai berria egiten, Jauriaritza eta Diputazioaren diru publikoarekin, jakina. Realzale amorratuok ez ezazue barrerik egin, Donostiako udalean proposamen berria jarri baitute mahai gainean 65 milioiko gastu publikoa Anoeta berria egin eta atletismo pista madarikatuak kentzeko. Nork egiten du barre orain? Eta non entrenatuko diren atleta gazteak pistarik gabe? Nori axola dio horrek? Ezin duzula zure hipoteka ordaindu? Lasai! Telefutbola dagoen bitartean gainontzeko guztiak balio du...

## ASTEA GOIENAN

## GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 10



## Gatzagako jaiak

Gatzagako jaiak eskainitako tartea izango da *Magazinea*-n. Otxandioarrek egindako bazkaria... | 20:15

12:20 Erreportajea: Ekonomia berdea: berde-berdea?

12:55 Zorion Agurrak

13:00 Onein

13:28 Nere herrie

14:14 Ekogune

14:45 Berriak

15:05 Eguraldia

15:08 Zorion Agurrak

15:13 Taula gainean

15:43 Erreportajea: Kontsumoaz arduratu, arduraz kontsumitu

16:13 Erreportajea: Balkoia... baratze!

16:45 Berriak

17:05 Eguraldia

17:08 Onein

17:36 Jaiak: Ordiziako Euskal jaiak

18:02 Ekogune

18:32 Nere herrie

19:18 Bizitegia

19:48 Berriak

20:10 Eguraldia

20:15 Magazinea

21:00 Berriak

21:20 Eguraldia

21:25 Erreportajea: Basoa, energia iturri

21:55 Magazinea

22:40 Erreportajea: Basoa, energia iturri

23:10 Berriak

MARTITZENA, 11



## Musikaz gain

Lain taldea taldearen ibilbide eta etorkizunari buruz hitz egiteko aukera izango dugu oraingoan. | 22:29

12:25 Magazinea

13:10 Zorion Agurrak

13:15 Erreportajea: Basoa, energia iturri

13:45 Ekogune

14:15 Jaiak: San Bartolomeak

14:40 Zorion Agurrak

14:45 Berriak

15:05 Eguraldia

15:08 Erreportajea: Basoa, energia iturri

15:38 Jaiak: San Bartolomeak

16:03 Ur eta lur

16:48 Berriak

17:08 Eguraldia

17:11 Erreportajea: Kontsumoaz arduratu, arduraz kontsumitu

17:41 Bizitegia

18:11 Erreportajea: Basoa, energia iturri

18:41 Laino arteko plana

19:13 Musikaz Gain

19:23 Ekogune

19:53 Berriak

20:13 Eguraldia

20:16 Magazinea

21:01 Zorion Agurrak

21:06 Berriak

21:26 Eguraldia

21:29 Harira

21:59 Ekogune

22:29 Musikaz Gain

22:40 Magazinea

23:25 Walker

23:55 Berriak

00:15 Eguraldia

EGUAZTENA, 12



## Erreportajea

'Ekonomia berdea: berde-berdea?' Unai Pascualekin ekonomia beste ikuspuntu bat. | 15:48

12:30 Magazinea

13:15 Zorion Agurrak

13:20 Harira

13:50 Jaiak: San Bartolomeak

14:15 Erreportajea: Basoa, energia iturri

14:45 Zorion Agurrak

14:50 Berriak

15:10 Eguraldia

15:13 Onein

15:48 Erreportajea: Ekonomia berdea: berde-berdea?

16:28 Zorion Agurrak

16:33 Musikaz Gain

16:43 Berriak

17:03 Eguraldia

17:06 Erreportajea: Basoa, energia iturri

17:36 Zorion Agurrak

17:41 Musikaz Gain

17:51 Musikaz Gain

18:01 Harira

18:34 Nere herrie

19:20 Laino arteko plana

19:52 Berriak

20:12 Eguraldia

20:17 Magazinea

21:02 Lehiaketa

21:17 Berriak

21:37 Eguraldia

21:42 Magazinea

22:27 Erreportajea: Ekonomia berdea: berde-berdea?

23:07 Berriak

23:27 Eguraldia

EGUENA, 13



## Erreportajea

'Kontsumoaz arduratu, arduraz kontsumitu' erreportaje interesgarria izango da ikusgai egunean. | 17:12

12:30 Magazinea

13:15 Zorion Agurrak

13:20 Musikaz Gain

13:30 Tertulia

14:00 Jaiak: Ordiziako Euskal jaiak

14:30 Musikaz Gain

14:40 Zorion Agurrak

14:45 Berriak

15:05 Eguraldia

15:08 Ur eta lur

15:53 Erreportajea: Balkoia... baratze!

16:21 Walker

16:49 Berriak

17:09 Eguraldia

17:12 Erreportajea: Kontsumoaz arduratu, arduraz kontsumitu

17:42 Onein

18:17 Taula gainean

18:43 Walker

19:13 Laino arteko plana

19:43 Zorion Agurrak

19:48 Berriak

20:08 Eguraldia

20:12 Magazinea

20:57 Laino arteko plana

21:32 Berriak

21:52 Eguraldia

21:55 Taula gainean

22:25 Walker

22:55 Magazinea

23:40 Erreportajea: Ekonomia berdea: berde-berdea?

00:15 Berriak

00:35 Eguraldia

EGUBAKOITZA, 14



## Erreportajea

'Balkoia...baratze!' izena daraman erreportajea. Etxean baratztea jartzen ikasteko aukera | 16:17

12:30 Magazinea

13:15 Zorion Agurrak

13:22 Walker

13:52 Onein

14:20 Taula gainean

14:42 Zorion Agurrak

14:49 Berriak

15:09 Eguraldia

15:12 Laino arteko plana

15:47 Bizitegia

16:17 Erreportajea: Balkoia... baratze!

16:47 Berriak

17:07 Eguraldia

17:10 Nere herrie

17:56 Harira

18:29 Erreportajea: Ekonomia berdea: berde-berdea?

19:04 Berriak

19:24 Eguraldia

19:27 Goierri Creation Center

19:53 Harira

20:26 Berriak

20:46 Eguraldia

20:49 Musikaz Gain

21:00 Ekogune

21:30 Berriak

21:50 Eguraldia

21:53 Goierri Creation Center

22:19 Ekogune

22:49 Esatea libre

23:59 Taula gainean

00:19 Berriak

## ARRASATE IRRATIA

## Aukearen kirol eskaintza datorren denboraldi berrirako

Aukeako kideekin egongo gara Arrasate Irratian, ikasurte berriko eskaintza zein den azaltzeko, eta martxan jarri dituzten proiektu berriei buruz mintzatzeko: gimnasioa, gazteei bideratutako eskaintza berezia...Kirola egiteko gogoia baduzu, aprobetxa ezazu aukera hau.

## Kulturate akustiko jardunaldietan murgilduko gara

Kulturatek antolatu dituen kontzertu akustikoetan parte hartuko duten taldeen berri emango dugu. Taldeen musika ezagutu, eta horietako batzuekin egongo gara, 107.7 uhinetan. Sons of The Delta edo Javier Corcobadoren musikaz gozatzeko aukera paregabea.

## Pitxi Herreroren omenaldiari buruzko solasadia

Ane Herrero, eskubaloi entrenatzailea eta Pitxi Herreroren alaba, izango dugu gurekin. Urtero, Pitxiren omenez egiten den omenaldiaren berri emango digu eta datorren asteko hitzordua zertan datzan azalduko digu, kirolari eskainitako tarte honetan. Hori guztia eta gehiago, 107.7aren uhinetan.

## TELE-ALBISTEAK

Jon Peli Uriguen  
diputatua izango da  
'Harira' saioan

Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo diputatua, Eneko Azkarateren gonbidatu martitzenean



Jon Peli Uriguen diputatu elgoibartarra. | BILDU

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Jon Peli Uriguen elkarrizketatuko du Eneko Azkaratek martitzenean 'Harira' saioan. Berrikuntza, ikerketa eta garapena bultzatzeko edota Gipuzkoako enpresei nazioartekotzen laguntzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak abian dituen ekimenak errepasatuko dituzte. Era berean, nekazaritza eta landa guneak bultzatzeko ekimenen berri ere emango du diputatuak. Horretaz gain, turismo kontuak ere izango dituzte aztergai. Aurtengo uda zela joan den lurraldean, gurera datozen bisitarien tipologia eta abar. Elgoibarko Udalean euskara batzordeburua izana da Jon Peli Uriguen. Ardura berria, osteria, iazko uztailan hartu zuen Uriguenek. EAren alkategaia izan zen Elgoibarren 2007ko hauteskundeetan.

## Denboraldi berria

Martitzenean 21:30ean hasita izango da Uriguen Goiena Telebistako platoan, Gipuzkoako Foru Aldundiko bere sailari dagokion gaien gainean jarduteko.

## 'Harmailatik' saioaren denboraldi berria heltzear dago, futbolaren batera hasiko da

Gaur zortzi, 'Harmailatik' saioaren denboraldi berriari ekingo diogu, futbol denboraldiaren hasierarekin bat. 'Aste on' eta 'Planik bai?' saioak ere datorren astetik aurrera egongo dira ikusgai, egubakoitz eta eguenetan.

## Oñatiko farmazien ordutegia

Egubakoitzeko goiena paperean, Oñatiko farmazien ordutegiko informazioa ez zen zuzena. Hurrengo taulan dago ordutegi eta farmaziei dagozkien informazio zuzena. Barkatu eragozpenak.

## FARMAZIAK

OÑATI			
Astelehena, 10	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 11	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguaztana, 12	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 13	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Egubakoitza, 14	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58

## ZORION AGURRAK



ARRASATE  
**Haizea Arenaza Pagaldai**  
Irailaren 16an, 6 urte.  
Zorionak, printzesa, eta patxo pilo bat etxeke danon partetik. Ondo pasatu igandean.



ARRASATE  
**Imanol Loiti Montero**  
Irailaren 15ean, 8 urte.  
Zorionak, Imanol! Jaso itzazu patxo potolo pila bat familia eta lagun guztien partetik. Segi horrelako majo!



ARRASATE  
**Jon Eraña Garcia**  
Irailaren 15ean, 6 urte.  
Zorionak, mutikote! Sei muxu handi zuretako danon aldetik, batez be Anartz, Unai, Urko, Manex eta Galderren partetik.




OÑATI  
**Markel Elorza San Miguel**  
Irailaren 14an, 6 urte.  
Zorionak, Markel! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna familia eta lagun guztiekin. Muxu handi bat etxeke guztien partetik!



ARETXABALETA  
**Jokin Larrañaga Madinabeitia**  
Irailaren 14an, 6 urte.  
Aupa, txapeldun! Azkenean iritsi da zure urtebetetze eguna. Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo bat etxeke partetik. Txalo bat!



ARETXABALETA  
**Danel Lanzos Erostarbe**  
Irailaren 13an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Gure "txikitok" sei urte betetzen ditu ostegunean! Uau! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi eta potolo bat etxeke guztien partetik.



BERGARA  
**Ander Gonzalez Martinez**  
Irailaren 12an, 8 urte.  
Zorionak gure mutil jatorrenari. Aurtengo udan primeran pasatu ondoren ikastolan gogotsu eta pozik ekitea opa dizugu. Muxu handi bat etxeke, eta batez ere, Garazi eta Markelen partetik. Ondo pasatu zure eguna, maitia!



OÑATI  
**Mikel Arza Maiztegi**  
Irailaren 10ean, 7 urte.  
Zorionak, Mikel! Besarkada handi bat etxeke partetik. Jarraitu horrelako mutil jatorra izaten!



BERGARA  
**Paula Garcia**  
Irailaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak, bihoz! Ama eta aitaren partetik.



BERGARA  
**Andrea Vicente eta Bladi Agirrebeña**  
Irailaren 9an eta Bladi 10ean. Muxu handi bat etxeke guztien eta batez ere Suhar, Oier, Ibai eta Julenen partetik.



ARRASATE  
**Ramon Balerdi eta Aner Iriarte**  
Irailaren 9an, bion urtebetetzea. Zorionak eta ondo pasatu zuen eguna. Familia guztia partetik.



BERGARA  
**Oier Garitano Agirre**  
Irailaren 8an, urtebete. Zorionak, Oier! Ondo-ondo pasatu eguna. Etxekeen partetik.



ELGETA  
**Nerea Canelo Ubera**  
Irailaren 5ean, 8 urte.  
Zorionak eta muxu handi bat etxeke danen partetik. Ondo-ondo pasatu eguna.



BERGARA  
**Ziortza Ibaibarriaga Bengoa**  
Irailaren 7an, 10 urte.  
Zorionak, printzesa. 10 muxu potolo etxeke partetik. Ea kurtsio hasiera beste egun batera aldatzen duten hurrengo urtean.



BERGARA  
**Ane Mendia Beldarrain**  
Irailaren 7an, urtebete.  
Lehen urtebetetze honetan muxuz beteriko eguna izan dezazun, etxeke guztien partetik zorionak!



ARRASATE  
**Igtz Ramos Zumalde**  
Irailaren 6an, 8 urte.  
Zorionak, Igtz, eta oso ondo pasatu! Patxo potolo bat etxeke partetik eta batez be, hain maite zaituzten Izadi eta Iraiaren partetik. Igtz, horrela jarraitu!



ARRASATE  
**Aitziber Zumalde Pagoaga**  
Irailaren 6an, 34 urte.  
Zorionak, amatxo-izeko! Ondo-ondo pasatu zure egunien, eta patxo handi bat etxeke hiru piraten partetik!



OÑATI  
**Maidier eta Beñat Urmeneta Obeso**  
Irailaren 6an, Maidierrek urtebete eta Beñatek 4 urte.  
Zorionak eta ondo pasatu zuen urtebetetzian. Marendolan ospatuko dugu. Mila muxu familiararen partetik.



ARRASATE  
**Ines Gardoki Garro**  
Abuztuaren 11n, urtebetetzea. Zorionak, tia Ines!



OÑATI  
**Helene Kortabarria Otxoa-Aizpurua**  
Abuztuaren 12an, urtebete. Zorionak, Helene, zure lehenengo urtebetetzian! Patxo handi bat etxeke danen partetik, preziosa!



ANTZUOLA  
**Danel Rodriguez Jauregi**  
Abuztuaren 9an, urtebete.  
Zorionak zure lehen urtebetetzian, maitia, amatxo, aitatxo, zure anaia Xuban eta etxeke partetik.



BERGARA  
**Jokin Askargorta Aranzabal**  
Abuztuaren 3an, 8 urte.  
Zorionak, Jokin! Uda oso polita pasatu dogu, eta zure urtebetetze eguna ere halakoa izan da. Muxu handi bat etxeke partetik, eta segi horrelako mutiko jatorra izaten. Beñat, aitatxo, amatxo eta aitxitxa-amamak.

## Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Sar zaitetz [Goiena.net](http://Goiena.net) atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.com](mailto:zorionagurra@goiena.com) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK



**OÑATI**  
**Maritzu Larrañaga**  
Irailaren 12an, 71 urte.  
Zorionak, amama! Asko maite zaitugu. Ondo pasatu eta muxu potolo bat. Malen eta Gariaren partetik.



**ARRASATE**  
**Naiara Garcia Bolinaga**  
Irailaren 12an, 36 urte.  
Zorionak, izeba! Patxo handi bat denon partetik, batez be Anartz, Jon eta Galderrek.



**OÑATI**  
**Oihan eta Kepa Cuesta Billar**  
Oihanek irailaren 11n 3 urte eta Kepak irailaren 12an urtebete. Zorionak bixoi eta ondo-ondo pasatu zuen egunak. Patxo handi bat etxeko danon partetik!



**ELGETA**  
**Felix Irizar**  
Irailaren 11n, urtebetez. Zorionak, aitaxo! Muxu potolo-potolo bat Jon eta Ziortzaren partetik. Ondo-ondo pasatu egune!



**OÑATI**  
**Izeia Ibabe Ayastuy**  
Irailaren 10ean, 8 urte. Zorionak, gure printzesa! 8 urte betetzen dituzu eta zure inguruko guztiok zoriontsu egin gaituzu urte hauetan. Horrela jarraitu! Muxu bero-bero bat zuretzat familiaren partetik! Maite zaitugu.



**OÑATI**  
**Itziar Landeira Guridi**  
Irailaren 3an, 21 urte. Zorionak, Itzi! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta disfrutatu, merezi dozu-eta. Muxu asko eta besarkada bat etxeko danan partetik.



**ARETXABALETA**  
**Izar Zuazo Oianguren**  
Irailaren 2an, 5 urte. Zorionak, izar! Unax, aitaxo eta amatxoren partetik. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu potolo bat, pittin!




**ARRASATE**  
**Alaitz Abasolo Etxabe**  
Irailaren 1ean, 9 urte. Zorionak, printzesa! Familia eta lagun guztien partetik!



**ARRASATE**  
**Iraia Prol Barbero**  
Abuztuaren 27an, 2 urtetxo. Aitaxo eta amatxoren partetik, zorionak eta patxo handia, printzesa!



**ARAMAIO**  
**Paulo Gardoki.**  
Abuztuaren 27an Paulo Gardokik 90 urte bete zituen. Zorionak familaxako danen partetik, handixenetik txixxenera arte! Zorionak, aitaia!



**ARETXABALETA**  
**Magali Lazpiur Eraña**  
Irailaren 8an, 2 urte. Zorionak, poxpolin! Ondo-ondo pasatu zure eguna primotxo eta lagunaren artean. Patxo potolo bat denon partetik!



**OÑATI**  
**Maddi Murguzur Lizarralde**  
Irailaren 8an, urtebete. Zorionak, poxpolin! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxekuen partetik, bereziki Aitor eta Beñatek.



**ESKORITAZA**  
**Malen Bengoa Muxika**  
Irailaren 7an, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Patxo handi bana danon partetik eta bereziki Itziar eta Oxelen partetik.



**BERGARA**  
**Aratz Etxeberria eta Sua Sanchez**  
Irailaren 6an, 4 urte. Lau, lau, lau... sardina bakalau. Zorionak, bikote! Muxu handi bana maite zaituztegun guztien partetik,...



**BERGARA**  
**Unax Anakabe Iturbe**  
Abuztuaren 23an, urtebete. Zorionak zure lagun eta familia guztien partetik.



**ARRASATE**  
**Nebat Roo Casais**  
Abuztuaren 21ean, 26 urte. Zorionak, aitaxo! Patxo handi bat!



**OÑATI**  
**Mikel Guridi Murua**  
Abuztuaren 14an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Oporretan ospatuko dogu tarta goxo batekin! Patxo handi bat etxeko danon partetik!

JAIOTAKOAK

**Jaio da!**



Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.

Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batera.




**Irati Arantzeta Iribar**

Elgeta. Kilo. Abuztuaren 31. Gurasoak: Ainara eta Eñaut. Argazkian, Irati jaioberria sehaskan bizi-bizi.



**Izar Uriarte del Campo**

Oñati. 3,630Kilo. Irailaren 4a. Gurasoak: Jessica eta Aitor. Argazkian, Izar gurasoekin.



**Maria Martin Carmona**

Antzuola. 4,370Kilo. Irailaren 4a. Gurasoak: Paki eta Iñigo. Argazkian, Maria amaren besoetan.



**Daniel Condrite**

Antzuola. 3,050Kilo. Irailaren 4a. Gurasoak: Marina eta Vali. Argazkian, Daniel arrea Denisarekin.

BABESLEA



Garibai 6 ARRASATE  
Tel.: 943 79 97 86

DENBORALDI BERRIA



Jarraitu gaitzazu Facebooken:  
**UME ARRASATE**



## AI, ENE!

### Kamiseta horrekin, zertarako gimnasia?

Nagiontzat aproposa da kamiseta hori: mugitu gabe, muskulu ederrak. Gerritik behera antzerakorik balego...

[www.nopuedocreer.com](http://www.nopuedocreer.com)



## AHOBERO


### "(Arkitektoak) akabatu egin beharko lirateke"

ESPERANZA AGIRRE | MADRILGO PRESIDENTEA

Agirrek ez du aste erraza izan: Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren ikasturte irekieran asko haserretu zen "Esperanza, hil zaitez" oihukatu zutenean. Neurri legalak hartzeko ere eskatu zuen. Berdina egin beharko luke arkitektoek bere aurka?

[www.lasexta.com](http://www.lasexta.com)

## EGURALDIA



Max. 32°

Min. 16°

Ostarteak izango dira zeruan. Baliteke zaparrada trumoitso- ren bat edo beste botatzea. [euskalmet.net](http://euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2012-09-10

## HAMARREKOA

**Itziar Ituño** Laster ikusiko dugu *Goenkale*-n Nekane ertzain moduan eta zinema aretoetan ere bada *Dragoi ehiztaria* filmean. Ilusionatuta harrapatu dugu, bere herriko, Basauriko, jaietako pregoia idazten. | TXOMIN MADINA

## "Fabrikakoa esperientzia gogorra baina oso polita izan zen"

### 1. Zer aurkituko du *Dragoi ehiztaria* ikustera doanak?

Kuban esfortzu handiarekin egindako pelikula bat. Angel Amigo ekoizlearena da istorioa, eta akzio apur bat ere badu. Xumea da, erdia euskaraz eta erdia erdaraz. Espero dut jende asko joatea ikustera.

### 2. Filmari baiezkoa emateko orduan, ze pisu izan zuen Kuban filmatu behar izateak?

%90-edo, egia esan! Pertsonaia ere gustatu zitzaidan, baina Kuban filmatzea *gozoki* hutsa zen eta itzela izan zen. Talde erdia hangoa zen, eta fenomeno hutsak dira.

### 3. Bada polemikarik: zuzendariak uko egin dio azken emaitzari.


Uda Perun eman ostean, bueltako egunean bertan izan zen aurre- treinaldia eta orduan enteratu nintzen. Zerbaite aurreikusten zen, baina horrek euren artean geratu behar du; nik eta lantaldeak nahi genuena zen estreinatzea.

### 4. *Goenkale*-k 19. denboraldia; oraindik bada ze kontatu Arralden?

Gauza pila bat: familia, pertsonaia berriak... Gero eta zailagoa da istorio originalak topatzea, baina krisiaren ildora istorio pila bat egongo dira.

### 5. Aspaldian ez zaitugu uniformeak jantzita ikusi; mailaz igotzearen abantaila?

Duda barik! Gizartean ez da askotan ikusten emakumea agintzen, eta, fikzioan bada ere, aprobetxatu egiten dut! Hasieran, *shock*-a izan zen uniformearekin ikustea janztea.



AGM

## MAKILA MAGIKOIA BANEUKA...

### "Gauza pila bat egingo nituzke"

"Gauza pila bat egingo nituzke: minbizia ezabatuko nuke; presoak kalera aterako nituzke, batez ere gaixo daudenak; hilabete batez ipiniko nituzke emakumeak gizonak dauden lekuan eta alderantziz, ea zer gertatzen den... A! Eta nire bizkarreko mina, joaten ez zaidan hori, sendatu egingo nuke".

### 6. Aukeran, Basauri jaioterria ala Arralde moduko herria nahiago?

Herri txikiak politikak dira; baina inoiz ez naiz baten bizi izan. Baina Basaurin zeregin asko dago euskeraren alde: apenas entzuten da eta batzuk buru-belarri gabiltza lanean. Beharrezkoagoa dela uste dut, Basauri ere Euskal Herria da-eta. Baina aurrerantzean, batek daki...

### 7. Lotsatia izanda, aktoresartuzinen. Lotsagabetu zara dagoeneko?

Ez, beti geratzen da puntu bat. Gutxien espero duzunean agertzen da; hori sekula ez da sendatzen.

### 8. Gutxi imajinatuko zaituzte hozkailuak muntatzen.

Soziologia amaitzean Fagorren fabrikari egon nintzen lanean. Soziologian ikasitako alienazioa bezalakoak neure azalean sufritu nituen. Esperientzia gogorra baina oso polita izan zen, hainbat gauza ulertzeko balio izan zidan.

### 9. Zure ideia politikoak ez dituzu gorde izan. Nabaritu duzu inoiz?

Nire kontra ez. Gauza bat nire lana da, eta beste bat nire ideiak eta bizitza; hor zuzenena egiten saiatzen naiz. Jendea harritu egiten da ertzainarena egin eta gero preso gaixoen alde agertzean. Horrelakoa da gure herria, kontraesanek beteak.

### 10. Noiz utziko dio kulturaren munduak dardar egiteari?

Badirudi luzaroan egongo garela dardarka; BEZaren igoerarekin, gainera... Espero dut momenturen baten buelta ematea...

## BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



## Oporrondoko

Oporrak opor, errealitatea berrituz (oporrek errealitatez kanpo, agian?!); kontua da, errealitateak "erre" duela bere baitan; dena den, oporrak ere, askorentzat, egiazko errealitate izan dira aurtengoan; gaixotasun larriak dituzten euskal preso politikoei nagokie, noski; eta bereziki Iosu, "Eperra" jasaten ari den tratu anker eta kafkianoari; hemendik, bere (eta kideen) berehalako askatasuna eskatzea baino ez dut.

Bestalde, egunotan gizartearatu den Harrera elkarteari ere ongietorri; Harrera, euskal errepresaliatuei laguntzeko sortu da; eta ondo pentsatuta nor ez da izan errepresaliatua Euskal Herri honetan? Neurri batean, beraz, denoi dagokigu. Bizitza labor baina emankorra deseatu nahiko nioke.

Bestalde, zutabe hau argitaratu orduko, Euskal Herriko historiagileen III. Kongresua abiatua izango da. Gaztelarrek buruturiko Konkistaren ondorioez arituko da. Arrasaten hasi, Leitzan eta Agoitzen jarraitu eta Iruñean amaituko dena, datorren asteburuan, irailak 15 eta 16. Euskaldunoi, geure egiazko historia zenbateraino ezkutatatu diguten eta egiazkoa zein den jakitea, kuriositate hutsa baino askoz ere garrantzitsua da; eta oso osasuntsua gainera; desberdinak garenaren susmo hori zertan oinarritzen den sumatzen lagun dezake.

